

XEDAPEN OROKORRAK

INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA ETA ETXEBIZITZA SAILA

2280

64/2020 DEKRETUA, maiatzaren 19koa, zeinaren bidez behin betiko onartzen baita Tolosako Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partziala (Tolosaldea).

1.– Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak –Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduari buruzko maiatzaren 31ko 4/1990 Legearen babespean idatzi eta izapidetuak– behin betiko onartu ziren uztailaren 30eko 128/2019 Dekretuaren bidez. Gidalerro horietan, Lurralde Plan Partzialak idazteko esparruak zehazten dira, eta horien artean dago Tolosako Eremu Funtzionala (Tolosaldea).

Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduari buruzko maiatzaren 31ko 4/1990 Legeak 2. eta 11. artikuluetan xedatutakoaren arabera, besteak beste, Lurralde Plan Partzialen bidez gauzatuko da Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde-antolamendua. Plan horietan, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroetako irizpide zehatzak adieraziko dira Eremu Funtzional bakoitzerako. Horren haritik, Gidalerroen 22. kapituluko 7. zenbakian –aplikazio-arauei buruzkoan– adierazten da garrantzitsua dela Lurralde Plan Partzialak formulatzea, hirigintza- eta lurralde-irizpide osagarriak gehitzeko aipatutako Gidalerroei. Izan ere, irizpide osagarri horiei esker, udal esparruko planen garapen doiagoa lor daiteke, eta lurralde-koherentzia handiagoa bermatzen da Lurraldearen Arloko Planak egiterakoan.

2.– Tolosako Lurralde Plan Partziala (Tolosaldea) idazteko lanak 1992ko uztailaren 13an hasi ziren; horretarako, lankidetzaren hitzarmena sinatu zen orduko Gipuzkoako Foru Aldundiko Hirigintza eta Arkitektura Sailaren eta Eusko Jaurlaritzako Hirigintza eta Etxebizitza Sailaren artean, eta, aipatutako hitzarmenaren arabera, erakunde horien arteko lankidetzaren arautzen zen Gipuzkoako Lurralde Historikoari eragiten zioten sei Lurralde Plan Partzialak idazteko eta formulatzeko. Lurralde Plan Partzial hau, beraz, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduari buruzko maiatzaren 31ko 4/1990 Legearen 13. artikuluan jasotakoaren arabera garatutako formulazio- eta izapidetze-prozesu luzearen emaitza da.

3.– Planaren edukiak erantzuna ematen dio Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduari buruzko maiatzaren 31ko 4/1990 Legearen 12. artikuluari; hots, Lurralde Plan Partzialek jaso behar dituzten zehaztapenen ingurukoari. Planak zenbait neurri, arau eta gidalerro ezartzen ditu, nagusiki Eremu Funtzionalaren antolamendu integrala lortzeko.

4.– Lurralde Plan Partzialaren (LPP) jarduera-eremua Tolosako Eremu Funtzionalak (Tolosaldea) osatutakoa da; hau da: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Goiaz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu, Lizartza, Orendain, Orexa, Tolosa, Villabona eta Zizurkilgo udal mugarteak, eta Enirio-Aralarko Mankomunitatean sartutako lurrak. Planaren helburu nagusia da erreferentzia izango den lurralde-eredu bat zehaztea, eredia osatzen duten elementu sektorialen arteko antolamendurako eta koordinaziorako arau eta jarraibide orokorren bidez. Horrela, hamasei urteko denbora-tartean, Eremu Funtzionalaren lurralde-garapena orekatua eta iraunkorra izango dela bermatuko da.

5.– Lurralde Plan Partzialean (LPP) definitutako Lurralde Eredua Eremu Funtzionalako lurralde-antolamenduaren oinarritzat hartuko diren funtsezko helburu orokorren eta estrategien

definizioan oinarritzen da, Eredu hori egituratzen duten osagaiei dagokienez (Ingurune Fisikoa, Kokalekuak eta Harreman Sistema). Era berean, aipatutako Eredua hirigintza-antolamenduak jarraitu beharko dituen irizpide, printzipio, arau orokor eta proposamen zehatzen ezarpenean ere oinarritzen da.

Aipatutako Lurralde Ereduaren oinarrietako bat da ingurune naturala babestea eta nabarmen-tzea, ingurune fisikoa antolatuta. Behin udal plangintzaren garapena bideratuko duten irizpide, printzipio eta ildo orokorrak finkatuta, Planak «Babestu, Hobetu edo Berreskuratu beharreko Ere-murik Garrantzitsuenak» definitzen ditu, bai eta Ingurune Fisikoaren kategorizazio orokorra ere. Era berean, «Intereseko Eremu» singularizatu bakoitzeko erabilera eta jardueren aplikazio- eta erregulazio-erregimena zehazten du, eta horien inguruko zenbait jarduera-proposamen planteatzen ditu, jarduera-neurri positibo gisa.

Ekipamendu eta espazio libreei dagokienez, Planak hiri-sistemaren kohesioa ahalbidetu nahi du, ekipamenduen banaketa orekatuaren bitartez eta landa-inguruetan dauden ekipamenduak ingurune naturalean integratzearen bitartez. Ondorioz, planteatzen dena da antolamendua eta lokalizazioa zenbait irizpideren arabera izatea: arrazionaltasun, hierarkizazio eta osagarritasun irizpideen arabera, besteak beste.

Mugikortasunari dagokionez, LPPk garraio-moduen (oinezkoak eta txirrindulariak; erre-pide-sareak eta trenbideak) planteamendu integratua egiten du, sistema jasangarria bermatzeko asmoz. Proposatutako antolamenduak administrazio sektorialen koordinazioa hartzen du kontuan, Eremu Funtzionaleko hiri-inguruneak eta landa-inguruneak artikulatzeko, eta Eremu Funtzionala bere ingurunearekin modu egokian integratzeko.

Etxebizitzari dagokionez, Planak egungo hiri-ehunen aprobetxamendua lehenesten du, hirigintzako biziberritze- eta birmoldaketa-prozesuak sustatuz lurzoru berriak okupatu orde. Etor-kizunean, Eremu Funtzionaleko udalerrietan etxebizitza arloko zein beharrian egon daitezkeen aurreikusteko, Planak erabiltzen ditu uztailaren 30eko 128/2019 Dekretuan ezarritako irizpideak (128/2019 Dekretua, uztailaren 30ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak behin betiko onesten duena).

Jarduera ekonomikoei dagokienez, Planak bere egiten du Jarduera Ekonomikoetarako eta Mer-kataritza Ekipamenduetarako Lurzorua Sortzeko Lurraldearen Arloko Planak udalerrri bakoitzerako zehaztu zuen kategorizazioa, eta definitu egingo du zein eremutan sustatuko den biziberritzea funtsezko garapen-erreminta gisa, bai eta jarduera ekonomikoetarako estrategia-polo berriak garatzeko balioko duten lehentasunezko lokalizazioak ere.

Beste alde batetik, Planean zenbait esku-hartze identifikatzen dira, estrategikotzat jotzen direnak Eremu Funtzionaleko lurralde-ereduaren funtsezko helburuetako batzuk lortzeko: herri nagusien gaur egungo sistema finkatzea eta sendotzea, eta horien arteko harreman funtzional handiagoa lortzeko beharrezkoa. Esku-hartze horiek ezaugarri komun bat dute: etorkizun hurbi-lean eraldaketa- edo berrantolaketa-prozesu garrantzitsuak izango dituzten agertoki urbanistikoak direla, alegia. Planak inguru horien plangintza definitzeko oinarri izango diren irizpideak eta jarraibi-deak zehazten ditu, bi arrazoiengatik: inguru horiek lurralde-euskarria eskaintzen dutelako Eremu Funtzional osorako garrantzitsuak diren ekipamendu, hornidura, azpiegitura edo garapenak bide-ratzeko, edo inguru horietan eraldaketa-prozesu garrantzitsuak gertatzen direlako, eta prozesu horiei udalerriaz gaindiko eta sektorearteko ikuspegitik egin behar zaielako aurre.

6.– Lurralde Antolamenduaren Gidalerroek zehaztutako lurralde-esparruan, Planak ahalegina egiten du Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta Gipuzkoako Foru Aldundiko

sailek sustatutako Lurraldearen Arloko Planak integartzeko. Alde horretatik, LPPa idazteko orduan, Plan hauek hartu dira kontuan:

- Euskal Autonomia Erkidegoko Ibaiak eta Errekak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritza eta Basozaintzako Lurraldearen Arloko Plana.
- Gune Hezeetako Lurraldearen Arloko Plana.
- Jarduera Ekonomikoetarako eta Merkataritza Ekipamendurako Lurzoru Publikoa sortzeko Lurraldearen Arloko Plana.
- Euskal Autonomia Erkidegoko eremuko Trenbide Sarearen Lurraldearen Arloko Plana.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Energia Eolikoaren Lurraldearen Arloko Plana.
- Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko Azpiegituren Lurraldearen Arloko Plana.
- Gipuzkoako Bizikleta Bideen Lurraldearen Arloko Plana.

7.– Lurralde Plan Partziala dokumentu hauek osatzen dute, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduari buruzko maiatzaren 31ko 4/1990 Legearen 12.3 artikuluan ezarritakoa betez:

- a) Memoria (Plana formulatzeko eta Eremu Funtzionaleko Lurralde Eredua osatzeko oinarriak, antolakuntzako funtsezko helburuak eta irizpideak finkatzeko oinarriak, eta Lurralde Eredua definitzeko oinarriak).
- b) Planoak (Informazio- eta antolamendu-planoak).
- c) Azterketa ekonomiko eta finantzarioa, eta Exekuzio-programa.
- d) Antolamendu-arauak.
- e) Udal plangintzari egindako afekzioen dokumentu osagarria.
- f) Ingurumen-eraginaren ebaluazio bateratuaren azterketa.

8.– Aipatutako antolamendu-arauek Planean arautzat jotzen diren xedapen guztiak biltzen dituzte, eta dekretu honen I. eranskin gisa jaso dira, argitara daitezen, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduari buruzko maiatzaren 31ko 4/1990 Legearen 13.10 artikuluan ezartzen den bezala, nahiz eta Lurralde Plan Partzial osoa Sailaren webgunearen bitartez jarriko den jendaurrean, guztiek izan dezaten haren berri.

9.– Era berean, Planarekin batera doa Ingurumen-eraginaren Ebaluazio Bateratuaren Azterketa ere. Ingurumen-araudian xedatutakoa betetzeko (9/2006 Legea, apirilaren 28koa, zenbait plan eta programak ingurumenean dituzten ondorioen ebaluazioaren gainekoa; 3/1998 Lege Orokorra, Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumena babesten duena, eta haren erregelamenduzko garapena den uztailaren 22ko 183/2003 Dekretua, ingurumen-eraginaren ebaluazio bateratuaren prozedura arautzen duena), ingurumen-arloak Planean txertatzeaz hartutako erabakiaren gaineko aginduzko adierazpena gehitu zaio dekretu honi, II. eranskin gisa.

10.– Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren eskumena da Plan honen behin betiko onarpena Gobernu Kontseilura eramatea, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduari buruzko maiatzaren 31ko 4/1990 Legearen 13.9 artikuluan xedatutakoa betez.

11.– Gobernu Kontseiluaren eskumena da Tolosako Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partziala (Tolosaldea) behin betiko onartzea, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduari buruzko maiatzaren 31ko 4/1990 Legearen 13.10 artikuluan ezarritakoaren arabera.

Ondorioz, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuaren proposamenez, eta Gobernu Kontseiluak 2020ko maiatzaren 19an egindako bileran gaia aztertu eta onartu ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT:

Artikulu bakarra.– 1.– Behin betiko onartzea Tolosako Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partziala (Tolosaldea). Haren antolamendu-arauak dekretu honi gehitu zaizkio I. eranskin gisa.

2 – Dekretu honen II. eranskinean, ingurumen-arloak Lurralde Plan Partzialean sartzearen inguruan hartutako erabakiaren gaineko adierazpena jaso da.

3 – Era berean, III. eranskinean, Lurralde Plan Partzial honen kartografia argitaratu da.

LEHENENGO XEDAPEN IRAGANKORRA

Plan hau indarrean jartzeko unean hasieran onartu ez diren Lurraldearen Arloko Planak berrikusteko eta aldatzeko dokumentuak egokitu egin beharko dira plan honetan jasotako zehaztapenetara, Tolosako Eremu Funtzionalari (Tolosaldea) eragiten dioten arlo guztietan.

Edonola ere, Lurralde Plan Partzial hau indarrean jartzean indarrean dauden Lurraldearen Arloko Planak egokitu egin beharko dira plan honetan xedatutakora, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduari buruzko maiatzaren 31ko 4/1990 Legearen laugarren xedapen gehigarrian aurrez ikusitakoa salbuetsita.

BIGARREN XEDAPEN IRAGANKORRA

Tolosako Eremu Funtzionalean (Tolosaldea) dauden udalerrietako hirigintza-dokumentuak Plan honetan jasotako zehaztapenetara egokitu beharko dira, baldin eta Plan Orokorrak eta Arau Subsidiarioak egiteko, berrikusteko edo aldatzeko prozesuetan badaude eta Plan hau indarrean jartzeko unean hasieran onartu ez badira.

Edonola ere, indarrean dagoen udal-esparruko antolamendu orokorra Lurralde Plan Partzial honetan ezarritakoaren arabera egokitu beharko da, hura indarrean jarri eta zortzi urteko epean.

AZKEN XEDAPENA

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hilabeteko epean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2020ko maiatzaren 19an.

Lehendakaria,
IÑIGO URKULLU RENTERIA.

Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburua,
IGNACIO MARÍA ARRIOLA LÓPEZ.

I. ERANSKINA, MAIATZAREN 19KO 64/2020 DEKRETUARENA

ANTOLAMENDU-ARAUAK

I. KAPITULUA

LZPa APLIKATZEARI BURUZKO XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua. XEDEA.

Lurralde Plan Partzial honek Tolosaldeko Eremu Funtzionala antolatzea du xede. Horretarako, garatu egingo ditu Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduari buruzko maiatzaren 31ko 4/1990 Legeak 12. artikuluan 1. puntuan ezarritako zehaztapenak, baita eremu horretan aplikagarri diren Lurraldearen Antolamendurako Artezpideen (LAA) edukiak ere, aipatutako legean aurreikusitakoaren arabera.

2. artikulua. APLIKAZIO-EREMUA.

Tolosaldeko Eremu Funtzionalako Lurralde Plan Partziala Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolaketako Artezpideek horretarako mugatutako eremu osoan aplikatuko da. Horretan, eremu funtzionalako hogeita zortzi udalerrriak sartzen dira, hala nola Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Goitatz, Gaztelu, Elduain, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Villabona eta Zizurkil, Gipuzkoa-Nafarroako hainbat sailekin batera (Enirio-Aralarreko Mankomunitatea).

3. artikulua. INDARREAN IRAUTEKO BALDINTZAK.

1.- Plan honek iraupen mugagabea izango du, nahiz eta beronen programazioa denboraren arabera izan eta berrius eta alda daitekeen.

2.- Lau urtean behin Tolosaldeko Eremu Funtzionalako Lurralde Plan Partziala idazteko eta horren jarraipena egiteko eskumena duten Eusko Jaurlaritzako sail eta Gipuzkoako Foru Aldundiko departamentuek memoria bat egingo dute plana zenbateraino bete den eta horrek udaletako arloko eta hirigintzako lurralde plangintzan zein eragin izan duen balioesteko, eta, hala badagokio behintzat, hautemandako bat ez etortzeak ekiditeko hartu beharreko neurriak definituko dituzte. Memoria hori Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordeari aurkeztuko zaio, berorren berri izan dezan.

3.- Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduari buruzko maiatzaren 31ko 4/1990 Legeak bere 3. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, Eusko Jaurlaritzak Lurralde Plan Partzialaren indarraldia eten dezake, hura berrikusteko.

4. artikulua. TOLOSALDEKO EREMU FUNTZIONALEKO LURRALDE-PLAN PARTZIALA ALDATZEA ETA BERRIKUSTEA.

1.- Lurralde Plan Partzial honetan jasotako edukia aldatu ahal izango da, bai berrikuspenera egitean bai plana osatzen duten elementu bat edo batzuk aldatzean.

2.- Aldaketa puntualtzat joko da dokumentazioa edo zehaztapenak aldatzea edo gehitzea, betiere horrek ez badakar berekin plana bere osotasunean berraztertzea, proposamenean oro har izandako eragina puntuala eta isolatua baino ez delako.

Aldaketa horiek interes orokorreko arrazoiak izan behar dituzte oinarri eta ezinbestekoa izango da horien edukia eta irismena zehatz-mehatz deskribatzea, baita horiek berriaz justifikatzea ere. Hori dela eta, behar adinako xehetasunez ebaluatuko dira horiek Tolosaldeko Eremu Funtzionalako Lurralde Plan Partzialaren aurreikuspenetan duten eragina, biztanleriari, enpleguari, gizarte ekipamenduari eta azpiegiturei dagokienez.

Aldaketa guztiek zerikusia izango dute horiek justifikatzeko arrazoiarekin eta espedientearen ezingo dira barne hartu arrazoi horrekin zerikusirik ez duten planaren aldaketak edo egindako deskribapen eta justifikazioetan berriaz aipatzen ez direnak.

3.- Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduari buruzko maiatzaren 31ko 4/1990 Legeak bere 14. artikuluan xedatutakoaren arabera, Lurralde Plan Partzialean egiten diren aldaketak, berrikuspen orokor baten ondorioz egin ez direnak edo plana nabarmenki aldatzen ez dutenak gauzatzeko, jarraitu egingo da irailaren 9ko 206/2003 Dekretuan, hots, Lurraldearen Antolamendurako Arauetan, Lurralde Plan Partzialetan eta Lurraldearen Arloko Planetan funtsezkoak ez diren aldaketak egiteko prozedura onartzen duenean, xedatutakoa.

4.- Tolosaldeko Ereku Funtzionaleko Lurralde Plan Partziala berrikusteko zertu daitezkeen ekimenak (legekotatasunaren inguruko arrazoiak -lege-aldaketak, lurraldearen antolamendua eta abar- nahiz aukera edota premien araberrakoak) direnak direla ere, ondoren aipatutako kasuetan berrikusiko da:

- a) Ereku funtzionaleko biztanleria plan honetan egindako gehienezko aurreikuspenak baino % 6 handiagoa denean.
- b) Planifikatutako etxebizitza berrien % 75i eman zaizkienean eraikitzeke baimenak.
- c) Ekonomia-jarduera berriak ezartzeko aurreikusitako lurzoruaren % 75 baino gehiago okupatu denean.
- d) Behin betiko onarpenetik hamasei urte igaro direnean.
- e) Oro har, sortutako egoerek Lurralde Plan Partzialak bere egindako oinarrizko magnitudeen inguruko hipotesiak (biztanleriaren, enplegu-dinamikaren edo etxebizitzaren merkatuaren ingurukoak) aldatzen dituztenean eta horiek ezarritako antolamendurako irizpide orokorrak aldatzera behartzen dutenean.
- f) Euskal Autonomia Erkidegoko Lurraldearen Antolamendurako Artezpideen aldaketak edo berrikuspenak zuzenean eremu funtzionalean eragiten duen lurralde-ereduaren aldaketa dakartenean berekin.
- g) Edozein kasutan, Tolosaldeko Ereku Funtzionaleko Lurralde Plan Partziala indarrean sartu eta handik zortzi urtera berrikustea egoki litzatekeen aztertuko da.

5.- Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduari buruzko maiatzaren 31ko 4/1990 Legeak bere 13. artikuluan aurreikusitakoaren arabera egingo da Lurralde Plan Partzialaren berrikuspena.

5. artikulua. LZPAREN DOKUMENTAZIOA ETA INTERPRETAZIOA.

1.- LZPak agiri hauek ditu:

- A) MEMORIA.
- B) INFORMAZIO- ETA ANTOLAMENDU-PLANOAK.
- C) EKONOMIA- ETA FINANTZA-AZTERKETA ETA GAUZATZEKO PROGRAMA.
- D) ANTOLAMENDU-ARAUAK.
- E) UDAL PLANGINTZAREN GAINEKO ERAGINEN AGIRI OSAGARRIA.
- F) INGURUMENAREN GAINEKO ERAGINAREN EBALUAZIO BATERATUAREN AZTERKETA.

2.- LZParen edukia berai osatzen duten agirietan barne hartutako zehaztapenek osatzen dute, nahiz eta solik antolamendu-arauek eta antolamendu-planoez duten arautzeko ahalmena berariaz; horrenbestez, kontraesanik aurkituz gero, azken bietan adierazitakoa hartuko da kontuan.

Dokumentazio grafikoaren eta idatzizkoaren arteko kontraesan edo bat ez etortzeren bat badago, idatzizkoa izango da nagusi. Kontraesana edo bat ez etortzea idatzizkoen eta zenbakizkoen artekoa bada, idatzizkoak izango dira nagusi.

3.- Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordearen irailaren 9koa 157/2008 Dekretuak 3.1.s) artikuluan xedatutakoari jarraikiz, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolakuntzako Batzordeari ematen zaio Tolosaldeko Ereku Funtzionaleko Lurralde Plan Partzialeko zehaztapenak interpretatzeko ahalmena.

4.- Dokumentu hau izapidetzean aldatu egin da Batasuneko Intereseko Leku (BIL) deiturikoen izendapena, eta Kontserbazio Bereziko Ereku (KBE) izaera igaro dira. Hori dela eta, Tolosaldeko Lurralde Plan Partzialaren dokumentu guztietan -dokumentu grafiko zein idatzietan- BILei buruz egiten diren aipamen guztiak leku horietarako deklaraturako KBE izendapenez aldatutzat joko dira, eta KBE horietako bakoitzari dagokion araudia izango zaio aplikagarri.

II. KAPITULUA

ANTOLAMENDUAREN FUNTSEZKO OINARRIAK ETA EDUKIAK KONTZEPTU ETA ENUNTZIATU OROKORRAK

6. artikulua. ZEHAZTAPEN OROKORRAK SISTEMATIZATZEA.

Tolosaldeko Eremu Funtzionaleko (EF) Lurralde Plan Partziala (LZP) antolamendurako esparru orokorra eta berariazko erreferentzia da. Berau lantzeko orduan, ondoren adierazitako kontzeptu-multzoak bereizi dira:

- a) *Antolamendurako helburu orokorrak.*
- b) *Antolamendurako zehaztapenak, Lurralde-ereduan islatzen direnak.*
- c) *Lurralde-eredua osatzera zuzendutako irizpide, arau eta esku-hartze espezifikoak, haren garapena eta eraginkortasuna lortzeko funtsezkoak direnak.*

7. artikulua. ANTOLAMENDURAKO HELBURU OROKORRAK.

1.- Tolosaldeko Eremu Funtzionalaren antolamenduak hauek ditu xede, giza habitata eta ingurune naturala zentzuz antolatzeko helburua gogoan:

- a) Eskualdeko natura-baliabideak eta horien paisaia eta ingurumen kalitatea zaintzea, hobetzea eta balioz hornitzea, horiek funtsezko aktibo baitira eskualdearen etorkizuneko garapen iraunkorrerako.
- b) EAEko hirien sistemarekiko koherentea, orekatua eta integratua den asentamendu sistema bat lortzea, udalerriek betetzen dituzten funtzio desberdinen osagarritasuna eta hiri esparruaren eta landa esparruaren arteko erlazio mota berria oinarrian hartuta. Hartara, ekonomiaren eta gizartearen garapena eta kohesioa indartuko da eremuko biztanleen artean.
- c) Azpiegitura sistema egokia garatzea, Tolosaldeko Eremu Funtzionala kanpoko garapen ardatzetan integratuko dela ziurtatzeko, inguruko eremu funtzionalekiko loturak garatzeko eta egituraketa indartzeko (ereduko oinarritzko elementuen arteko erlazio funtzionalak hobetuko dituzten konexioen bitartez).

2.- Eremu Funtzionaleko lurralde garapenerako esku-hartzeak helburu horien arabekoak izango dira.

3.- Dena den, helburu horiek lortzeko, LZPak funtsezko jotzen ditu halaber antolamendurako irizpide eta zehaztapenen definizio eta aplikazioa arautuko duten bi printzipio: garapen iraunkorra eta lurraldearen erabilera arrazionala.

Aipatu lehenak eskatzen du ingurumenaren babesari eta natura-baliabideen kudeaketari lotutako alderdiak zein garapen ekonomiko eta sozialari dagozkionak -garapena, betiere, eremuko biztanleen bizi-kalitatea areagotzea dela ulertuta- modu integratuan kontuan hartzea; eta bizi-kalitatearen areagotze horri muga bat ezartzen dio, mantentzea etorkizuneko belaunaldiek bere beharrak ase ahal izateko gaitasuna.

Bigarrenak, lurraldearen erabilera arrazionalari lotuak, berekin dakartza honako hauek:

- a) Lurraldeak hartzen duen erabilera eta funtzio multzoa aztertzea.
- b) Baliabideen ustiapenerako mugak badirelako ideia onartzea.
- c) Lehengaietan eta energian iraunkortasun eta aurrezki irizpideak jarraitzea.
- d) Lurraldearen harrera-ahalmena errespetatzea.

Azken batean, modu harmonizatu batean bateragarri egitea natura- eta landa-ingurunearen eta lehen sektoreko jardueren babesa eta hobekuntza, hiri, ekonomia eta azpiegituren garapen koherente eta antolatu batekin.

8. artikulua. LURRALDE-EREDUA.

1.- Lurralde-eredua definitzen dutenak LZPko lurraldearen antolamendurako zehaztapenak dira, hauek zehaztu egiten baitituzte plangintzan aplikatuko diren printzipioak, irizpideak, orientazioak eta antolamendu proposamenak edo soluzioak, edo, hala badagokio, lurralde, eremu funtzionalan garatzen diren sektore eta hirigintzako jardueren arautzean aplikatuko direnak, LZParen eskumen esparruaren barruan betiere.

Lurralde-ereduaren definizioa eta dimentsionamendua bat dator planaren memorian adierazitako helburu demografiko, sozioekonomiko eta ingurumenekoekin, eta iraunkortasunaren eta orekaren irizpideak hartu dira kontuan, 2002-2020 Garapen Iraunkorraren Euskal Ingurumen Estrategiaren esparruan.

2.- Lurralde-ereduak, lurralde sistemaren oinarriko osagaietatik abiatuta, kontzeptu multzo nagusi hauek bereizten ditu bere antolamendu edukiak aurkezteko:

- a) Ingurune fisikoa.
- b) Harreman sistemaren eta zerbitzuen azpiegiturak.
- c) Asentamendu sistema, hornidura sistema barne.

eta Hiri Garapenerako Esku-hartze Estrategikoak eta Plangintzarako Irizpideak identifikatuz eta proposatuz osatzen da.

3.- Lurralde-ereduaren osagai adierazgarriek, lurraldearen antolaketa funtzionalaren eta espazialaren oinarri direnek, lurralde-egitura zehazten dute, eta azken hauxe da eremu funtzionala egituratzen duen konplexua, eta LZParen antolamendu proposamenaren gunea.

4.- Lurralde-eredua da lehentasunezko erreferentzia, eta baita derrigorrezkoa ere, lurraldearen antolamendurako zein lurraldearen gainean esku hartzeko soluzioak garatzeko -bai zuzenean bai arloko plangintzaz, udal mailakoaz eta bereziaz- araudi honetan jasotzen diren izaera eta lotura maileri jarraikiz.

9. artikulua. LURRALDE-EGITURA.

1.- Eremu funtzionalaren lurralde-egitura ezartzeko, LZParen helburuak lortzeko unean eginkizun erabakigarria betetzeko gaitasuna duten ereduko antolamendu osagaiak hartzen dira oinarri, honako hauek:

Ingurune fisikoa:

- a) Garrantzi bereziko eremuak, interesa dutelako naturaren eta paisaiaren aldetik, zientzia eta kulturarenetik, nekazaritza eta hidrologiarenetik, ingurune fisikoaren eta beronen antolamenduaren erreferentziatzko elementu gisa.

Asentamenduak:

- a) Egun dauden hiriguneak eta LZP honetako lurralde-ereduan ezarrita dauden horien ezaugarriak eta betetzen duten eginkizuna, jarduera ekonomikoetarako asentamendu garrantzitsuenak eta ekipamendu sistemako udalaz gaindiko intereseko elementuak ere barne.
- b) Asentamendu berrietarako proposamenak, bai bizitegirako bai jarduera ekonomikoetarakoak, LZP honetako irizpide eta helburuen arabera duten eragina edo eskualde maila dela eta esku-hartze estrategikotzat hartzen direnak.
- c) Udalaz gaindiko hiri izaerako ekipamenduak edo natura-inguruneak, LZP honetako lurralde-ereduan jasoak.

Azpiegiturak:

- a) Egun dagoen bide sarea, LZP honek jasotako kategorizazioarekin, eta bertan biltzen diren udal mailaz gaindiko proposamenekin.
- b) Trenbide sarea, bai dagoena bai proposatua, LZP honetan jasoak, bidaiari eta merkantziatarako geltokiak eta truke-guneak eta geltoki nagusien inguruak eraldatzeko eta birsortzeko proposamenak barne harturik.
- c) Zerbitzu Azpiegituren Sistemako elementu aipagarriak edo lurralde eragin handienekoak, hala nola urtegiak, araztegiak, elektrizitate-transformazioko estazio nagusiak eta antzekoak.

2.- Tolosaldeko Eremu Funtzionalaren LZPan lurralde-egitura definitzen duten zehaztapenak dira, egitura horren osagaiei buruzkoekin batera, indar lotesle handieneko antolamendu xedapenak, eta horrelakotzat jaso behar dira garapeneko plangintzan eta osagai horiei eragiten dieten bestelako jarduketetan ere.

10. artikulua. ESKU-HARTZEEZ ORO HAR.

1.- Lurralde-eredua lortzeko, LZP honetatik esku hartzeko hainbat proposamen definitzen dira, edo lurralde eragina duten ekintza espezifikoak; horien xedea honako hau da:

- a) antolamendu zehaztapenei dagozkien lerrunak edo jarduketarako lehentasunak ezartzea.
- b) Administrazio Publikoaren lurralde- eta arlo-politika oinarritzea.
- c) bizitegi-asantamenduei eta jarduera ekonomikoetarako eta zuzkidurakoei dagokien lurzoru-politika bideratzea.
- d) exiji daitekeen garapeneko plangintzarako estrategia eta programazioa prestatzea, planen koordinazioarekin batera horrela dagokionean.
- e) jarduketa bereziak edo osagarriak behar dituzten lurralde-ereduko antolamendu-zehaztapenak gauzatzea.

2.- Lurralde-egiturako eremu edo elementuen gainean zertzen diren eskualde mailako esku-hartze proposamenak, ereduaren funtsezko zehaztapenak garatzera edo gauzatzera bideratuak, Esku-hartze Estrategikoak dira.

LZP honetako beste esku-hartze proposamenak Lehentasunezko Esku-hartzeak dira.

11. artikulua. EREMU FUNTZIONALEKO ANTOLAMENDU-KATEGORIAK.

Plan honen ondorioetarako, Eremu Funtzionalaren lurralde-ereduaren antolamendua sistematizatu egiten da, ondoren azaltzen diren kategoria multzoen arabera -horien definizioa dagokien epigrafeetan ematen da:

A) INGURUNE FISIKOAREN ANTOLAMENDUA.

A.1. GARRANTZI BEREZIKO EREMUAK.

A.1.1. Babestu beharreko eremuak:

- a) *Natura-intereseko eremuak.*
- b) *Interes zientifiko-kulturaleko eremuak eta guneak.*
- c) *Nekazaritza- edota ingurumen-intereseko eremuak.*
- d) *Interes hidrologikoko eremuak.*

A.1.2. Hobetu edota leheneratu beharreko eremuak:

- a) *Ekosistemak hobetzeko eremuak.*
- b) *Baso kontserbazioko eremuak.*
- c) *Erabiltzen ez diren meatze, harrobi eta zabortegiak.*

A.2. INGURUNE FISIKOAREN KATEGORIZAZIO OROKORRA.

A.2.1. Kategoria orokorrak:

- a) *Babes berezia.*
- b) *Ingurumen hobekuntza.*
- c) *Basogintza.*
- d) *Nekazaritza eta abeltzaintzako eremua eta landazabala.*
- e) *Mendiko larreak.*
- f) *Lur gaineko uren babesa.*

A.2.2. Baldintzatzaile gainjarriak:

- a) *Akuiferoen urrakortasuna.*
- b) *Higa daitezkeen eremuak.*
- c) *Urpean gera daitezkeen eremuak.*
- d) *Espazio natural babestuak eta Natura 2000 sarea.*
- e) *Korridore ekologikoen sarea.*

B) OINARRIZKO AZPIEGITURA SISTEMAREN EREDUA.**B.1. GARRAIO- ETA KOMUNIKABIDE-SISTEMA.****B.1.1. Errepide sarea:**

- a) *Kanpoko Sarbide Sare Orokorra.*
- b) *Tokiko Sarbide Sare Nagusia.*
- c) *Lurraldeko Sarbide Sare Osagarria.*
- d) *Tokiko Bigarren Mailako Sarbide Sarea.*
- e) *Landaguneetako sarbide sarea.*

B.1.2. Oinezko eta txirrindularientzako hiriarteko sarea.**B.1.3. Ingurumen ibilbideen sarea.****B.1.4. Trenbide sarea:**

- a) *Trenbide sare berria.*
- b) *Egungo trenbide sarea eta aldirietakoa (RENFE).*

B.1.5. Sistemako beste hainbat elementu:

- a) *Autobus geltokiak eta intermodalak.*

B.2. OINARRIZKO ZERBITZU AZPIEGITURAK.

- a) *Saneamendua.*
- b) *Ur hornidura.*
- c) *Arriskuen prebentzioa.*
- d) *Hondakin solidoak.*
- e) *Azpiegitura elektrikoak.*
- f) *Gas azpiegiturak.*
- g) *Telekomunikazio azpiegiturak.*

C) ASENTAMENDU SISTEMAREN EREDUA.**C.1. UDALERRIEN KATEGORIZAZIOA.**

- a) *Burutza-hiri edo azpi-burutza sistemako hiriguneak.*
- b) *Tamaina ertaineko hiriguneak.*
- c) *Landa esparruetako guneak.*

C.2. OKUPAZIOAREN EZAUGARRI OROKORRAK.

- a) *Hiri esparruak.*
 - a.1. *Hiri esparru garatuak.*
 - a.2. *Hiri garapenerako esparruak:*
 - *Hiri eraldaketa edota biziberritzeko espazioak.*
 - *Garapen berrietarako eremu nagusiak.*
- b) *Landa esparruetako guneak.*
- c) *Hiri garapenik gabeko esparruak: Garapenik gabeko korridoreak eta Erreserba Espazialerako Eremuak.*

C.3. BIZITEGIRAKO ASENTAMENDUAK.

C.3.1. Asentamendu kategoriak eta lurzoru politikak:

- a) *Hazkunde selektiboko udalerriak.*
- b) *Lurraldeko sarreraguneak.*
- c) *Ordezko habitatak.*
- d) *Etxebizitza babestuaren garapen publikorako lehentasunezko interesa duen udalerrria.*
- e) *Jarduera publikoak garatzeko lehentasunezko interesa duen udalerrria.*

C.4. JARDUERA EKONOMIKOETARAKO ASENTAMENDUAK.

C.4.1. Asentamendu kategoriak eta lurzoru politikak:

- a) *Lehentasunezko intereseko udalerriak.*
- b) *Hazkunde moteleko udalerriak.*
- c) *Garapen txikiko udalerriak.*
- d) *Sustapen publikoko eskualde poligonoa.*

C.5. EKIPAMENDUAK ETA ESPAZIO LIBREAK.

C.5.1. Hiri ekipamenduak:

- a) *Hezkuntza arlokoa.*
- b) *Kirol arlokoa.*
- c) *Osasun eta sorospenekoa.*
- d) *Hiri eta administrazio zerbitzuak.*
- e) *Kultura eta aisiakoa.*
- f) *Komertziala.*
- g) *Garraiorako ekipamenduak.*
- h) *Hiri inguruko parkeen zuzkidurak.*
- i) *Beste hornidura batzuk (Lurralderako sarreraguneetako ekipamendu bereziak, etab.).*

C.5.2. Landa eremuetako eta ingurune naturaleko ekipamenduak eta azpiegiturak:

- a) *Aisialdi eta atsedenerako eremuak.*
- b) *Ingurumen ibilbideen sarea.*
- c) *Beste hainbat ekipamendu.*

C.6. ASENTAMENDU EREDUAN ESKU HARTZEKO MODUAK.

C.6.1. Esku hartzeko moduak:

- a) *Babes eta birgaitze jarduketak.*
- b) *Hiri eremuak eraldatzeko eta biziberritzeko jarduketak.*
- c) *Garapen berriak egiteko jarduketak.*
- d) *Zentraltasunak indartzeko jarduketak.*

C.6.2. Esku-hartzeen hierarkia lerruna:

- a) *Esku-hartze estrategikoak.*
- b) *Lehentasunezko esku-hartzeak.*

12. artikulua. LURZORUAREN BEREIZTE PRIMARIOA.

1.- Tolosaldeko Eremu Funtzionalaren antolamenduak lurzuaren lehen eta oinarrizko egituraketa bat ezartzen du, lurralde jardueren euskarriztat; eta bi multzo handi bereizten ditu:

a) Hiri-garapenerako lurzuak.

Hiri garapenerako lurzuak honako hauek dira:

- Lurralde-ereduarekin bat hiri antolamendurako planek ematen dieten hirigintzako sailkapena dela-eta edozein unetan kontsiderazio hori duten edo izan dezaketen lurzuak.
- LZPko lurralde-ereduak, eta dokumentu horrek ematen duen lotespen mailaz, hiri asentamendu, esku-hartze eta jarduera nagusien egoitzatztat zehazten dituenak, hirigintzako plangintzan zehaztu beharko badira ere.

b) Ingurune fisikoari dagozkion lurzuak.

Ingurune fisikoari edo natura-inguruneari dagozkio bere ezaugarriak direla eta LZP honetako 13. artikuluan jasotzen den definizioan sartutako lurzuak.

2.- Ingurune fisikoari dagozkion lurzuak hiri-garapenerako hartzeko, betiere antolamendu orokorra aurrez tramitatu eta onartu delarik, LZP honetako Ingurune Fisikoa Antolatzeko Kategoriek helburu horretarako bateragarri jotzen dituzten esparruen hirigintzako sailkapen justifikatua beharko da, betiere kategoria horiek ezartzen dituzten terminoetan edo baldintzetan.

III. KAPITULUA

ANTOLAMENDUAREN FUNTSEZKO OINARRIAK ETA EDUKIAK **INGURUNE FISIKOAREN ANTOLAMENDUA**

13. artikulua. INGURUNE FISIKOAREN ANTOLAMENDUAREN HELBURUAK.

1.- Araudi honetan adierazitakoa betez, lurraldearen zati batek, ingurune fisiko izendatua izateko, hainbat baldintza bete behar ditu, honako hauek:

- a) Natura-baliabideen eta oinarrizko ziklo ekologikoen euskarria da.
- b) Gehien bat nekazaritza eta abeltzaintzako eta basoko erabilera du edota balio ekologikoa du, eta lehen sektoreko produktibitateko balioa, balio paisajistikoa eta zientzia eta kulturako balioa du. Hori guztia dela eta, babestu beharreko eremu bat da.
- c) Ez du hiri izaerarik eta ez da hiri garapeneko eremutzat jotzen, 12.1 artikuluan adierazitako definizioen arabera.

Ingurune fisikoa ez da hiri izaerako edo antzeko izaerako asentamendu edo jarduera nagusiak kokatzeko erabiliko hasiera batean, baina, hala ere, oinarrizko azpiegituren euskarri eta LZP honen arabera lurralde elementuren eta zehaztapenen euskarri izan daiteke, betiere hirigintzako eta lurraldeko legerian adierazitakoari jarraituz.

2.- Lurralde eta hirigintzako antolamenduan eta Tolosaldeko Eremu Funtzionaleko ingurune fisikoan eragiten duten esku-hartzeak helburu orokor batzuk betetzera zuzenduko dira; helburu horiek honako hauek dira:

- a) Eremu funtzionaleko garrantzi handieneko naturguneen babes eraginkorra bermatzea.
- b) Gaur egun dauden baso autoktonoen masa handiak babestea, horien kalitate ekologikoari eusteko eta, hala badagokio, hobetzeko, horien azalera handitzea ahalbidetuz.
- c) Basa fauna eta florako espezieen kontserbazioari laguntzea, dibertsitate genetikoa eta dagokien habitaten babesa bermatuz; arreta berezia jarriko da espezie mehatxatuen gainean.
- d) Landare estaldurari eutsiko zaiola edota hori hobetu egingo dela bermatzea, materialen desplazamenduak gertatzeko arriskua dagoen zonaldeetan, bertan eragin kaltegarria izan dezaketen jarduerak kokatzea saihestuz.
- e) Drainatzeko sare naturala hobetzea edota mantentzea, uren eta erriberako ekosistemen kalitatearekin batera, horietan eragiten duten faktoreei (alterazio, isurketa eta abarri) arreta eskainiz.
- f) Lur azpiko baliabide akuiferoen kalitateari eustea edota hori hobetzea eta horiek gehiegi ustiatzea eragozte, horretarako hiri isurketak nahiz nekazaritza eta abeltzaintzakoak kontrolatuz.
- g) Harrera-ahalmenarekin bateragarri ez diren jarduerak direla eta degradatutako lurzorua leheneratzea sustatzea (utzitako harrobiak eta hondakindegia, meatze inguruak eta higadura-arriskua duten zonaldeak).
- h) Multzo paisajistikoa baliotsuak eta kultur ondarea babestea.
- i) Nekazaritzako jarduerak eta balioak mantentzea bermatzea, eta kalitate handieneko lurrak babestea.
- j) Orain arte erabili ez diren edo nahikoa aprobetxatu ez diren baliabide naturalak aktibatzea sustatzea, landa-ingurunea garatzeko eta baliabide naturalak zentzuz erabiltzeko estrategia orokorraren barruan.
- k) Atsegin hartzeko eta turismorako erabilera modu antolatuan sustatzea, ekipamendu ludiko eta kulturalen bidez. Ondare natural eta kulturalean oinarritutako ekipamendu horiek lurraldearen erabilera sustatuko dute.

14. artikulua. INGURUNE FISIKORAKO LURRALDE-EREDUA.

1.- Ingurune fisikorako lurralde-eredua bere ezaugarrien, arriskuen, ingurumen, zientzia, kultura eta produktio balioen eta izan dezaketen bilakaeraren arabera definitu diren esparru homogeneotan kategorizatu da. Helburutzat du, batetik, aipatutako balioak babestea, hobetzea eta berreskuratzea eta, bestetik, horien arazoizko erabilera lortzea, lurraldearen iraunkortasuna ziurtatzeko.

2.- Kategoria horiek definitzeko -proposamen moduan ulertu behar dira-, eskema honi jarraitu zaio:

- a) **01.1 planoan**, «Ingurune fisikoaren antolamendua. **Babestu, hobetu edota leheneratu beharreko garrantzi handieneko eremuak**» izenekoan, eta 15. artikuluan definitutako babestu, hobetu edota leheneratu beharreko garrantzi handieneko eremuak. Eremu horietarako ezarritako zehaztapenak oinarritzko antolamendu xedapen gisa ulertu behar dira eta, hortaz, garapen zehaztapenetan udal plangintza antolatzeke ezinbesteko esparrua ere badira.
- b) **Ingurune fisikoaren kategorizazio orokorra**, 16. artikuluan zehaztutakoa.

15. artikulua. GARRANTZI BEREZIKO EREMUAK.

1.- Balio naturalistikoa, ekologikoa, paisajistikoa eta zientifikoa dela eta garrantzi handiena duten esparruak, eta nekazaritza-interesa eta interes hidrolotikoa dutenak zein narriatuta daudenak edo eremu funtzionalean gainjarritako baldintzatzaile bat dutenak, **01.1 planoan** barne hartu direnak, berariaz babesteko eta hobetzeko eremutzat jotzen dira eta, bakoitzaren ezaugarrien arabera, babestu, hobetu edota berreskuratu beharreko eremutan bereizten dira.

Garapen plangintzan barnean hartzean izaera loteslea hartzen dute; hala ere, izaera lotesleari kalterik egin gabe, aipatutako ezaugarriak dituzten beste eremu batzuk definitu ahal izango dira edo udal antolamenduaren eskalatik proposatutako mugak aldatu (zabaldu).

2.- Ondoren ikus daiteke ingurunea babesteko, hobetzeko edota leheneratzeko kategorien zerrenda:

2.1. Babestu beharreko eremuak.

Azpiegitura hauek definitu dira:

2.1.1. Natura-intereseko eremuak.

Kategoria honetan sartzen dira EAeko Naturgune Babestuak (Parke Naturalak, Biotopo Babestuak eta Zuhaitz bereziak), Natura 2000 Sarea, Interes Naturaleko Espazioak eta eremu funtzionaleko intereseko beste eremu batzuk.

Honako hau da eremu funtzionalari dagokionez azpikategoria bakoitzean barne hartutako eremuen zerrenda:

- a) Naturgune babestuak: Aralarko Parke Naturala. Leitzarango biotopoa. Zuhaitz apartekoak: AS13, Albizturko Douglas izeia eta AS23, Altzoko pagoa.
- b) Natura 2000 Sarea: ES2120011 Aralarreko BIL, ES 2120013 Leitzarango ibai BIL, ES 2120008 Hernio-Gazumeko BIL, ES 2120005 Oria ibai BIL, ES 2120012 Araxes ibai BIL.
- c) Interes naturalistikoko eremuak eta beste barrendegi interesgarri batzuk: Jazkugañe eta Basabe eremua, Murumendi, Atxulondo-Abalotz, Oregaxan erreka.

2.1.2. Interes zientifiko-kulturalako eremuak eta guneak.

Kategoria honen barruan daude interes geologikoko eremuak eta guneak, interes arkeologikoko guneak eta interes paleontologikoa edota arkeologikoa duten kobazuloak.

- a) Interes geologikoko eremuak: Aralar, Ernio-Gatzume.
- b) Interes geologikoko lekuak eta guneak: «Gipuzkoako interes geologikoko guneak» (GFA) bilduman eta «EAeko Geodibertsitatearen Estrategia 2020»an jasota daudenak.
- c) Monumentu megalitikoak eta haitzuloak: Gipuzkoako Karta Arkeologikoan eta Ondare Kulturalaren Zentroaren ondare-katalogoetan jasotakoak.

2.1.3. Nekazaritza edota ingurumen intereseko eremuak.

Kategoria honetan sartu dira 1.1 planoan nekazaritza-babeseko eremutzat sailkatu diren eremuak. Hain zuzen ere, lehen sektoreko produktibitateko potentzialtasun handiko edota ingurumen balio handiko eremuak dira.

- a) Zizurkil eta Elizmendiko guneen artean dagoen esparrua, Berastegiko, Aintzergako eta Bidania-Goiatzeko haran garaia, Altzoko sakonunea, Bedaioko ibarra. Orendain eta Abaltzisketa arteko muinoak eta mazelak.

2.1.4. Interes hidrologikoko eremuak.

Kategoria honetan sailkatu dira, lur gaineko urei dagokienez, urtegiak, ibai ibilguak eta babes lerroak, EAEko Ibaiertzak eta Errekaertzak Antolatzekeo Lurraldearen Arloko Planean ezarritako adarkatzearen arabera; lur azpiko urei dagokienez, akuiferoen urrakortasunaren inguruan arrisku handia edo oso handia duten eremuak.

2.2. Hobetu edota leheneratu beharreko eremuak.

Hiru azpikategoria hauek bereizi dira:

2.2.1. Ekosistemak hobetzeko eremuak.

Interes naturaleko eremuen kategorian sartu ez diren baso naturalak eta horietan sortzen diren zuhaixka formazioak barne hartzen dira kategoria honetan. Baso naturalek eta zuhaixka-formazioek duten kokapen topografikoa eta potentzialtasuna kontuan hartuta, aurreko kategorian sailkatzen dira batzuetan.

2.2.2. Baso kontserbazioko eremuak.

Kategoria honetan sartu dira 01.1 planoan, Ingurune Fisikoaren antolamendua izenekoan, adierazitako eremuak, gaur egun malda handiko, sakonera gutxiko edota higadura jasateko arriskua duten lurzoruetan baso masa handiak dauzkatenak.

2.2.3. Erabiltzen ez diren meatze, harrobi eta zaborteziak.

Halabeharrezkoa da eremu hauen ingurumen baldintzak leheneratzea.

Eredua etorkizunera egindako proiektio bat dela kontuan hartuta, gaur egun oraindik erabiltzen diren ustiapenak kategoria honetan sailkatzen dira, izan ere, ustiapen lanak behin amaitu eta gero, eremu horiek leheneratu egin behar dira.

3.- Horrelako espazioen antolamendua plan berezien eta eremu bakoitzari dagokion kategoriaren arabera berariazko planen bitartez egingo da.

4.- Natura-intereseko eremuetan, baldin eta haien antolamendua EAEko Natura Kontserbatzeko Legean aurreikusitako tresnak erabiliz egiten bada -adibidez, natura-baliabideak antolatzekeo planen bidez-, araudi honetan zehaztutako erabilera eta jarduera erregimena behin-behinekoa izango da, kasuan kasuko NBAPak onartu bitartean. Plan berezien kasuan, ordea, araudi honetan xedatutakoari jarraituko zaio.

5.- Interes hidrologikoko eremuak antolatzekeo EAEko Ibaiertzak eta Errekaertzak Antolatzekeo LAPean edo, hala badagokio, Inguru Hezeak Babesteko eta Antolatzekeo LAPean ezarritako zehaztapenei jarraituko zaie.

16. artikulua. **INGURUNE FISIKOAREN KATEGORIZAZIO OROKORRA.**

1.- Kategorizazioaren helburu nagusiak dira, hirigintza-plangintzan landa lurzoruaren kalifikazioa egiteko erabili diren izenak eta definizioak homogeneizatzea alde batetik, eta, bestetik, berau antolatzekeo irizpide orokorrak zehaztea eta bertako erabilerak eta jarduerak arautzea.

2.- Antolamendu kategoria orokor hauek definitu dira:

- a) Babes berezia.
- b) Ingurumen hobekuntza.
- c) Basoa.
- d) Nekazaritza eta abeltzaintzako eremua eta landazabala.
- e) Mendiko larreak.
- f) Lur gaineko uren babesa.

3.- Aipatutako kategorietara gainjarrita hainbat baldintzatzaile zehaztu dira. Jarduera jakin batzuk garatzeko moduak mugatzen dituzte, arriskuaren edo kasu bakoitzaren egoera bereziaren arabera, eta ondoren adierazitako hauek dira:

- a) Akuiferoen urrakortasuna.
- b) Higa daitezkeen eremuak.
- c) Urpean gera daitezkeen eremuak.
- d) Espazio natural babestuak eta Natura 2000 sarea.
- e) Korridore ekologikoen sarea.

4.- Lurralde eta hirigintzako plangintzetan landa lurzorua kategorizatzeke zehaztapenetan aintzat hartu beharko dituzte aurreko puntuan adierazitako kategoriak eta, beharrezkoa denean eta justifikatzen bada, egokitzat jotzen dituen azpikategoriak barnean hartu ahal izango dira.

17. artikulua. INGURUNE FISIKOKO ERABILERA ETA JARDUERAK ARAUTZEA.

1.- LZPak ingurune fisikoko elementuei eta prozesuei buruzko artezpide orokorrak eta LAAen arabera jarduera-kontrolari dagozkionak onartzen eta jasotzen ditu.

2.- 15. eta 16. artikuluetan barne hartutako kategorien eta hirigintza- eta lurralde plangintzak ezartzen dituen azpikategoriaren arabera arauketa egiteko, Ingurune fisikoa antolatzeke matrizea, 24. artikuluan adierazitakoa, erabiliko da.

18. artikulua. APLIKAZIO ERREGIMENA NATURA-INTERESEKO EREMUETAN.

Erabilera erregimena.

1.- Erabilera sustatuak.

Ekosistema kontserbatzea eta ingurumen hobekuntza lortzea, herri erakundearen kontrolpean.

2.- Erabilera onargarriak.

Onargarriak izango dira, garapen plangintzaren edo berariazko araudiaren bitartez arautu ondoren.

a) Jolas estentsiboa eta ehiza eta arrain-hazkuntzako jarduerak.

b) Abeltzaintza eta baso erabilera, betiere kontserbatzeke eta hobetzeko helburuarekin bateragarria bada.

c) Airetiko linea elektrikoak, lurpekoak eta B motako instalazio tekniko ez-linealak, ingurunean nahitaez ezarri behar direnean.

d) Gizarte intereseko eta onura publikoko eraikinak.

Eskuarki, gaur egungo eraikuntzen erreforma eta zabaltzea baimenduko da, antolamendutik at daudenak izan ezik, betiere dagokien ustiapenaren produkzio ahalmenarekin erlazionatuta badago.

3.- Erabilera galaraziak.

Aipatutako modalitateetan barne hartuta ez daudenei dagokienez, gaur egungo nekazaritza eremu txikiak, kontserbazioaren eta hobekuntzaren helburuarekin bateragarriak direnak izan ezik, behin betiko mugatzea ezartzen ez den bitartean eta dagokion NBAP (edo antzeko figura) landu bitartean.

19. artikulua. APLIKAZIO ERREGIMENA ZIENTZIA ETA KULTURAKO INTERESEKO EREMUETAN.

7/1990 Legeak, uztailaren 3koa, Euskal Kultur Ondareari Buruzkoak, zehazten dituen arauak eta erregimenak ezarriko dira, bai eta LAAen 17. kapituluaren xedatutakoak eta kasuan kasuko sektoreko plangintza ere.

Erabilera erregimena.

1.- Erabilera sustatuak.

Ekosistema kontserbatzea eta ingurumen hobekuntza lortzea, herri erakundearen kontrolpean.

2.- Erabilera onargarriak.

Jolas estentsiboa.

Oro har, gaur egungo eraikuntzak udal plangintzan edo dagokion sektoreko plangintzan adierazitako baldintzen arabera erreformatzeko eta zabaltzeko baimena ematen da, bai eta kasuan kasuko balio arkeologikoa ematearekin erlazionatutako onura publikoko eta gizarte intereseko zerbitzu azpiegiturak eta eraikuntzak erreformatzeko eta zabaltzeko ere.

3.- Erabilera galaraziak.

Aurreikusitako babes irizpideari jarraituz, kontuan hartu eta onartu ez diren eta bateragarriak ez diren jarduerak.

20. artikulua. APLIKAZIO ERREGIMENA NEKAZARITZA EDOTA INGURUMEN INTERESEKO EREMUETAN.Erabilera erregimena.

- 1.- Erabilera sustatuak.
Nekazaritzako ustiapenak.
- 2.- Erabilera onargarriak.
 - a) Kontserbazio, ingurumen hobekuntza eta aisialdi estentsiboko jarduerak onartzen dira, mugarik gabe.
 - b) Honako hauek onartzen dira: ehiza eta arrain-hazkuntzako jarduerak, berotegiak, landa-bideak eta pistak, airetiko linea elektrikoak eta lurpekoak, bai eta garapen plangintzaren arabera nekazaritzako jarduerarekin lotutako bizitegitarako erabilera ere. Hala eta guztiz ere, nekazaritza jarduerari dagokionez sortutako eragina aztertu beharko da, hala nola doazkien zuzentzeko neurriak.
- 3.- Erabilera galaraziak.
Aipatutako modalitateetan sartu ez direnak.

21. artikulua. APLIKAZIO ERREGIMENA INTERES HIDROLOGIKOKO EREMUETAN.

Agiri honetan adierazitako zehaztapenei eta araei kalterik egin gabe, interes hidrologikoko eremuak antolatzeko EAEko Ibaiertzak eta Errekaertzak Antolatzen Lapean edo, hala badagokio, Inguru Hezeak Babesteko eta Antolatzen LAPan ezarritakoari jarraituko zaio.

Erabilera erregimena.

- 1.- Erabilera sustatuak.
Azpiegitura hidraulikoak kontserbatzeko eta hobetzeko jarduerak.
- 2.- Erabilera onargarriak.
 - a) Jolas estentsiboa.
 - b) Berriaz debekatu ez diren eta proposatutako babes helburuarekin bateragarriak diren gainerako jarduerak EAEko Ibaiertzak eta Errekaertzak Antolatzen Lapean eta, hala badagokio, garapen plangintzan adierazitakoaren arabera arautuko dira.
- 3.- Erabilera galaraziak.
Nekazaritza-industria, aterakuntzako jarduerak, obra hondakindegia eta zabortegiak eta, eskuarki, eraikuntzako erabilerak.

22. artikulua. APLIKAZIO ERREGIMENA INGURUMENARI GAINJARRITAKO BALDINTZATZAILEEN EREMUETAN: LUR AZPIKO AKUIFEROAK, URPEAN GERA DAITEZKEEN EREMUAK.1.- Lur azpiko akuiferoak.

Baldintzatzaille honen mendean daude 01 planoan, Ingurumen fisikoaren antolamendua izenekoan, adierazitako eremuak.

Akuiferoak urratzeko arrisku altua edo oso altua duten eremuetan mugatu egingo dira erabilerak eta jarduerak. Debekatu egingo dira hondakindegia eta hondakinen isurketa, baita lurzoruari poluitzaileak helaraz diezazkioketen erabilera eta ekintzak ere. Azken kasu horretan, garapen plangintzak irizpideak eta baldintzak ezarriko ditu, garatzen den jarduerak babestu nahi den baliabidearen kalitatea babesteko eragin negatiborik izango ez duela ziurtatzeko.

2.- Urpean gera daitezkeen eremuak.

Urpean gera daitezkeen eremuak dira EAEko Ibaiertzak eta Errekaertzak Antolatzen Lapean eta/edo Uholde Arriskuen Mapa eguneratuetan. EAEko Ibaien eta Erreken Plan Sektorialean eta urtarrilaren 8ko 1/2016 Errege Dekretuaren bidez onartutako Kantauri Ekialdeko Ur-Mugapenaren Plan Hidrologikoaren Berriskupean, edo bere garaian indarrean dagoen arautegian, ezarritako mugapenek eremu hauetan egingo diren jarduerak baldintzatuko dituzte; garatuko diren erabilpen eta jardueren mugei dagokienez.

23. artikulua. APLIKAZIO ERREGIMENA HOBETU EDOTA LEHENERATU BEHARREKO EREMUETAN.

Hiru azpikategoria hauek bereizi dira:

1.- Ekosistemak hobetzeko eremuak (kokapen topografiko bereziko baso naturalak).**1.1. Erabilera sustatuak.**

Kontserbazio eta ingurumen hobekuntzakoak.

1.2. Erabilera onargarriak.

Jolas estentsiboa onartu da, mugarik gabe.

Garapen plangintzako zehaztapenen arabera:

- a) Jolas intentsiboa eta ehizaren eta arrain-hazkuntzaren inguruko jarduerak.
- b) Abeltzaintza eta proposatutako helburuarekin bateragarria den baso erabilera.
- c) Legea betetzen duten egungo aterakuntzako jarduerak, betiere aldeko inpaktu deklarazioa badute.
- d) Airetiko linea elektrikoak, lurpekoak eta B motako instalazio tekniko ez-linealak.
- e) Gizarte intereseko eta erabilera publikoko eraikinak.

1.3. Erabilera galaraziak.

- a) Nekazaritza, berotegiak, nekazaritza-industriak eta aterakuntzako jarduerak.
- b) Garraiorako errepideak, A motako zerbitzu instalazio ez-linealak, obra hondakindegia eta zabortegeak.
- c) Eraikuntzako erabilerak, aurretik badauden herriguneak oinarrian dituzten hiri hazkondeak eta onura publikoko eta gizarte erabilerako eraikinak izan ezik.

LZP hau garatzeko plangintzak, 25. artikuluan aipatuak, aztertuko du ekosistemak hobetzeko eremuen mugak aldatzea komeni ote den, hain zuzen eremu horien barnean aterakuntzako jarduerak daudenean, azken hauek eremuetatik kanpo uztearren.

2.- Kontserbaziorako basoa.**2.1. Erabilera onargarriak.**

Jolas estentsiboa onartu da, mugarik gabe.

Garapen plangintzako zehaztapenen arabera:

- a) Jolas intentsiboa eta ehizaren eta arrain-hazkuntzaren inguruko jarduerak.
- b) Abeltzaintza eta proposatutako helburuarekin bateragarria den baso erabilera.
- c) Garraiobideak, airetiko linea elektrikoak, lurpekoak eta A eta B motako zerbitzu instalazio tekniko ez-linealak.
- d) Onura publikoko eta gizarte intereseko eraikinak eta nekazaritzako ustiapenari lotutako bizitegi isolatua.

2.2. Erabilera galaraziak.

- a) Nekazaritza, berotegiak, nekazaritza-industriak eta aterakuntzako jarduerak.
- b) Obra hondakindegia eta zabortegeak.
- c) Eraikuntzako erabilerak, aurretik badauden herriguneak oinarrian dituzten hiri hazkondeak eta onura publikoko eta gizarte onurako eraikinak eta ustiapenari lotutako bizitegi isolatua izan ezik.

3.- Erabiltzen ez diren meatze, harrobi eta zabortegeak.

Halabeharrezkoa da eremu hauen ingurumen baldintzak leheneratzea.

24. artikulua. ERABILERAK ETA JARDUERAK ARAUTZEKO MATRIZEA, INGURUNE FISIKOAREN KATEGORIZAZIOAREN ARABERA.

Ingurune fisikoari dagokion lurzoruaren kategorien arabera erabilera eta jardueren erregulazioa ondorengo orrialdeko matrizean laburbildu dugu.

2020ko ekainaren 12a, ostirala

D dok.- ANTOLAMENDU ARAUAK

TOLOSALDEKO EREMU FUNTZIONALEKO LURRALDE-PLAN PARTZIALA

ERABILERA ARAUZKEO MATRIZEA		ERABILERAK																								
		Ingurumen babesa		Aisia eta atsedena				Lehen mailako baliabideak ustiatzea				Azpiegiturak				Eraikuntzako erabilerak										
1. Sustatua 2. Onargarria 3. Debekatua Garapen-plangintza edo berriazko araudia	Kontserbazioa	Ingurumen hobekuntza	Jolas estentsiboa	Kampo aisialdia.	Zingelkaren eta arrain-hazkuntzaren	Nekazaritza	Berotegiak	Abeltzaintza-industriak	Basoa	Nekazaritza-industriak	Aterakuntzako jarduerak	Garriobideak	Aireko linea elektrikoak	Lurpeko lineak	Zerbitzu ez-linealen instalazio teknikoak	A mota	B mota	Badaden obra hondakindegia eta zaborregiak	Badaden herriguneetan oinarritutako hiri hazkundea	Badaden herriguneetan ez oinarritutako hiri hazkundea	Gizarte intereseko eta erabilera publikoko eraikinak	Bizitegiarako isolatua, nekazaritza ustiapenera lotuta	Bizitegiarako isolatua	Instalazio arriskutsuak		
	Babes berezia	1	2*	3	2*	3	3	2*	2*	3	3	3	2*	2*	3	3	3	3	3	3	2*	3	3	3	3	
	Ingurumen hobekuntza	1	2	2*	3	2*	3	2*	2*	3	3	3	2*	2*	3	3	3	3	2*	2*	2*	2*	2*	3	3	
	Basoa	1	2	2*	3	2*	3	2*	2*	3	3	2*	2*	2*	2*	2*	2*	3	2*	2*	2*	2*	2*	3	3	
	Koniserbaziorako basoa	1	2	2*	3	2*	3	2*	2*	3	3	2*	2*	2*	2*	2*	2*	3	2*	2*	2*	2*	2*	3	3	
	Produktorako basoa	2	2	2*	2*	2*	2*	2	2	1	2*	2*	2*	2*	2*	2*	2*	2*	2*	2*	2*	2*	2*	2*	3	3
	Neka. eta landazabala	2	2	2*	2*	2*	1	2	1	2*	2*	2*	2*	2*	2*	2*	2*	2*	2*	2*	2*	2*	2*	2*	3	2*
	Nekazaritza edota ingurumen interesekoa	2	2	2	3	2*	1	2*	2	3	3	3	3	2*	2*	3	3	3	3	3	3	3	2*	3	3	
	Mendiko larreak	1	1	2	2*	2*	3	1	2*	2*	3	3	2*	2*	2*	3	3	3	3	3	2*	3	3	3	3	
	Uren babesa	1	1	2	2*	2*	2*	2*	2*	2*	3	3	2*	2*	2*	2*	2*	2*	3	3	3	2*	3	3	3	
Akuiferoen urrakotasuna				2*	2*	2*	2*	2*	2*	2*	2*	2*	2*	2*	2*	2*	3	2*	2*	2*	2*	2*	3	2*		
Higa daitezkeen eremuak				2*	2*	2*	2*	2*	2*	2*	2*	2*	2*	2*	2*	2*	2*	2*	2*	2*	2*	3	3	2*		
Urpean gera daitezkeen				2*	2*	2*	2*	2*	2*	2*	3	2*	2*	2*	2*	2*	2*	3	2*	2*	2*	3	3	2*		
Naturgune babestuak eta Natura 2000 Sarea				2*	2*	2*	2*	2*	2*	2*	2*	2*	2*	2*	2*	2*	2*	2*	2*	2*	2*	2*	3	2*		

* Garapen plangintza edo berriazko araudia, kasuan-kasuan dagokion kategoriaren arabera.

25. artikulua. EKINTZA POSITIBOKO NEURRIAK: JARDUERA-PROPOSAMENAK.

Ondoren jardun proposamen batzuk izango ditugu mintzagai eta zenbait iradokizun egingo ditugu gai honen inguruko eskumena duten sailek ingurune fisikoa behar bezala antolatzeke egoki irizten dieten programa, plan, proiektu eta jardunak gara eta gauza ditzaten. Lortzen diren emaitzak agiri honen plangintzan eta araudian sartuko dira, hala badagokie. Besteak beste, honako hauek kontuan hartuko diren alderdiak:

1. **ONDAREA KONTSERBATZEKO ETA INTEGRATZEKO PLANA.** Plan honek barne hartzen ditu EAeko ekosistema bereziak, basoko bizitza eta dibertsitate ekologikoa babesteko, berreskuratzeko eta leheneratzeko jarduera guztiak, funtsezko ziklo ekologikoak eta kultur ondarearenak.
Besteak beste, plan hauek garatu dira banaka zein integratuta:
 - a) Baso naturalak kontserbatzeko eta berreskuratzeko plana.
 - b) Basoko espezie mehatxatuen plana.
 - c) Ondare zientifiko-kulturalaren plana eta Naturako elementu bereziak babesteko plana.
 - d) Korridore ekologikoen plana.
 - e) Leku paisajistiko baliotsuak babesteko plana.
 - f) Habitatak berreskuratzeko plana.
 - g) Hobetu edo berreskuratu beharreko eremuak eta hainbat ingurune degradatu zaharberritzeko plana.
 - h) Leheneratze paisajistikoko plana.
 - i) Lur gaineko sare hidrologikoa berreskuratzeko plana.
2. **NATURA-BALIABIDEAK ERABILTZEKO PLANA.** Natura-baliabideen (baliabide hidrikoak, nekazaritzako eta arrantzako jarduerak, basokoak eta bestelakoak) antolamenduarekin eta ustiapenarekin erlazioatutako jarduera guztiak barne hartu dira bertan, bai eta horiek ingurumenean eragiten dituzten inpaktuekin eta arriskuekin erlazioatutakoak ere (lurzoruen higadura eta babesa, uholdeen prebentzioa, eta abar).
3. **ASKOTARIKO JARDUERAK SUSTATZEKO PLANA.** Bertan barne hartu dira eremu funtzionalaren lurralderako landutako hainbat programa osatzeko jarduera guztiak.
4. **INTERPRETAZIO, IKERKETA ETA ADMINISTRAZIO PLANA,** lurraldearen gaineko ingurumen hezkuntzarekin eta ikerketa zientifikoarekin erlazioatutako jarduerak, eta horiek aditzera emateko jarduerak barne hartzen ditu plan honek.

IV. KAPITULUA

ANTOLAMENDUAREN FUNTSEZKO OINARRI ETA EDUKIAK

EREDUAREN OINARRIZKO AZPIEGITURAK

ERLAZIO ETA ZERBITZU SISTEMAK

26. artikulua. GARRAIO ETA KOMUNIKAZIOEN SISTEMA ANTOLATZEKO IRIZPIDEAK ETA HELBURUAK.

1.- Tolosaldeko Eremu Funtzionalaren LZPak helburu orokor hauek finkatu ditu bide komunikazio eta garraiorako sistemari dagokionez:

- 1.1. Eremu funtzionala kanpoko ardatzetan integratzea, hiriburuen euskal sistemarekin, inguruko eremu funtzionaletako burutzekin eta indartzen ari diren produkzio espazioekin dituen loturak indartuz.
- 1.2. Burutzen, hiri eta landa inguruen eta, oro har, sistemako elementu guztien arteko egituratze eta harremana sustatzea.
- 1.3. Gaur egungo garraio eta komunikazio sistema hobetzea, irizpide hauek kontuan hartuta:
 - a) Administrazioek, garraio politika komun bati jarraituz, modu koordinatuan egitea plangintza eta antolamendua.
 - b) Intermodalitatea oinarrian duen garraio politika bat garatzea.
 - c) Garraio publikoari lehentasuna ematea:
 - Garraio publikoaren instalazioak eta ekipamenduak hobetzea.
 - Trenbidearen erabilera sustatzea salgaiak garraiatzeko.
 - d) Garraiobide ez-motordunak edota ingurumenari gutxiago eragiten dioten garraiobideak sustatzea.
 - e) Automobil pribatuaren erabilera mugatzea.

2.- 1. puntuan adierazitako helburu orokorren baitan, ondoren adierazitakoak izango dira esku hartzeko irizpideak:

- 2.1. Artikulazio handiagoa lortzea errepide sistemako elementuen artean, iragaite eta agitazio trafikoak pixkanaka bereiziz, eta Kanpoko Sarbide Sare Orokorraren, hiri sarearen eta Tokiko Sarbide Sare Nagusiaren mailako sarearen arteko harremana hobetuz.
- 2.2. Errepide sareen funtzio aniztasuna sustatzea, batez ere Tokiko Sarbide Sare Nagusian. Horrela, hiri sistemak erlazionatzeko eta egituratzeko dagokion funtzioa indartuko da, hiri garapenak eragiteko espazio ahalmenarekin batera, eta dagokion sektorean trafiko bide hutsaren kontzepzioa gainditu, batez ere hiri zeharbideetan.
- 2.3. Oinezko eta txirrindularientzako hiriarteko irisgarritasun sare bat itxuratzen eta garatzen laguntzea, ahalmen handiko garraio publikorako sistemekiko konexio eraginkorrak ahalbidetuz, esate baterako Adif/Renferen trenbide linearekin, hiriarteko autobus lineekin eta abarrekin.
- 2.4. Sarearen funtzionaltasun integrala osatzea, sistemarako halabeharrezkoak diren zerbitzuen bitartez, hala nola autobus geltokiak, truke zentroak, garraiorako ekipamenduak edota sistemako beste hainbat elementu ezarriz.
- 2.5. Kasuan kasuko azterketak egin eta, horiek kontuan hartuta, azpiegitura-ezarpenak zentzuz kokatzeko, lurraldeko zerbitzuak integratzeko eta optimizatzeko estrategiak jarraituko dira, ubideak, sareak eta trazadurak metatuko dira, afekzioen ekonomia jarraituko da eta diseinu kualifikatuak eta ingurunera egokituak egingo dira.

3.- Aurreko puntuetan barne hartutako helburuak antolatu, garatu eta esku hartzeko ezinbesteko erreferentzia izango dira, baita proposatutako azpiegitura berriak eraikitzeko, egiteke daudenak gauzatzeko eta daudenak hobetzeko behar den lurzoru erreserbarako eskakizunen oinarri ere.

27. artikulua. BIDE GARRAIO ETA KOMUNIKAZIOEN SISTEMAREN EREDU INTEGRALA.

Garraio eta komunikazioen sistemaren lurralde-eredua osatzeko, kapitulu honetan eta 02.1 eta 04 planoetan adierazitako zehaztapenak jarraituko dira. Aipatutako planoetan ikus daitezke, halaber, errepide sarea eta trenbide sarea, bai eta horiek indartzeko proposatu diren jarduera estrategikoak ere.

1.- Errepide sarea.

Errepide egitura funtsezkoa da ereduaren komunikazio eta garraioen sistema definitzeko orduan. Horrela, errepide egitura zehazteko, sarea osatzen duten elementuen definizioa eta hierarkizazioa egin behar da, eta ondoren adierazitako kategorien artean bereizketa egin:

1.1. Kanpoko Sarbide Sare Orokorra.

Eremu funtzionala EAeko hiriburuen sistemarekin, hurbileko erkidegoekin eta hurbileko eremu funtzionaletako burutza-hiriekin lotzen duten korridoreek osatzen dute sare hau.

Sare honetako osagaiak N-1 autobia (Irun - Altsasu) eta A-15 autobia (Andoain - Irurtzun) dira.

1.2. Tokiko Sarbide Sare Nagusia.

Ibilbide luze eta edukiera handiko bideen eta tokiko bideen arteko mailako ardatzak dira, eta eskualdearen egiturarako giltzarri.

Sare nagusiko zati diren baina trazadura eta diseinu berriekin ordezkatu dituzten elementu eta bide-zatiek osatzen dute. Eskualdea egituratzeko funtzio nagusia dute. Sare honetan badira, ordea, beste zenbat zati ere:

- a) N-1 errepide zaharraren hainbat zatik osatzen duten bidea, hiri zeharbideak eta GI-3610 errepidea (Villabona - Aduna) barne, honek luzetara igarotzen baitu Oria ibaiaren ardatza, Adunatik Ikaztegiatara.
- b) GI-2130 errepidea (Berrobi - Tolosa), Ibarako saihezbidea, N-130 errepidea (N-130 Tolosa - Lizartza zaharra), GI-2631 errepidea (Villabona - Asteasu).

1.3. Lurraldeko Sarbide Sare Osagarria.

Hurbileko eremu funtzionalekiko erlazioa osatzen du. Kasu askotan eskualdeko paisaia-errepide bihurtu dira.

Honako errepide-tarte hauek osatzen dute sare hau: GI-2130 (Berrobi - Urto - Leitza), GI-2135 (N-130 zaharra, Lizartzatik Nafarroara), GI-2133 (Alegia - Amezketa - Ordizia), GI-2634 (Tolosa - Albiztur eta Errezilerako eta Urola ibaiaren haranerako adarrak), GI-2631 (Asteasu - Aia).

1.4. Tokiko Bigarren Mailako Sarbide Sarea.

Burutzetatik urrutien dauden guneak eta ingurune hurbileko hiriguneak konektatzen dituzten bide-tarteei dagokie.

Honako errepide-tarte hauek osatzen dute sare hau: GI-3282 (Villabonatik Zizurkilerako sarbidea), GI-3630, (Asteasu - Alkiza - Anoeta), GI-3072 (Alegia - Altzo - Txarama), GI-3670 (Alegia - Orendain - Abaltzisketa).

1.5. Landaguneetarako Tokiko Sarbide Sarea.

Bideen hierarkiaren azkeneko maila da, horien funtzioa, trazadura eta mota direla eta. Hiriguneak landaguneekin eta landaguneak beren artean lotzen dituzten (gehienetan ez kate gisa) bideek osatzen dute.

Besteak beste honako bide-tarte hauek dira sare honen osagarri: Asteasutik Larraulerako sarbidea, Anoetatik Hernialderako sarbidea, Tolosatik edo Ibaratik Urkizu, Leaburu, Gaztelu, Belauntza eta Izaskunerako sarbideak, Albizturtik Santa Marinarako sarbidea, Alegiatik Aldaba eta Altxorako sarbideak, Ikaztegietatik Baliarrainerako sarbidea, Ugarte – Bedaio tarteak, Lizartzatik Orexarako sarbidea, Villabonatik Amasarako sarbidea.

2.- Oinezko eta txirrindularientzako hiriarteko sarea.

Oinezko eta txirrindularientzako ibilbideen hiriarteko oinarritzako sarea, Tokiko Sarbide Sare Nagusian eta Bigarren Mailakoan oinarritua batez ere. Bizikleta trafikoarekiko edota trafiko motordunarekin baterako kasuetarako oinezkoei lehentasuna ematen dien sare honek ahalmen handiko garraio publikoen sistemetik lotura eraginkorrak ahalbidetuko ditu.

3.- Ingurumen ibilbideen sarea.

Ingurumen ibilbideen sarea, kasuan-kasuan dagokion zuzkidura-funtzioari kalterik egin gabe, lurralde-ereduaren errepide egitura integralaren barruan dago eta, funtsean, sarbide sare osagarrian eta bigarren mailakoan eta landagunetako sarbide sarean, oinezkoen eta txirrindularien zerrendak barne, oinarritzen da.

Komunikazio alternatiboen sare hori ingurune fisikora sartzeko oinezkoen ibilbide sare baten diseinuarekin osatzen da.

4.- Trenbide sarea.

Ereduko komunikazio eta garraio sarearen bigarren funtsezko elementua da trenbide sarea.

Gaur egungo aldiriko trenbide sareak (Renfe) eta Trenbide Azpiegituren LAPean barne hartutako sare berriak osatzen dute.

5.- Sistemako beste hainbat elementu.

Garraioen eta komunikazioen sistemako beste hainbat ardatz elementu dira: autobus geltokiak, trukatzeko zentroak eta garraiorako ekipamenduak; eta sistema modu orokorrean ulertzeko funtsezkoak dira.

28. artikulua. GARRAIO ETA KOMUNIKAZIORAKO SISTEMARAKO PROPOSAMENAK.**1.- Bide sarerako proposamenak.**

Esku-hartzeak indarrean dagoen arloko plangintzan eta aurreko artikuluan zehaztutako eredu integralean ezarritakoetara egokituko dira:

1.1. Kanpoko Sarbide Sare Orokorra.

Loturak eta bidegurutzeak berrantolatzea eta N-1 errepiderako sarbide kontrolatu gabeak kentzea Villabona eta Irura artean.

1.2. Tokiko Sarbide Sare Nagusia.

Hiri egitura orokorra indartzea eta ibilbide ez-motordunen sare bat sortzea/indartzea, barruko loturak artikulatzeko eta hurbileko herriguneeen arteko artikulazioak egiteko lehentasunezko elementu gisa. Edozein modutan, kasuan kasu esku-hartze hauek egingo dira:

- a) Andoain - Villabona lotura hobetzea eta egungo GI-3610 Andoain - Aduna - Villabona errepidea egitura ezaugarri eta ezaugarri funtzional berrietara egokitzea.
- b) Egungo N-1 errepidetik Oria ibaiaren ezkerraldera sartzeko aukerak sortzea Villabona parean.
- c) Villabona - Anoeta arteko ibaiaren ezkerraldeetik zeharreko bide lotura garatzea eta integratzea, eta lotura hau tokiko sarbide sare nagusian txertatzea, hiriko bide ardatz honen egitura eta funtzio ezaugarrietara egokituz.
- d) Villabona eta Irura artean eskuineko ertzetik zeharreko oinezkoentzako loturarako aukerak aztertzea.
- e) Oria ibaiaren ertz bien arteko konexioak hobetzea, LZPan adierazitako hainbat zubi eta zaldain eraikiz horretarako.
- f) Gaur egun hautsita dagoen Tolosa eta Alegia arteko hiri jarraitutasuna berreskuratzea. Horretarako esku-hartze egokiak gauzatuko dira autobien goiko bidea handiagotzeko eta beheko bidea tokiko sarbide sare nagusian integratzeko, oinezkoen eta txirrindularien trafiko funtzionala eta ingurumenaren aldetik duina garatzeko aukera emanaz.
- g) Ibarako saihezbidea osatzea, Tolosa - Ibarra hegoaldeko esparru estrategikoaren antolamenduan eta Tolosaren eta A-15 errepidearen arteko loturan –Berastegitik zeharrekoan– integratuz.
- h) Elbarrenako saihezbidea egitea.
- i) Barneko kanalak eta herrigune jarraituen edo jarraitutasuna izateko moduan direnen arteko loturak indartzea, bide berriak sortzearen edota lehendik dauden trafiko bideak hiribide,

zumardi edo pasealeku gisa sortutako ardatz bihurtzearen bidez. Ardatz horiei «hiri zentraltasuneko ardatz» deritze.

- j) Burutza-hirien eta herrigunerik hurbilekoenen arteko loturak indartzea, bide berriak sortzearen edota lehendik dauden trafiko bideak hiri jarraitasuneko ardatz bihurtzearen bidez. Ardatz horiek zumardi edo arbolez beteriko pasealekuen gisakoak izango dira eta horietan elkarrekin ibiliko dira oinezkoak eta txirrindulariak. Horrelakoetan espaloiak, bizikletetarako errodadura-bandak eta lorategi zerrenden gaineko zuhaitz lerroak izaten dira eta «hiriarteko artikulazioko ardatz» deritze.

Proposamenak gauzatuko dira Hiri zentraltasunerako ardatzetan (Benta Haundi, Tolosa, Anoeta, Irura, Villabona eta Aduna, Villabona - Tolosa tarte Oriaren ardatza antolatzen txertatuta, Villabona - Asteasu, Tolosa - Txarama eta Alegia, Ikaztegieta, Lizartza eta Berrobiko zeharbideak) eta Hiriarteko artikulaziorako ardatzetan (Ibarra - Berrobi, Lizartza - Txarama, Benta Haundi - Alegia, Alegia - Ikaztegieta eta Ikaztegieta - Legorreta).

1.3. Gainerako sareetan.

Berastegi - Tolosa - Azpeitia - Elgoibar zeharkako ardatz historikoaren ezaugarri tekniko-funtzionalak hobetzea, batez ere Tolosaren eta Nafarroako autobiarren arteko Berastegitik zeharreko loturarenak, eta arazo lokalak konpontzea, oinezko eta txirrindularientzako hiriarteko ibilbide sare bat sortzeko helburuarekin bat; sare hau ereduaren egitura integralaren parte da, motorrik gabeko garraio moduetarako egokitze progresiborako bidean.

2.- **Ingurumen ibilbideen sarerako proposamenak.**

Sistemako elementuak gaur egungo sarea egokitzen edota osatzen saiatuko dira, bide sistema honetako elementuak oinezkoentzako eta txirrindularientzako nahiz bietarako banda aproposak diseinatuz eta eraikiz eta, hala badagokio, zati berriak gauzatuz.

3.- **Trenbide sarerako proposamenak.**

3.1. Trenbide sare berria.

Lurzoru erreserba, sarerako aurreikusten den trazaduraren arabera.

3.2. Aldiriko tren sarea (Adif/Renfe)

- a) Zerbitzuak eta maiztasunak zabaltzea Irun - Legazpi linean.
- b) Trazadura aldatzea Villabona - Zizurkilgo eta Anoetako egungo geltokien artean.
- c) Eremu funtzionaleko bidaiari-garraioa antolatzen edo trukatzeko zentro bat jartzea Tolosako geltokian bertan edota beronen inguruan. Bertan izango dira autobus zerbitzuak, bai eskualdekoak bai eskualde mailaz gaindikoak.

4.- **Beste jarduketa batzuk.**

4.1. Errepideko garraio publikoa eta autobus geltokia.

Errepideko garraio publikoko egungo lineak indartzea eta trenbide zerbitzuekin lotzea, gutxienez autobus geltoki bat eginez Tolosan.

29. artikulua. **ZERBITZU AZPIEGITUREN EREDUA.**

1.- Tolosaldeko Eremu Funtzionalako LZP honek bere egin ditu eta lurralde-ereduan bertan txertatu ditu administrazioaren sailek hornidura, saneamendu, hondakin solidoen tratamendu, uholdeen prebentzio eta energia eta telekomunikazioen azpiegituren inguruan egindako plan eta proiektuak.

2.- Oinarrizko azpiegituren sistemako ekintza eta elementu garrantzitsuenak edo lurraldean gehien eragiten dutenak, hauek dira:

- a) Saneamendua:
 - Araztegia (HUA) Adunatik behera, egite fasean.
 - Hondakin uren araztegia (HUA), Lizartatik ibaian behera.

b) Ur hornidura:

- Ibiurko urtegia (Orendain-Baliarrain)
- Hainbat konexio Oriaren ibilguetan.

c) Arriskuen prebentzioa:

- Amezketak (Amezketak) eta Araxes (Lizartza) erreketako ibilguetan eta Asteasu, Zelai eta Amezketak errekek Oriarekin bat egiten duten lekuetan zenbait jarduketak.

d) Hondakin solidoak:

- Gipuzkoako Foru Aldundiak Hiri Hondakin Solidoen Plan Integrala 2002-2016 erredaktatu zuen, eta Gipuzkoako Hiri Hondakinarentako Azpiegituren LAPa onartu zuen (24/2009 Foru Dekretua, uztailaren 21ekoa). Horrek hondakin solidoentarako errausketa-instalazio bat aurreikusten zuen, Tolosaldeko esparrutik kanpo.

e) Azpiegitura elektrikoak:

- LZPak azpimarratzen du komenigarria litzatekeela bideragarritasun azterketak egitea hiri lurrian kokatutako estazio eta azpi-estazio horiek eta transformazio dorreak hiri eragin txikiagoko beste eremu batzuetara lekualdatzeko helburuarekin.

Parke eolikoa: Energia Eolikoaren LAPak Mandoegiko hegiak jotzen ditu, Leitzaran haranaren ekialdeko ertzean, parke eoliko posible bat instalatzeko lehentasunezko kokapentzat.

f) Gas azpiegiturak:

- Bergara-Irun gasbidea eta horietatik abiatzen diren banaketa-sareak.

g) Telekomunikazio azpiegiturak:

Honako hauetara bil ditzakegu proposatutako jardunak:

- Hiriarteko zentral automatiko bat jartzea burutza-hirian. Bideratze sare nagusia: Ikaztegieta, Alegia, Tolosa, Anoeta, Irura, Villabona, Aduna.
- Aireko linea elektriko guztiak lur azpian sartzea, batez ere herrigune historikoetan.

3.- Aurreko puntuan adierazitako zerrenda irekia da, hau da, LZP honetan proposatutako lurralde-ereduarekin bat datozen interes orokorreko elementu eta esku-hartze berriak sar daitezke.

4.- Eremu funtzionalean zerbitzu azpiegituren ezarpena kasuan kasuko plan berezien edota proiektuen bidez gauzatuko da, irizpide hauei jarraikiz nolana ere:

- a) koordinazioa, dagozkien lurraldearen arloko planen bidez.
- b) integrazioa, arloko proposamenen artean.
- c) Lurralde Plan Partzial honetako oinarrizko zehaztapenak eta garapen berriak antolatzeko eta diseinatzeko bertan adierazitako berariazko orientazioak errespetatzea.

V. KAPITULUA

ANTOLAMENDUAREN FUNTSEZKO OINARRI ETA EDUKIAK

ASENTAMENDU SISTEMA

LEHENENGO SEKZIOA ASENTAMENDU SISTEMA ORO HAR

30. artikulua. ASENTAMENDU SISTEMA ANTOLATZEKO IRIZPIDEAK ETA HELBURUAK.

Eremu funtzionala antolatzeko helburu orokorre, 7. artikuluan barne hartutakoei, jarraikiz, asentamenduen antolamenduak helburu eta irizpide hauek lortzea du xede:

1.- Lehendik zeuden bi hiri sistemen eredu integrala indartzea. Bi sistema horiek, batetik, Tolosa-Ibarra multzoan eta, bestetik, Villabona-Elbarrena multzoan oinarrituta antolatzen dira eta maila txikieneko herriguneez eta landaguneez osatzen dituzte.

2.- Aipatutako herriguneez integrazio funtzionala, elkarren arteko osagarritasunak eta erlazioak bultzatuz.

3.- Burutza-hiriak indartzea eta dagokien maila areagotzea, herriguneez ondo integratuz eta lortu nahi den hiri kategoriaren arabera elementuen eta funtzioen zuzkidura eginez.

4.- Hiri kalitatea hobetzea, beharrezkotzat jotzen diren jarduketaz bidez, hala nola degradatuta edo zaharkituta dauden esparruak aldatzeko edo leheneratzeko jarduketak, hiri multzoak eta herrigune historikoak babesteko eta birgaitzeko jarduketak eta berrekipamendu jarduketak; era berean, eremu funtzionaleko biztanleriaren beharrak eta produkzio sistema kontuan hartu eta etxebizitzaren eta jarduera ekonomikoetarako lurzoruen eskaintza egokia egin behar da.

5.- Lurralde desorekak zuzentzea.

- a) Bizitegitarako eta izaera estrategikoko ekonomia-jardueretarako garapen berrien ekintza selektiboak, harrera-ahalmen handieneko udalerrietan, eremu asean birkalifikazio, berrekipamendu eta hobekuntzarako jarduerekin, bertako tentsioak arintzeko eta herriguneez arteko integrazioa eta osagarritasuna lortzeko.
- b) Landa garapenerako politika, ekonomia-oinarria dibertsifikatua duena eta lehen sektorearen alternatibak, bizitegitarako eskaintza alternatiboa, kultur eta ingurumen zerbitzuen berrekipamendua eta integrazioa, telekomunikazioen garapena eta garraio publikoaren hobekuntza ahalbidetuko dituen.

31. artikulua. ASENTAMENDU SISTEMAREN EREDU INTEGRALA.

1.- Asentamendu eredu antolatzeko, udalerrien kategorizazioa hartzen da oinarrian eta esku hartzeko estrategiak finkatzen dira, lurralde-egituraz dituzten ezaugarrien eta potentzialtasunen arabera eta betetzen duten funtzioaren arabera. Oro har, horrela osatzen dira:

1.1. Udalerrien kategorizazioa:

Lurralde-ereduak bereizketa hierarkikoa egiten du asentamendu sistemari dagokionez, eta, lehenik eta behin, LAAetan zehaztutako hirien sistemaren barruan, herriguneez bereizten ditu, biztanleria-tamainaren arabera, zerbitzuen eskaintzaren arabera eta eskualdeko garrantziaren arabera, eta maila hauek bereizten dira:

- a) Burutza-hirien sistemako hiriguneez.
Tolosa, Ibarra, Villabona, Zizurkil (Elbarrena).
- b) Tamaina ertaineko hiriguneez.
Asteasu, Anoeta, Irura, Alegi, Ikaztegieta, Amezketa, Berrobi, Lizartza.

c) Landa esparruetako guneak.

Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alkiza, Altzo, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Bidania-Goiatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Larraul, Leaburu, Orendain eta Orexa guneak eta udalerrri horietako edo beste handiago batzuetako beste landa auzo batzuk.

1.2. Betetzearen ezaugarri orokorrak –hiri eremuak, landaguneetako herriguneak eta hiri garapenik gabeko guneak bereizi dira-, **0.3 planoan** islatu direnak, eta etorkizuneko garapenak antolatzekeo lurralde irizpideak, ondoren adierazitako prozedurak betez erabakiko dira:

a) Eraldaketaren, birsortzearen, babesaren edo birgaitzearen gai izan beharreko tokien zehaztapena. Horien andeapena eragozteko edo erabat edo bere baten bestelakoak izanezko erabileretarako berreskuratu ahal izateko.

b) Garapen berrietarako izango diren eremu nagusien kokapena.

c) *Hiri garapenik gabeko korridoreen edo hiri-etenen eta Erreserba Espazialen* definizioa.

2.- Bizitegitarako eta zuzkidurako lurzoru politikari dagokionez, LZPak kategoria hauek bereizi ditu:

2.1. Hazkunde selektiboko udalerrriak.

Tamaina ertaineko herriguneak dituzten udalerrriak dira eta bizitegitarako eskaintza bilakaera demografiko zorrotzaren ondoriozkoaren gainetik egotea komeni da.

2.2. Lurraldeko sarreraguneak.

Eremu hauen kokapena eta ingurune fisikoko espazioekin duten erlazioa direla eta, aisialdiko eta atsedenerako eremu gisa erabil daitezke, betiere LZP honetan egindako aurreikuspenen arabera; horrela, zuzkidura-eskaintza areagotzea komeni da, dagokien berariazko funtzioaren arabera.

2.3. Ordezko habitatak.

Landaguneetako herriguneetan intentsitate baxuko eremuak dira eta legeak ezarritako gutxieneko estandarrekin bat datozen bizitegi motak, hiri ingurunean eta natura-ingurunean integratuta daudenak, bereiz daitezke.

2.4. Etxebizitza babestuen garapen publikorako lehentasunezko interesa duen udalerrria.

LZPtik eremu funtzionalerako aurreikusitako etxebizitza babestu publikorako arloko politikaren ezarpena lehenesten da.

2.5. Jarduera publikoak garatzeko lehentasunezko interesa duen udalerrria.

Etxebizitzaren esparruko esku-hartze publikorako lehentasunezko bigarren maila da.

3.- Ekonomia-jardueretarako lurzoru politikari dagokionez, LZPak kategoria hauek bereizi ditu:

3.1. Lehentasunezko intereseko udalerrriak.

Egungo ekonomia-jardueretarako asentamenduak eta, hala badagokio, aurreikusitakoak, lurralde-ereduaren egitura funtzionalerako esanguratsuak direla erabakitzen bada LZPan.

3.2. Hazkunde moteleko udalerrriak.

Mota honetako udalerriei dagokienez, euren ezaugarriak eta eremu funtzionalean betetzen duten funtzioa kontuan hartuta, LZPak ekonomia-jardueretarako lurzoruen garapen kuantitatibo motela aurreikusi du, behar endogenoak edo bestelakoak oinarrian hartuta; edozein kasutan, ez da inoiz aldatuko lurralde-ereduaren hierarkia.

3.3. Garapen txikiko udalerrriak.

Ekonomia-jardueretarako asentamendu intentsiborik ez duten edo lurralde-ereduaren ikuspegitik oso asentamendu intentsibo gutxi dituztenak dira.

3.4. Sustapen publikoko eskualde poligonoa.

Eskualde mailako neurri aipagarri samarreko erreferentziako industria-asentamendua (15/25 ha.), kudeaketa urbanistiko eta ekonomiko publikokoa.

32. artikulua. ESKU HARTZEKO MODU NAGUSIAK.

Esku hartzeko eremuen helburu orokorren eta ezaugarrien arabera, eta indarrean dagoen araudian lurraldeko zein hirigintzako ekintza arautu motei buruz xedatutakoari kalterik egin gabe, LZP honen ondorioetarako honako esku hartzeko modu nagusi hauek bereizi dira:

1.- Babes eta birgaitze jarduketak.

Hiri lurzoruen gaineko esku-hartzeak, eraikuntza, urbanizazio, bizigarritasun eta, oro har, hiri ingurumenaren kalitateari eusteko edo hobetzeko.

Eskuarki herrigune garatuenak, alde zaharrak, bizitegi zona degradatuak eta landaguneetako herriguneak ukitzen dira.

2.- Hiri aldaketa eta berrikuntzako jarduketak.

Hiri transformazioa esparru osoen eta tamaina jakin batekoen -urbanizatuak zein urbanizatu gabeak- gaineko esku-hartzeei dagokie. Beren azaleragatik, eredura egokitzen ez direlako eta izaera nabarmen hiritarreko inguruneetan edo barrendegietan daudelako, edo horietatik hurbil daudelako, erabilera-ahalmen handiko eta hiri konfigurazio eta egituraketako lurzoruak izaten dira.

Hiri eremuak biziberritzeak tamaina txikiagoko esparruak edo esparru puntualak hartzen ditu eraginpean, gehienetan beteak izaten dira, eredurako nabarmenki desegokiak eta biziberritzeko ahalmena nabarmentzen dutenak.

3.- Garapen berriak egiteko jarduketak.

Hiri hazkunderako esku-hartzeak, harrera-ahalmena eta lurralde-ereduko kokapena dela eta, lurraldeko desorekak zuzentzeko, lurzoru ondare publikoaren osaera ziurtatzeko eta antolamenduko hainbat helburu lortzeko bereziki egokitzat jotzen diren eremuetan.

4.- Zentraltasunak indartzeko jarduketak.

Jarduera selektiboak lurralde ezaugarri bereziko eremuetan (zentraltasun estrategikoko eremuak), inguruneak birkualifikatzeko, goragoko mailako funtzio berriak bere gain hartzeko eta eskualde osoan eta eremu funtzionaleko hirien eremuan eragina izango duten garapen dinamika berriak sustatzeko ahalmena dutenetan.

Zentraltasunak sustatzeko jarduketan barruan sailkatu dira eraldaketako edota ezarpen berriko esku-hartzeak, eta aurreikusitako asentamenduen eta bere errepide sarearen antolamendu integratua eskatzen dute.

BIGARREN SEKZIOA**BIZITEGI-ASENTAMENDUAK****33. artikulua. BIZITEGIRAKO LURZORUA ANTOLATZEKO IRIZPIDEAK.**

- 1.- Tolosa, Ibarra, Villabona eta Zizurkilek (Elbarrena) osatutako burutza-hirien sistemako herriguneetan dentsitate handiko eta narriatutako eremuetako ehunak arintzeko eta leheneratzeko jardunak lehenetsi behar dira garapen eta okupazio berrien gainetik. Horretarako bide izango dira birkualifikatzea, berrerabilitzea, hiri egitura hobetzea eta zaharkitutako espazio horien integrazio morfologiko eta funtzionala.
- 2.- Villabona eta Elbarrenako (Zizurkil) hiriguneetan, hiri ehunak birsortzeko jarduketa hauek osatu ahal izango dira, eta koordinatu, garapen berriko jarduketekin, batez ere Villabona-Anoetako ibarrean eta Elbarrena-mendebaldean, hirigunearekiko eta saihezbide berriko lotunearekiko tartean hurrenez hurren, beste hazkunde sakabanatuago batzuetara, lehen kasuan Otxabi eta Amasara eta bigarreanean Ohartza, San Millan eta Iturraltera, jo beharrean.
- 3.- Tolosa, Ibarra, Villabona, Zizurkil eta Anoetako udallerriak, burutzak sendotzeko eta burutzen arteko egituratzea hobetzeko lurralde estrategietan oinarriturik, hazkunde selektibokotzat hartzen dira; beraz, bilakaera demografikoari zorrotz erreparatuz gero legozkiekeenak baino hazkunde handiagoak bultzatzen dira horietan.

- 4.- Asteasu, Anoeta, Irura, Alegia, Ikaztegieta, Amezketeta, Berrobi eta Lizartzako neurri ertaineko udalerrietako herriguneetan bertako hazkunde endogenoari aurre egitera bideratuko da lurzoru politika. Horretarako, herriguneak formalizatu, egituratu eta egonkortuko dira eta horietan erdi-mailako dentsitateko garapen osagarri txikiak integratuko dira.
- 5.- Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alkiza, Altzo, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Bidania-Goiatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Larraul, Leaburu, Orendain eta Oresako landa eremuetako guneeetan eta udalerrri horietako edo beste batzuetako landa auzo garrantzitsuetan, eremu hiritartuenetakoarekiko bizitegi eskaintza alternatibo bat bultzatu ahal izango da, hazkunde motelez, intentsitate txikiz eta kasuan kasuko egungo azpiegiturari edo hiri lerrunari egokitutako azpiegitura mailaz.
- Horien hiri egitura eta morfologiari eutsiko zaie, bertako hirigintzaren, tipologiaren, arkitekturaren, ingurumenaren eta paisaiaren inguruko balioak zainduko dituzten soluzioen bidez.
- 6.- Dentsitate txikiko bizitegitarako eskaintza, oro har, aurreko atalean aipatutako herriguneetara mugatuko da. Hori dela eta, asentamendu mota horien eskaintza saihestuko da burutza-hirietako herriguneetan. Horiek noiz edo noiz eta salbuespen gisa bakarrik baimenduko dira, egoerak hala justifikatzen duenean.
- 7.- Dentsitate baxua aipatzean, 2/2006 Legeak, lurzoruari eta hirigintzari buruzkoak, ezarritako kopuruak eta estandarrak hartuko dira kontuan.
- Era berean, kontuan hartuko dira aipatutako legeak herriguneak antolatzeke ezartzen dituen xedapenak, aplikatu daitezkeen kasuetan.

34. artikulua. **BABES- ETA BIRGAITZE-JARDUKETAK.**

- 1.- Lurralde-ereduak oro har hirigune garatuenetako erdiguneei eta landa eremuetako herriguneei dagozkien babesteko eta birgaitzeko jarduketak hartzen ditu bere baitan. Jarduketa horiek udalen ekimen, plangintza eta programen arabera egingo dira, LZParen helburu eta irizpideei jarraituz.
- 2.- Aurreko pasartean adierazitakoari eta arloko plan eta programei kalterik eragin gabe, lurralde-ereduak beharrezkotzat jotzen ditu Tolosa eta Alegiako herrigune historikoak babesteko eta birgaitzeko jarduketak, eremu funtzionaleko udalerrietako landa eremuetako guneeetakoak bezalaxe.
- 3.- Landa Eremuetako Guneak Babesteko Planek -izan ere, gune hauetako askoren balio paisajistikoa, lurraldearen ezaugarriek eta topografiaren aldetik sarritan leku nagusi batean kokatuta egoteak berak emana, dela-eta garatu behar dira horrelakoak-, 32.1 artikuluan adierazitako helburu orokorrez gain, helburutzat dute bere ikusizko kalitateagatik, bolumetriagatik, antolamendu orokoragatik eta abarregatik multzo bereizgarriak diren guneak identifikatzea, mugatzea eta babestea, eta baita horietarako dimentsionamendu egoki bat zehaztea ere, dituzten balioak mantentzea eta behar duten garapen sozioekonomikoa bateragarri izan daitezen.
- a) Babesteko planak diren neurrian, gune horien izaera mantentzeaz arduratuko dira, egungo egitura eta morfologiaren oinarriak eta inguratzen dituzten espazio erdi-naturalak mantenduz; eraikin berrien garapena eta hauen egokitzapen tipologikoa mugatu eta arautuko dute, horien balio urbanistikoak, arkitektonikoak, kultura, paisaia eta ingurumen aldetikoak bermatzeko beharrezko baldintza guztiekin batera.
- b) Horretarako, hiri multzoaren ezaugarriak zehaztuko dira, eta tipifikatu egingo da, oinarrizko alderdiak eta egungo garapen sozioekonomikoaren aurrean sentikorrenak diren eboluzio alderdi dinamikoak identifikatuz, babes beharrean diren bestelako alderdi edota elementuekin batera. Horretarako, araudi bat proposatuko da.
- c) Perimetroaren mugatze zehatza kasuan kasuko udalak, landa eremukoko guneak babesteko plan berezien figuraren bidez, LZP hau garatzean egingo da, eta mugatze hori udalerrietako hirigintzako plangintza orokorraren dokumentuaren parte izango da.

35. artikulua. HIRI-EREMUAK ERALDATZEKO ETA BIZIBERRITZEKO JARDUKETAK.

Lurralde-ereduak ondoren adierazitako hiri aldaketa eta leheneratzeko jarduketak barne hartzen ditu:

1.- Villabona-Anoetako ibarra:

Sacem enpresari dagokion eremua eta Villabona-Anoetako ibarreko hutsa, neurriari, kokapenari eta antolamendu eduki potentzialei erreparatuta, esangura funtzional eta espazial handiko inguru bat da.

Eremu honen antolamendua jarduketa estrategikoa da egungo burutza-sistema indartzera eta finkatzera begira batetik, eta burutzen artean harreman eta egituratze funtzional handiagoa lortzera begira bestetik.

Jarduketa edo eragiketa hori hiri garapen potentzialen eremu ikusten da, jarduera bateragarrietara begira (bizitegi jarduera, hirugarren sektorekoa, produktibo garbia, hornidura); horien artean etxebizitza osagai bereziki aintzat hartzekoa da, ez baina bakarra, hiri konfigurazioaren elementu nagusi gisa.

Jarduketa hau proposamen orokor bati jarraikiz egingo da, dagokion bateragarritasun planaren bitartez. Jarduketa horren garapenak birkalifikatzeko aukeren arabera zertuko dira, eta horretan batera jardun beharko dute eragindako udalerriek.

2.- Beste hainbat jarduketa:

Tolosako Laskorain (San Esteban) eremua eraldatzea proposatzen da, eta Elbarrena mendebaldeko eremua halaber saihebidetako lotunearen eta herrigunearen artean, epe ertainera begira azken hau eta, epe luzera begira, berriz, Papelera del Oria bizitegi erabilerara aldatuz birmoldatzea; azken bi jarduketak Zizurkilen dira.

36. artikulua. BIZITEGI-GARAPEN BERRIKO JARDUKETAK.

1.- Jarduera estrategikoetan jasotzen diren lurzoru gaur egun ez sailkatuez gain, LZPak indarrean dagoen edo onartze fase aurreratuan dagoen udal antolamenduak aurreikusten dituen hazkunde proposamenak hartzen ditu bizitegi garapen intentsibo berrietarako oinarri.

Lurzoru horietako garrantzitsuenak (etxebizitza kopuruari dagokionez) 03 Asentamendu sistema eta Okupazio Globalaren Karakterizazioa planoan islatzen dira.

2.- Antolamenduaren helburu estrategikoak -«Tolosa-Ibarra hiri eremua sendotzea eta suspertzea eta Eremu Funtzionalaren berregituraketa bultzatzea, burutzen arteko erlazio handiagoa lortuz»- lortzen zuzenean laguntzen dutela-eta, LZParen ereduak ondoko jarduerak jasotzen ditu elementu garrantzitsu gisa:

a) Tolosa

Laskoraingo esparruaren (San Esteban) eraldaketa integrala. Esparru hau bizitegi eta hornidura hazkundearen bidez orokorrean garatuz gero, aldatu egin beharko da egun industriako eremua den horren erabilera.

b) Ibarra

Hiriguneko lehen erabilerako hiri hutsuneak eraldatzea, ibarraren ertz bietan, hiri garapenei jarraitasuna emanez eta Ibarako herriguneko sakabanatze eta egitura-definizioz ezaren arazoak konpontzen laguntzearen.

Tolosa-Ibarra hegoaldeko esparrua, mistoa; honetan bizitegiak eginkizun apala izan beharko luke, proposamen nagusien mendekoa inolaz ere. Dena den, erabilerak eta ehunak dibertsifikatzen lagundu dezake, beharrezko hiri lotura eta jarraitutasunetan bezalaxe.

c) Villabona

Sacem enpresaren egungo instalazioei dagokien esparrua, Villabona-Anoeta ibarraren eraldaketa orokorraren barnean sartua.

d) Anoeta

Bizitegi gisako hiri garapenak izan daitezke, Villabona-Anoetako ibarraren antolamenduaren ondorioz.

Esparru honen programazioa epe ertainera begira planteatzen da, eta Villabonako egoitza garapenerako prozesuarekin eta lurzoru publikoa erosteko politikarekin koordinaturik.

37. artikulua. ETXEBIZITZAREN ESPARRURAKO ADMINISTRAZIOAREN BERARIAZKO EKINTZAK.

1.- Esku hartzeko irizpideak:

- a) Gaur egungo etxebizitza-parkea optimizatzea, birgaitzeko, etxebizitza hutsak berreskuratzeko eta premiak etxebizitza erabilien bidez asetzeko jardueren bitartez; horretarako saltzeko etxebizitza berrien edo prezio mugatuko alokairuko etxebizitzaren eskaintza sortuko da.
 - b) Lurzoru erreserbak ezartzea, behar adinako malgutasuna izango duten irizpideei jarraikiz dimentsionatuta. Bide horretatik, LZPak edo etxebizitza bideratzeko planek behin betiko ezarritako helburu kuantitatiboei erantzun ahal izango zaie.
 - c) Villabona, Zizurkil, Anoeta, Irura, Tolosa, Ibarra eta Alegia lehentasunezko intereseko udalerritzat sailkatzea, sustapen publikoko etxebizitzetarako lurzoru antolatzeke, sustatzeko eta hirigintza-kudeaketa egiteko. Horrela, aipatutako udalerririk guztietan, biztanleria-pisua edozein dela, EAEko Lurzoruaren eta Hirigintzaren Legeak zehaztutakoa aplikatuko da.
 - d) Asteasu, Berrobi, Amezketa eta Ikaztegiako udalerririk interesekotzat jotzen dira jarduketa publikoak garatzeko, eta horietan etxebizitza babesturako jarduketak aurreikusten dira, aipatu lehenen osagarri gisa.
 - e) Erdi urbanoak eta landatarrak diren beste udalerrietan, hots, Aduna, Larraul, Alkiza, Hernialde, Belauntza, Elduain, Berastegi, Leaburu, Gaztelu, Altzo, Oresa, Albiztur, Bidania-Goiatz, Baliarrain, Orendain eta Abaltzisketan, indarrean dagoen araudiak jasotzen dituen etxebizitza babestuaren motetakoren batera bideratutako lurzoruen garapen txikia aurreikusten da; ez da, baina, egokitasun jarduketarik edo jarduketa asistematikorik garatzeko aukera baztertzeko, betiere eskaera antolatu batean oinarrituta.
- 2.- Oinarrizko irizpide horiek aintzat hartuta, Etxebizitzaren Sustapen Publikorako Lurzoru Antolatzeke LAAk proposatutako etxebizitzaren sustapen publikorako erreserbatutako lurzoruen kokapena, banaketa eta tamaina, bai eta esku hartzeko lerro estrategikoak ere, etxebizitza-politika eta eremu funtzionaleko lurralde antolamendurako eredu bateragarri egiteko.

38. artikulua. BIZITEGITARAKO ESKAINTZAREN AURREIKUSPENEN TAMAINA.

Lurralde Plan Partzial honetan bizitegi edukiera maximoak zehaztu dira, eremu funtzionaleko udalerririk plangintza orokorretako aurreikuspenetan sartu beharko direnak. Horiek jasotzeko, bizitegi-kuantifikazioari buruz LAAen zertutako aldaketak, urtarrilaren 19ko 4/2016 Dekretuak eta aurrekoa indargabetzen duen uztailaren 30eko 128/2019 Dekretuak jasoak, kalkulua egiteko proposatzen dituen oinarrizko irizpideak hartuko dira kontuan, bai eta Lurralde Plan Partzial honetan definitutako lurralde-eredutik eratorritako inplikazioak ere.

Aurreikusitako edukieratik ondorioztatutako etxebizitza berrien kokapena erabakitzeke kontuan hartuko dira Lurralde Plan Partzial honetan barne hartutako zehaztapenak eta Lurralde Antolamendurako Artezpideetan xede horrekin adierazitako irizpideak.

1.- Bizitegitarako edukieraren balio maximoa eta minimoa.

Eremu funtzionala osatzen duten udalerririk plangintza orokorrean aurreikusi beharreke etxebizitza berrien eraikuntzarako bizitegitarako lurzoruen edukiera balio-urkila baten barruan kokatuko da, zortzi urteko indarraldiarekin, eta honako hauek izango dira balio maximoa eta minimoa:

- a) Bizitegitarako edukiera aurreikusieraren balio maximoa: lurzoru gutxi geratzen dela eta beraren garapena optimizatu behar dela kontuan hartuta, lurzoru administratzeko beharra azpimarratu da. Izan ere, bizitegitarako lurzoru gehiegi erreserbatu eta, ondorioz, hirigintza-garapen nahasiak

sortzea ekidin nahi da. Balio hori kalkulatzeko, Lurralde Plan Partzial honen I. eranskina aplikatuko da zuzenean.

- b) Aurreikusitako bizitegitarako edukieraren balio minimoa: Izapidetze-fasean dagoen LAAen berrikuspenean ezarritakoarekin bat etorrituz, eta EAEko Lurralde Antolaketako Batzordearen txostenari jarraikiz, Eremu Funtzionalaren udal planeamenduek ez dute bizitegitarako gutxieneko ahalmen bat aurreikusi beharrik izango.

Bizitegitarako edukiera balio maximoaren eta minimoaren artean egokitzeko, kontuan hartuko dira udalerrri bakoitzari dagokion plangintza orokorraren berrikuspena edo aldaketak idazten diren uneko estatistika-datuak, dagokion lurraldearen egungo edukiera-ahalmenarekin batera.

2.- Bizitegitarako edukiera kalkulatzeko irizpideak.

Udal antolamenduak aurreikusi behar duen etxebizitza berriak eraikitzeke bizitegi lurzoruaren edukiera kalkulatzeko, bizitegi kuantifikazioari buruz LAAen zertutako aldaketak, urtarrilaren 19ko 4/2016 Dekretuak eta aurrekoa indargabetzen duen uztailaren 30eko 128/2019 Dekretuak jasoak, zehazten duen metodologia erabiliko da.

Metodo horren oinarrian, udalerrriak izandako hazkunde demografikoaren, familia-egituraren aldaketen edo etxebizitzaren betetze tasaren aldaketen, bigarren etxebizitzarako eskaeraren eta etxebizitzaren merkatuan desiragarriak ez diren tentsioak saihesteko beharrezko marjinaren eta parke desokupatua berreskuratzearen ondorioz ateratzen diren beharrak kalkulatu behar dira; era berean, aipatutako osagaiak bereizi egingo dira, Lurralde Plan Partzial honen lurralde-ereduan adierazitako irizpideen eta inplikazioen arabera.

Bizitegitarako lurzoruaren eskaintza kalkulatzeko, honako irizpide hauek jarraituko dira:

- a) Biztanleriaren bariazioagatik beharrak: plangintza idazten den unean erabilgarri dauden azken datu estatistiko fidagarriak erabiliko dira.
- b) Batez besteko familia-neurriaren aldaketagatik beharrak: batez besteko famili neurriaren (etxebizitza okupatu bakoitzeko batez besteko biztanle kopuruaren) murrizte tasa adierazle horren zati aldagarriaren, hots, unitatearekiko soberakoaren % 1,30ekoa joko da, plangintzarako aurreikusitako indarraldiaren urte bakoitzerako.
- c) Lehen etxebizitzaren aldaketari lotutako bigarren egoitzarako koefizienteak. Osagai honek proiektatu egiten du bigarren etxebizitzaren inguruko eskaera aurreikusia, erabilera nagusiko parkearen hazkundeari loturik. 2011 eta 2001eko urteetako datuetan oinarritutako «ad hoc» zenbatespen bat aplikatzen da.
- d) Bigarren etxebizitzarako koefizientearen aldaketa aurreikuspena. Ez da koefiziente horretan aldaketarik kontuan hartu; beraz, osagaiaren balioa hutsekoa da Eremu Funtzionaleko udalerrri guztietan.
- e) Parkearen hazkundeari lotutako etxebizitza hutsen gaineko aurreikuspena. Etxebizitza-merkatuaren funtzionamendu eraginkorrek behar duen marjinari dagokio osagai hau; eta urtarrilaren 19ko 4/2016 Dekretuak eta aurrekoa indargabetzen duen uztailaren 30eko 128/2019 Dekretuak proposatzen duten koefizientea aplikatuta ateratzen da. Koefizientearen balioa udalerrriaren neurriaren arabera haztatutako eskaeraren % 4 eta % 8 bitartekoa da.
- f) Parke desokupatua berreskuratzea. Antolamenduaren hasieran desokupatuta zeuden etxebizitzak berreskuratzeko etxebizitza-beharretan gertatzen den murrizpena jasotzen du osagai honek. Parke desokupatu garbiaren % 10 berreskuratzeko helburua aplikatzen da (merkatuak egoki funtzionatzeko beharrezko marjina kenduta); horrek edukieraren gainean duen eragina eskualdean hasieran zen guztirako parkearen % 2,9aren baliokidea da.
- g) Lurralde-ereduaren zuzenketa inplikazioak.

Osagai honek jaso egiten du LZPak udalerrri bakoitzarentzat bultzatzen dituen lurralde zuzenketa eragin haztatua, betiere plangintzaren indarraldiaren barnean (2017-2024 epea oraingo haztapenari dagokionez).

2020ko ekainaren 12a, ostirala

Lurralde Plan Partzialak, bertan ezarritako lurralde-ereduaren ondorioz, ereduaren inplikazioak dituzten honako hazkunde selektibo hauek zehazten ditu:

Villabona	80 behar
Zizurkil	20 behar
Anoeta	40 behar
Tolosa	40 behar
Ibarra	40 behar

Hazkunde horiek konpentsatu egiten dira ereduaren oinarriturik Irura (-200 behar), Aduna (-15 behar) eta Larraulgo (-5 behar) udalerrietarako ezarritako zuzenketekin.

2020ko ekainaren 12a, ostirala

ERANSKINA

EGOITZA-LURZORUKO ESKAINTZAREN KUANTIFIKAZIOA

Kontzeptu eta osagaien deskripzioa	Aplikaturako formula	Sinboloen legenda															
LEZ. Indarrean den lurralde-ereduko zuzenketak																	
LZPak zuzenketa horiek identifikatzen ditu. Plangintzaren epean (gure kasuan 2017-2024) zuzenketen inpaktu agregatua neutroa izatea ziurtatzen da.	LZParen erredakzio taldearen ebaluazioa	t denbora-epearen identifikazio orokorra: P_0 = Erreferentziako epea i = Planaren hasiera urtea t = Planaren amaiera urtea															
A. Bizitegi nagusirako beharrak																	
A1. Biztanleria egoiliarra aldatzeagatik Udal biztanleriaren proiektzio formula: $P_t = P_0 \times (1 + RP)^t$	$(P_t - P_i) / TMF_t$	P_t = Biztanleria t unean TMF_t = Familiaren neurria t unean RF = Familiaren neurriaren urteko aldaketa tasa															
A2. Familiaren neurria aldatzeagatik Familiaren neurriaren proiektzio formula: $TMF_t = 1 + (TMF_0 - 1) \times (1 + RF)^t$	$P_i \times (1/TMF_t - 1/TMF_0)$	Aldagaia. RP = Udal biztanleriaren urteko aldaketa tasa haztatua (erdira murriztua aldaketa negatiboa bada)															
B. Bigarren etxebizitzaren eskaera																	
B1. Bizitegi nagusiaren aldaketagatik Parke nagusiaren bilakaerari lotutako bigarren etxebizitzaren eskaera	$(A1 + A2) \times (CSR_t - 1)$	CSR_t = Bigarren etxebizitzaren koefizientea t unean. Etxebizitza okupatuak / Etxebizitza nagusiak gisa definitzen da. Informazio espezifikogorik ezean, 2011ko CSRa aplikatzen da (edo 2001eko eta 2011ko batez bestekoa bigarrena handiago bada), gehienez 1,25eko kotaz.															
B2. Bigarren etxebizitzarako koefizientearen aldaketagatik Ez da osagai honen gaineko jarduketa espezifikorik aurreikusi ($CSR_t = CSR_0$).	$(P_t / TMF_t) \times (CSR_t - CSR_0)$	2011ko CSRa aplikatzen da (edo 2001eko eta 2011ko batez bestekoa bigarrena handiago bada), gehienez 1,25eko kotaz.															
C. Bizitegi desokupatuaren aurreikuspena																	
C1. Bizitegi nagusiaren aldaketagatik Etxebizitza-merkatuaren funtzionamendu eraginkorrak behar duen gutxieneko marjina.	$(A1 + A2 + B1 + B2) \times (CVD - 1)$	CVD = Bizitegi desokupatuaren gutxieneko koefizientea. Eskatutako guztirako etxebizitzak / Etxebizitza okupatuak gisa definitzen da.															
C2. Etxebizitza desokupatuaren koefizientearen aldaketagatik Desokupazio tasaren proiektzio esplizitua behar du. LZPak edukiera murrizketa bat aplikatzen du 2017-2024rako, parke desokupatua berreskuratzeagatik; hori Tolosaldeko hasierako parkearen % 2,9koaren balioa da. Udalerri bakoitzean hasierako unean dagoen marjinaren % 10 berreskuratzen da, udal antolamenduko berreskuratze helburua finkatzeko.	$V_t \times (TD_t - TD_0)$	CDV ren balioa udalerriaren neurriaren arabera da, ondoko taulak erakusten duen moduan. V_t = Guztirako parkea t unean TD_t = Desokupazio tasa t unean. Etxebizitza desokupatuak / Guztira dauden etxebizitzak gisa definitzen da.															
BB. Bizitegi beharrak																	
Planaren eperako aurreikusten den bizitegi parkearen gorakadaren zenbatespena. Aurretiko 7 osagaiak gehituz kalkulatu da.	$LEZ + A1 + A2 + B1 + B2 + C1 + C2$																
BE. Bizitegi edukiera																	
Planaren hasieran identifikatutako etxebizitzak eraikitzeko gaitasunaren zenbatespena. Bizitegi-beharrak gehienezko harrotze faktore batez (udalerriko biztanleriaren arabera 2,2 eta 3,0 bitartekoa da) biderkatuz kalkulatu da. Gutxieneko harrotze faktorea gehienezko balioaren % 50ekoa da. Muga osagarriak <ul style="list-style-type: none"> Kuantifikazioaren emaitza dena dela, hasierako parkearen % 10erainoko (edo 20 etxebizitzatarainoko) gehienezko bizitegi edukiera onartzen da. Plan baten bizitegi edukiera hasieran dagoen parkearen % 50era mugatzen da. 800 biztanletik beherako udalerrietan, etxebizitzetatik % 30 baino gehiago lurzoru urbanizaezinean dutenean bizitegi edukiera mugatu egiten da, planaren hasieran hiri lurzoru eta lurzoru urbanizagarrian dagoen parkearen % 70era. 	$CR = NR \times ESP$	ESP = Bizitegi-beharraren harrotze-faktorea, bizitegi-edukiera bihurtzeko. Udalerriaren neurria CVD (min) ES(max) <table border="1"> <tbody> <tr> <td>20.000+ biztanle</td> <td>1,04</td> <td>2,2</td> </tr> <tr> <td>7.000-19.999+ biztanle</td> <td>1,05</td> <td>2,4</td> </tr> <tr> <td>3.000-6.999+ biztanle</td> <td>1,06</td> <td>2,6</td> </tr> <tr> <td>1.000-2.999+ biztanle</td> <td>1,07</td> <td>2,8</td> </tr> <tr> <td>1.000 biztanle baino gutxiago</td> <td>1,08</td> <td>3,0</td> </tr> </tbody> </table>	20.000+ biztanle	1,04	2,2	7.000-19.999+ biztanle	1,05	2,4	3.000-6.999+ biztanle	1,06	2,6	1.000-2.999+ biztanle	1,07	2,8	1.000 biztanle baino gutxiago	1,08	3,0
20.000+ biztanle	1,04	2,2															
7.000-19.999+ biztanle	1,05	2,4															
3.000-6.999+ biztanle	1,06	2,6															
1.000-2.999+ biztanle	1,07	2,8															
1.000 biztanle baino gutxiago	1,08	3,0															

2020ko ekainaren 12a, ostirala

Bizitegi-kuantifikazioaren bigarren pausua, lehen adierazi moduan, kasuan kasuko udalerriri dagokion harrotze faktorea aplikatzea da (koefiziente hori 2,2 eta 3,0 bitartean aldatzen da udalerriko biztanleria murriztu ahala, urtarrilaren 19ko 4/2016 Dekretuak eta aurrekoa indargabetzen duen uztailaren 30eko 128/2019 Dekretuak ezarritako irizpideen arabera), eta aipatu dekretuak eta LZPak zehaztutako metodologiak planteatzen dituen muga osagarriak betetzen direla egiaztatzea.

Villabona	80 behar, guztira 208 etxebizitza
Zizurkil	20 behar, guztira 56 etxebizitza
Anoeta	40 behar, guztira 112 etxebizitza
Tolosa	40 behar, guztira 96 etxebizitza
Ibarra	40 behar, guztira 106 etxebizitza

HIRUGARREN SEKZIOA EKONOMIA JARDUEREN ASENTAMENDUAK

39. artikulua. EKONOMIA-JARDUERETARAKO LURZORUA ANTOLATZEKO IRIZPIDEAK ETA HELBURU OROKORRAK.

- 1.- Ekonomia-jardueretarako lurzoruaren eskaintza egitea, eskaintza zabala, eskuragarria eta eskualdeak gaur egun zein etorkizunean edukiko duen produkzio sistemaren beharretara egokitua, funtsezkoa eta ezinbestekoa da enpresa-ekimen endogenoak mantentzeko eta berriak erakartzeko.
- 2.- Industria-jardueren garapena eta, eskuarki, hirugarren sektorekoena (bereziki, zerbitzuen sektorekoena) bateragarri egitea, azken horien proportzioa areagotuz eta xede horretarako egokiak diren espazioak hautatuz.
- 3.- Orain arte eraiki eta kalifikatutako eremu gehienei eutsiko zaie. Horretan salbuespen izango dira hiri birkualifikaziorako behar direnak, birmoldaketa estrategikoetarako beharrezko direnak eta puntualak eta tamaina txikikoak direnak, nabarmen badira antolamendu osoaren kalterako.
- 4.- Oro har, lurralde-ereduaren ondorio diren asentamenduak bertan bizi den biztanleriaren eta bertako enpleguen arteko oreka erlatibora bideratuko dira, eskualdearen edo azpieskualdearen maila erreferentzia hartuta.
- 5.- Ekonomia-jarduerak ezartzeko eragiketak, gainera, irizpide hauei jarraikiz burutuko dira:
 - a) Asentamenduen garapena lurraldearen egitura fisikoa eta edukiera-ahalmena aintzat hartuta egingo da.
 - b) Eremu berriak aukeratzeko honako hauek hartuko dira kontuan: lurraldearen egitura, komunikazio eta garraiorako oinarritzko sareekiko eta oinarritzko azpiegiturekiko harremanak, esparruaren harrera-ahalmena, gainerako asentamenduekiko erlazioa, espazioaren asetatsun maila eta ingurumenaren gaineko eraginak. Gainera, lehentasun, tolerantzia eta bazterketako espazioak adieraziko dira, aipatutako horien arabera.
 - c) Asentamendu berrietan tamaina handi eta ertaineko jarduketa gutxiago egiteari emango zaio lehentasuna esku-hartze txiki baina ugarien gainetik, batez ere horiek dimentsio txikiagoko alubioizko lurretan eragiten badute.
 - d) Haranen hondoetako zerrenda estu eta lauetako esku-hartzeak deskalifikatu behar dira, batez ere erriberakoak, horietan esku-hartzeak galarazi behar baitira. Gisa horretan hiri garapeneko bazterte zerrenda izango dira.
 - e) Izaera poluitzailea edo narriatzailea duten erabilera bereziak, besteak beste, aire zabaleko txatar biltegiak, automobilen hilerriak, hormigoizko plantak eta antzeko eragineko beste hainbat, ezinbestean arautu beharko dira udal plangintzetan, arloko araudiari jarraikiz eta akuiferoen, ingurune naturalaren eta hiri eta landa paisaiaren babesaren inguruko irizpideak aintzat hartuz.
 - f) Ekonomia-jardueren asentamenduak (horiek industrialak nahiz beste motaren batekoak izan) harremanetarako egituran integratutako proiektuen arabera egingo dira. Gainera, erroadura, aparkaleku, oinezko eta txirrindularientzako ibilbide, espaloi, zuhaitzi eta ibaien ertzetako espazio funtzionalak definituko dira eta zaindu egingo dira diseinuaren eta egindako eraikuntza eta urbanizazioen kalitatea, baita horiek ingurumenarekin duten erlazioa ere.

2020ko ekainaren 12a, ostirala

- g) Ekonomia-jardueretarako plangintza-eremuek eta -unitateek gutxieneko dimentsionatzea izan beharko dute eta, ahal dela, lehendik dauden garapenen jarraian kokatuko dira, gisa horretan hazkunde sakabanatua saihestuko baita.
 - h) Irizpide orokor gisa, garapen iraunkorraren eta lurzoruaren erabilera hobearen printzipioak aintzat hartuta, plangintzak eraikuntza-betetzea aurreikusiko du, betiere LZP hau garatzeko antolamenduen xede zehatzekin bateragarria bada edo produkzio jarduerak edo beste jarduera batzuk beste mota bateko eraikuntzak eskatzen ez badituzte.
- 6.- 3 eta 5 (c, d eta g) puntuak kontuan harturik, planteatzen da Ola (Amezketeta), Telleria (Gaztelu), Telleria (Leaburu) eta Sorozar (Villabona) poligonoetako lurzoru gaur egun kalifikatuak birkontsideratzea aipatu udalek berek.

40. artikulua. EKONOMIA-JARDUERETARAKO LURZORUA KOKATZEKO IRIZPIDEAK.

1.- Jasandako industria-garapenaren intentsitatearen edota aurreikusitako garapen esparruei ereduak egozten dien potentzialtasunaren arabera, LZPak kategoria hauen arabera bereizten ditu eremu funtzionaleko udalerriak:

- a) Lehentasunezko intereseko udalerriak.
- b) Hazkunde moteleko udalerriak.
- c) Garapen txikiko udalerriak.

2.- Lehentasunezko intereseko udalerriak komunikazioko korridore nagusietan kokatutakoak, industria-erparen handienak jasaten dituztenak edota garapenerako potentzialtasun nabarmenak dituztenak dira. Udalerrri multzo honetan sartzen dira honako hauek: Aduna, Zizurkil, Asteasu, Villabona, Irura, Anoeta, Tolosa, Ibarra, Alegia eta Ikaztegieta.

Udalerrrien kategoria honetako esku-hartzeak irizpide hauen arabera izango dira:

- a) N-1 errepidean zehar kokatutako udalerrri gehienek asetze maila altua eta garapen berrietarako aukera urriak kontuan hartuta, aipatutako udalerrrietan garapenak egun esparru horietan kalifikatuta dauden lurzorueta mugatzen dira, planaren indarraldiak irauten duen bitartean. Horrela, beraz, gaur egun beteta dauden ehunak hobetzera eta okupatu gabeko lurak behar bezala garatzera bideratuko dira.
- b) Burutza-udalerrietan esku hartzeko estrategia eraldaketa- eta berrikuntza-jarduketak egitera zuzenduko da (Hiltegi eremua Tolosan, eta udal plangintzak ezarritako maila lokaleko beste txikiago batzuk), eta jarduera ekonomikoetarako eta hirugarren sektoreko jardueretarako eremu berriak garatzera.
- c) Asteasu haranean eremu berriak kalifikatzeko, Elbarrenako saihebidia eraiki egin beharko da.

3.- Neurriko hazkundeko udalerriak, hiriguneetan integratuta egonda garatzeko aukera garbirik ez duten edo korridore nagusien inguruko eremuetan kokatuta dauden tamaina ertaineko udalerriak dira:

Altzo, Amezketeta, Belauntza, Bidania-Goiatz, Leaburu eta Lizartza.

Udalerrri horietan lehendik dauden eremuak egonkortzera eta hobetzera bideratutako politika aplikatzea proposatzen da. Gainera, horien hazkundea gaur egun kalifikatuta daudenetara mugatuko da.

4.- Garapen txikiko udalerriak tamaina eta industria-lurzoruen eta hiri garapeneko bestelako ekonomia-jardueren garapen txikiak dituztenak dira.

Abaltzisketa, Albiztur, Alkiza, Baliarrain, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Larraul, Orendain eta Oresa.

Udalerrri horietan hirigintzako plangintzak hiri garapeneko ekonomia-jardueretarako lurzoruaren kalifikazioa mugatzea proposatzen da.

Udalerrri bakoitzak gehienez 3 ha lurzoru aurreikusi ahal izango ditu, nahikoa harrera-ahalmen dagoenean ingurune naturalean eragin esanguratsurik izan gabe.

41. artikulua. ESPARRU ESTRATEGIKOAK.

1. Lurzoruak hartzeko duten ahalmena, lurralde-egituraren duten inplikazio maila eta LZP honetako garapen estrategia aintzat hartuta, honako eremu estrategiko hauek aurreikusi dira:

a) Apattaerrika 15 ha.

Izen bereko ibarbideari dagokion lurralde eremua, Tolosa eta Ibarra udalerriei dagokiena. Honetarako kalifikazioa Tolosaldeko Lurralde Plan Partzialaren erredakzioaren barnean proposatu zen.

Gutxi gorabehera 15 hektareako azalera du, eta 55 hektarea hartzen dituen eta sustapen publikokoa den Apattaerrekako Eskualde Poligonoaren bigarren fasea eta burutzea da.

b) Adunako ibarra 21 ha.

Industri motako erabileretarako baldintza urbanistiko egokiz kalifikatutako espazio huts handiena da, baina uholde arazo handiak dauzka zati handi batean. Alderdi hori konpontzea ezinbestekoa da, horren garapen osoa zertuko bada.

Aurreikusitako industria- eta azpiegitura-lurzoru guztien integrazioa ez ezik, aldameneko hiri eremuena, ibaietako ertz eta pasealekuena ere aintzat hartu behar du antolamenduak, ikuspegi zabalagotik begiratuta eta espazioaren eta urbanizazioaren kalitate irizpideak aplikatuta.

c) Villabona-Anoetako ibarra 40 ha gutxi gorabehera (20 ha)

Esparru honek -Sacem ingurua eta Villabona-Anoetako ibarreko hutsa barnean hartzen dituen funtsezko eginkizuna du eremu funtzionalaren egituraketan eta, horrenbestez, ezinbestekoa izango da trenbidea mendebalderantz desbideratuz hobeto aprobeztatzeko modua aztertzea eta gaur egun dauzkan uholde arriskuak konpontzea.

Bere helburu funtzionala ez da inolaz ere industriako produkzio aprobeztamenduetara mugatu behar, egitura-integratioko espazio estrategikoa baita. Hori dela-eta, kokatu beharreko erabilerek bizitegia eta zuzkidurak zerbitzu sektoreko jardura ekonomikoetarako eremu bereziekin konbinatu behar dituzte lehentasunez, baina betiere lehen erabilerekin bateragarriak direla.

Funtsezkoa eta lehentasunezkoa izango da administrazio erakunde publikoek ekimenean nahastea, ekimena indartzea eta ekimena antolatzea eta, hala badagokio, kasuan kasuko esku-hartzeak sustatzea.

Esku hartzeko irizpideek esparruaren antolamendu integrala hartu behar dute aintzat, ardatzaren argitasun eta jarraitutasun estrukturala lehenetsiz, N1 autobioiak sortzen duen etena konponduz eta Anoeta hegoaldeko eranskina eta Tolosa iparraldeko ertza bera barne hartuz -benetan garrantzitsua burutza-hiria behar bezala konektatzeko-, hala hiri egitura sendo eta kualifikatua sortuko baita. Halaber, ibai bazterrei tratamendu egokia emango zaie.

d) Tolosa-Ibarra esparrua.

Esparru hau antolatzeko irizpideak era askotakoak dira, zerbitzu sektorearekin zerikusia duten jardura ekonomikoaren egoitza estrategiko gisa ez ezik -eskualdeko industria-parkea, ikerkuntza-zentroak eta horiekin guztiekin erlazionatutako unibertsitate sukurtsalak-, Tolosa eta Ibarra arteko hiri konexioak osorik berrantolatzeko, Apattaerrekako poligonoa hiri egituraren txertatzeko eta, are gehiago, Ibarra hirigunearen beraren sakabanatze eta zehaztugabetasun estrukturalako arazoak konpontzeko aukera gisa ere aintzat hartzen baita.

Hori guztia dela-eta, esku-hartzeak ezin dira inolaz ere bakartuta edo puntualki planteatu. Izan ere, komenigarria izango litzateke Lurralde Plan Partzialaren eremuan aurreikusitako parke eta zuzkiduren perimetro eremuak antolamendu esparruan integratzea, Apattaerrekarekiko lotura-ertzak alde batera utzi gabe.

2.- Aurreko apartatuak aipatzen dituen operazioak esku-hartze estrategikoak dira, eta 8.3 eta 9. artikuluetan definitutako Antolamendu Ereduaren Lurralde-egituraren osagaiak.

3.- Azken proposamenen garapena kasuan kasuko bateragarritasun planetan barne hartutako aurreikuspenen arabera egingo da. LZPan islatu dira grafikoaren kokapena eta muga zehatzak, orientazio moduan.

LAUGARREN SEKZIOA

EKIPAMENDUAK ETA ESPAZIO LIBREAK**42. artikulua. EKIPAMENDUETARA ETA ESPAZIO LIBREETARA BIDERATUTAKO LURZORUA ANTOLATZEKO IRIZPIDEAK ETA HELBURUAK.**

1.- Tolosaldeko Eremu Funtzionalean hiri izaerako udalaz gaindiko ekipamenduetara bideratutako lurzoruaren antolamendua irizpide hauek aintzat hartuta gauzatuko da:

- a) Lurralde-ereduak proposatutako udalaz gaindiko intereseko ekipamenduak aipatutako ereduaren egitura orokorrean txertatzen dira eta ekipamendu horien garapena sistema hierarkizatu bat sortzera bideratuko da, hirien osagarri izango den eta landaguneak aktiboki integratuko dituen bat sortzera alegia.
- b) Berrekipamenduek eremua egituratzeko bete dezaketen funtzio garrantzitsua kontuan hartuta, berrekipamenduekin batera hiri birkalifikazioko, burutza-hirien maila sustatzeko eta hirien sistemako herriguneeen integrazio formal eta funtzionala bideratzeko jarduketak egingo dira.
- c) Landa eremuetako eta ingurune naturaleko ekipamenduak lehen horiek garatzeko estrategia orokorraren baitan txertatuko dira.
- d) Arrazionaltasuna, hierarkizazioa, osagarritasuna eta, kasu jakin batzuetan, zentraltasun eta kualifikazio espaziala bezalako irizpideak izango dira gailen ekipamenduen sistema antolatzeke, hiri ingurunean nahiz natura-ingurunean.
- e) Esku-hartzeek ikuspegi globala izango dute, LZP honetako lurralde-ereduan proposatutako bestelako proposamenekin batera eragin sinergikoak sortzeko helburuarekin.

2.- LZP honetako lurralde-ereduak, oro har, lehendik dauden udalaz gaindiko ekipamenduak finkatzen ditu eta zuzkidurak handitzeko eta berriak ezartzeko beharrezko diren esku-hartzeak proposatzen ditu, lurraldearen inguruko informazio eta azterketatik eratorritako diagnostikoei jarraikiz.

3.- Instalazio berriak hirugarren sektoreko gabeziak konpontzera bideratu behar dute. Bide horretatik, funtsezko izango dira ondoko ekipamenduak: negozio zentroak, enpresetarako zerbitzuak, merkataritzako ekipamenduak, turismo eta aisiako ekipamenduak, gizarte ekipamendua eta ekipamendu balio anitzekoak, kualitatiboki eraiki nahi den hiriaren mailarekin bat datozenak.

4.- Turismoaren sektoreari begira, honako hauek proposatzen ditu LZPak:

- a) Hotelen eskaintza zabaltzea eta espezializatzea.
- b) Eskualdeko oinezkoentzako ibilbide berriak sortzea eta lehendik daudenen egoera hobetzea.
- c) Natura-inguruneke aisialdirako eremuak eta atsedenerako lekuak handitzea.
- d) Natura-ingurunean kokatutako herriguneak eta landaguneak antolatzea eta sustatzea.
- e) EF osoa barnean hartuko duen Turismoaren Garapenerako Plan bat lantzea.

5.- Merkataritzaren sektoreari dagokionez, zentraltasun berriko esparruak garatzeko proposamenez gain, gaur egungo eremu zentralak finkatzea proposatzen da, gune eta herrigune historikoak birgaitzeko estrategiekin koordinatuz, merkataritza indarberritzeko planen bidez.

Ekipamendu handiak arautzeko, aintzat hartuko da Jarduera Ekonomikoetarako Lurzorua Sustatzeko eta Saltoki Handiak Antolatzeke LAPeko edukiekin bateragarri egiteko irizpidea.

43. artikulua. EKIPAMENDUEN ETA ESPAZIO LIBREEN GARAPEN BERRIETARAKO LEHENTASUNEZKO JARDUKETAK.

1.- Oro har ereduak hiri ekipamenduak eta natura-inguruneke ekipamenduak bereizten ditu. Batzuen zein besteen inguruko proposamenak 04 planoan bildu ditugu, Udalaz gaindiko ekipamendu eta espazio libreen sistema izenekoa, hain zuzen ere. Horiek atal hauetan bilduko ditugunak dira.

2.- Hiri-ekipamenduak:

2.1. Hezkuntza-ekipamendua:

- a) Gaur egun ekoizpen ekimen berrietara lotutako prestakuntza-zentroak eta I+G zentroak zabaldu, sustatu eta hobetu nahi dira.

2.2. Kirol-ekipamendua:

- a) Ekipamendu horiek berrantolatzea eta indarberritzea proposatzen da, horien arteko osagarritasun handiagoa lortzeko.
- b) Beharrak eta aukerak aztertzea, eguneroko praktikarako eta entrenamendurako kirol konplexu bat ezartzeko. Horrentzako lehentasunezko kokapentzat Villabona-Anoetako ibarra jotzen da.

2.3. Osasun- eta laguntza-ekipamendua:

- a) Eskualdeko ospitale bat edo, gutxienez, espezialitate zentro bat jartzea.
- b) Hirugarren adinekoentzako zuzkidurak zabaltzea proposatzen da. Horretarako zerbitzuen kokapena arloko edota udaletako plangintzen esku uzten da.

2.4. Kultura eta aisialdiko ekipamendua:

- a) Udalaz gaineko eta eremu funtzionalaren mailari dagokion kultur zentroa jartzea.

2.5. Merkataritzako ekipamendua:

- a) Merkataritza suspertzeko planak prestatzea Tolosa-Ibarrarako.

2.6. Hiri inguruko parkeen zuzkidurak.

- a) Tolosa-Ibarrako eta Villabona-Elbarrenako gune nagusien periferian daudela, bere erabilera eta ezaugarrietara egokitutako ekipamenduak behar dituzte.

2.7. Bestelako zuzkidurak:

- a) Berrekipamenduko jarduketa bereziak proposatzen dira eremu funtzionaleko «lurralderako sarreragune» gisa kategorizatutako udalerrietan, hots, Alkiza, Bidania-Goiatz, Berastegi, Amezketeta eta Abaltzisketan.

3.- LANDA-EREMUETAKO ETA INGURUNE NATURALEKO EKIPAMENDUAK ETA AZPIEGITURAK.

Aisialdiko eremuak eta ingurumen ibilbideen sarea dira landaguneen lurralde berrekipamendurako proposamenaren funtsezko elementuak.

3.1. Aisialdi eta atsedenerako eremuak:

Ezaugarriak kontuan hartuta, oinarritzko tipologia hauek bereizten dira:

- a) Eskualdeko jolas eremuak:

Herrietatik hurbil daudenak eta horietako zuzkiduren osagarri direnak:

Leitzaran harana.

- b) Atsedenerako eremuak:

Erakargarritasun paisajistikoa duten leku berezietan:

Erroizpe-Uli, ekialdean, Berastegi eta Lizartza artean.

Uzturre-Txaragan, Tolosaren ipar-ekialdean.

Urdelar-Ipuliño, Berastegitik iparrera.

Ezkatxu, eremu funtzionalaren iparraldeko muturrean.

Hirumuino-Zarate, Asteasuren ipar-mendebaldean.

Intxur, mendebaldean, Albiztur ondoan.

c) Parke naturalak, Natura 2000 Sarea eta interes naturalistikoko espazioak:

Aralarko parkea.

Ernio-Gazume.

Jazkugañe eta Basabe.

Espazio horietan turismo-jarduera toki horien babesarekin eta kontserbazioarekin bateragarria den mailatan mantendu behar da.

3.2. Ingurumen ibilbideen sarea:

Biztanleriaren gune nagusiak lurralderako sarreraguneekin eta proposatutako atsedeen eremuekin lotzen dituzten ibilbideen sistema integratua da.

- a) Tokiko sarbide sare nagusiko oinezkoentzako pasealekuak eta bidegorriak.
- b) Naturaren, ondarearen eta turismoaren inguruko interesa duten elementuen arteko ibilaldi bigunak.
- c) Oinezkoentzako bestelako ibilbide eta zirkuituak.

3.3. Beste hainbat ekipamendu:

- a) Azpiegitura bigunak (aparkalekuak, mahaiak, eserlekuak, kozinatzeko elementuak, ura, komunak, are kanpatzeko elementuak ere), lehendik daudenez gain; esate baterako Larraitzen, eta lurraldeko beste toki berezi batzuetan, hala nola Andazarrate, Bidania-Errezil, San Martin (Amezketeta), Urto eta abarretan.
- b) Eskualdeaz gaindiko instalazioak, «barrualdeko hondartzen» moduan sortuak, paisaiako lehentasuneko lekuetan kokatuak baina organikoki horri lotuak eta ikusmoldez neurritsuak.
Hainbat kokapen aukera posible planteatzen dira Bidania-Goiatz eta Amezketako inguruetan.

VI. KAPITULUA

ANTOLAMENDUAREN FUNTSEZKO OINARRIAK ETA EDUKIAK

ESKU-HARTZE ESTRATEGIKOAK

LEHENENGO SEKZIOA

ESKU-HARTZE ESTRATEGIKOEN ERREGIMEN OROKORRA

44. artikulua. **ESKU-HARTZE ESTRATEGIKOAK.**

Esku-hartze estrategikoak, 10.2 artikuluan jasotako definizioaren arabera, ondoko antolamendu eta jarduketa proposamenak dira:

1.- Ingurune fisikoa.

- 1.1. Babestu, hobetu edota leheneratzeko eremu berrizat definitutako esparruak mugatzea, gaur egungo Naturgune Babestuak osatzeko, eta bertako jarduerak dagokien kategorizazioaren arabera arautzea.
- 1.2. Prestatzea 25. artikuluan jasotzen diren jarduera-proposamenetan adierazten diren planak, hauek garatzeko beharrezko programa eta ekintzekin batera.

2.- Zentraltasunak indartzea.

Bi ekintza osagarri mota proposatzen dira, eremuaren testuinguruan burutzaren zentraltasuna sendotzeko eta burutzaren beraren lerruna igoarazteko hurrenez hurren.

2.1. Villabona-Anoetako ibarraren antolamendua.

Villabona-Anoeta ibarraren antolaketa, jardun integratu multzo baten bidez. Jardun multzo hori hiri eta ingurune kalitate altuko espazio bat lortzera dago bideratuta, azpiegitura-euskarri berri bategan zehar betiere, burutzen arteko espazio funtzionala egituratu, burutzen arteko harremana bultzatu eta Tolosa-Ibarraren zentraltasuna sendotzearen.

Jarduketa honetarako aldatu egin behar da trenbidearen trazadura, LZP honetan adierazitako baldintzetan, eta dauzkan uholde arazoak konpondu.

2.2. Tolosa-Ibarra gunea integratzea/biziberritzea.

Proposamen honen antolamendu helburua egungo konurbazioko guneen artean egitura eta formazko integrazio egokia lortzea da, horrenbestez lortu egingo baita Gipuzkoako hiri sisteman lerrun altuagoa izatea; eta, bide horretatik, lerrun horri dagozkion hiri eginkizunak bereganatu ahal izango ditu guneak.

Tolosa-Ibarra gunearen biziberritzeari ekintza konbinatuen bidez ekingo zaio; horien bidez eraldatze lanak egingo dira, hiri eremuak birstortu, eta ekipamendu eta zerbitzuak atzera hornituko dira. Ekintza hauen artean, Tolosa-Ibarra hegoaldea esparruaren eraldaketa eta antolamendu integratua nabarmentzen da.

3.- Erlazio-sistema.

- 3.1. Gaur egun N-1 autobioiko igarotze trafikoak eta hiriguneetara eta industria-eremuetara sartzekoak elkarren gainean jartzen dituen bide sistema argitzea, bi sistemak bereiziz, bide sistema orokorra eta hiri arteko konexiokoa alegia.

Bi jardun mota eskatzen ditu horrek:

- a) N-1 errepidearen gaineko esku-hartzeak, gutxienez loturak eta bidegurutzak berrantolatzeke eta N-1erako sarbideak kontrolatzeko Villabona eta Irura artean.
- b) Hiriarteko konexio sistema berri bat proposatzea, egungo hiri jarraitutasunaren hausturak konpontzea jasoz horretan.

2020ko ekainaren 12a, ostirala

Bigarren proposamena garatzeko, LZPak estrategikotzat jotzen du Aduna-Ikaztegieta ardatza berreskuratzea, honek hiri erlaziorako betetako eginkizunekin batera; eta, horretarako, ekintza hauek proposatzen ditu:

- b.1 Egungo N-1 errepidetik Oria ibaiaren ezkeraldera sartzeko aukerak hobetzea.
- b.2 Villabona-Anoeta arteko ibaiaren ezkeraldetik zeharreko bide lotura garatzea eta integratzea, eta lotura hau tokiko sarbide sare nagusian txertatzea.
- b.3 Tolosa-Alegia hiri jarraitasuna berreskuratzea.

- 3.2. Tokiko sarbide sare nagusiko komunikazio bideak pixkanaka eraldatzea eta hiri jarraitutasuneko ardatz bihurtzea, burutzen eta inguruko herriguneeen arteko konexioak indartzeko. Hiri zentraltasuneko ardatz edo hiriarteko artikulazio ardatz bihurtuko dira, bakoitzari dagokion esparruaren arabera.
- 3.3. Txirrindulari eta Oinezkoentzako Ibilbide Sare bat sortzea, hiriarteko bat zehazki, ereduaren bide egitura osoaren parte izan dadin.
- 3.4. Berastegi-Tolosa-Azpeitia-Elgoibar zeharkako ardatz historikoaren baldintza tekniko eta funtzionalak hobetzea, eta bereziki Tolosaren eta A-15 autobaien arteko Berastegin zeharreko konexioa hobetzea eta Ibarra eta Elbarrenako saihezbideak osatzea, Tolosa-Ibarra eta honen hegoaldeko konexioko eta Villabona-Elbarrenako esparru estrategikoen antolaketan txertatuz horiek, hurrenez hurren.
- 3.5. Trenbide sare berria eraikitzea.
- 3.6. Adif-Renferen trazadura hobetzea Villabona-Zizurkil geltokiaren eta Anoetakoaren artean, hiri egitura berrian txertatzearen Villabona-Anoetako ibarreko espazioak.
- 3.7. Tolosan geltoki intermodal bat egitea.

4.- Lurzoru-politika.

- 4.1. Adunako ibarreko espazio hutsak jarduera ekonomikoetara zuzendutako lurzoru gisa garatzea, aurrez konponduta egun dauzkan uholde arazoak, kalitateko, integratze eta hiri jarraitutasuneko irizpideei jarraituz eta urbanizazioaren ingurumen balioak errespetatuz. Irizpide berberak jarraitu beharko dira esparruaren iparreko parteko HUArekin kasuan.
- 4.2. Apataerreka eremuaren sustapen publikoko eskualdeko poligono gisako garapena burutzea.
- 4.3. Villabona-Anoetako ibarrari dagokion esparrua garatzea, bizitegiarekin bateragarriak diren erabilera mistoak sartuz eta zerbitzu sektoreari eta zuzkidura publikoei lehentasuna emanez.
- 4.4. Tolosa-Ibarra hegoaldeko esparrua garatzea, zerbitzu sektoreko erabilerak sartuz, horren baldintzetarako tipologia aproposak erabiliz eta ingurumen kalitateko irizpideak gehituz, bere hiri integrazioa alde batera utzi gabe.

5.- Ekipamenduen eta espazio libreen sistema.

- 5.1. Berrekipamendu jarduketak, eta eskualde mailako eginkizun eta zerbitzu berriak hartzea, burutza-hiria indartzera begira.
- 5.2. Lurraldera sartzeko guneetako berrekipamendu jardunak.
- 5.3. Jolas eta atseden eremuak eta Ingurumen Ibilbideen Sare Nagusia natura, paisaia edo kultura aldetik interesgarriak diren elementuen artean, lurraldearen laketa erabilera modu antolatuta batean indartzeko estrategia garatzeko beharrezko lurralde ekipamendutzat.

6.- Oinarrizko zerbitzu-azpiegituren sistema.

Saneamendu plan eta proiektu sektorialak eta hondakin uren araztegiak gauzatzea, edateko uraren hornidurarako sistemarekin eta telekomunikazio sistemarekin batera; hauez gain, LZPak jasotzen dituen uholdeen prebentziorako jarduketak.

Esku-hartze estrategikoak garatzeko, indarrean dagoen legediak jasotzen dituen beharrezko plangintza eta gauzatze figurak jorratuko dira, bereziki plan orokorrak edota bateragarritasun planak eta plan bereziak; bitartean, LZPak biltzen dituen zehaztapenak orientagarriak izango dira, kokapenari eta grafiatutako muga zehatzei dagokienez.

BIGARREN SEKZIOA

ESKU-HARTZE ESTRATEGIKOEN ERREGIMEN PARTIKULARRA**45. artikulua. VILLABONA-IRURA-ANOETA-TOLOSA ARDATZAREN ANTOLAMENDU INTEGRALA ERREGULATZEKO IRIZPIDEAK.****1.- Antolamenduaren helburuak.**

- 1.1. Eremu funtzionala berregituratzeari bultzada ematea, burutzen arteko erlazio eta integrazio funtzional handiagoa lortuz eta, horren bidez, Tolosa-Ibarraren zentraltasuna sendotuz.
- 1.2. Maila altuagoko hiri continuum bat lortzea, egungo polarizazio behartua saihesteko eta Donostiak zertzen duen erakarpenari darizkion tentsioak murrizteko.
- 1.3. Villabona eta Tolosa arteko hiri ehunak berrantolatzea, Villabona-Anoetako ibarra eta honen Tolosaraino jarraipena burutzei dagozkien asentamenduen arteko konektore funtzionaltzat hartuz, eta esparru estrategikotzat halaber, hiri garapen potentzialetarako. Horretarako, egungo garapenak antolatu beharko dira, eta duten bizitegirako eta jarduera ekonomikoko espazioetarako eskaintza handitu.
- 1.4. Bizitegi izaerako lurzoruak erreserbatzea, lurzoru ondare publikoa sortzeko.
- 1.5. Esparrua antolatzeko, eta aurrez konponduta egun dauzkan uholde arazoak, hiri izaerako espazio egituraketa sendoko irizpideak jarraitzea, ibaiertzak eta ur ibilguak eta ingurumen eta eraikuntza-kalitate maila altua errespetatuz.

Helburu orokor horiek lortzeko, hainbat helburu partikular zehaztu behar dira, honako hauek:

- a) Egungo N-1 errepidetik Oria ibaiaren ezkeraldera sartzeko aukerak sortzea Villabona parean.
- b) Adif-Renferen egungo trazadura liberatzea eta trazadura berri bat proiektatzea.
- c) Lotura berriak egitea Oria ibaiaren alde bien artean, esparruari ahalik eta irisgarritasun handiena ematearren, LZPak adieraziari jarraikiz.
- d) Bide egitura antolatzea, hierarkizatzea eta tratatzea.
- e) Villabona-Anoeta ardatza eta honen Tolosarainoko jarraipena antolatzea, modu integratu batez, hainbat antolamendu esparrutan banatu ahal izango bada ere. Antolamendu honek, era berean, ukitutako udalerrien udal plangintza eta sektore guztietako plangintza partziala koordinatzea eskatzen du, aurreproiektu mailan behintzat.
- f) Esparrua modu koordinatuan programatzea eta garatzea, LZPan oro har jasotako helburu eta beharrei eta administrazioaren lurzoru politikari jarraikiz.
- g) Arloko planak aurreikuspen berrietara egokitzea.
- h) Erakunde publikoak inplikatzea, ekimen publikoa indartuz eta horrek sustapen eta kudeaketan partaidetza izatea bultzatuz.

2.- Asentamenduen erabilerei eta ezaugarriei buruzko orientazioak.

Jarduketa edo eragiketa hau hiri garapen potentzialen eremu ikusten da, egoitzarekin bateragarriak diren jardueretara begira (hirugarren sektorekoa, produktibo garbia, hornidura); horien artean etxebizitza osagaia bereziki aintzat hartzekoa da, ez baina bakarria, hiri konfigurazioaren elementu nagusi gisa.

3.- Definizio espazial, trazadura, urbanizazio eta eraikuntzarako irizpideak.

- 3.1. Villabona-Anoeta bide loturaren garapena ezkeraldetik; honen ezaugarri formalak eta funtzionalak egokitu egingo zaizkio hiri ardatz berriaren egitura-ezaugarriei eta mailari.
- 3.2. Bide trazadurarako proposamenak irakurketa errazeko egitura funtzional antolatua ahalbidetuko du; horretan, Villabona eta Anoeta arteko komunikabide berria bilbea antolatzen duen hiri ardatza izango da.

Horrekin bat, zeharkako sekuentziak etorbide zuhaizdun zabal bat izango du, oinezkoentzako pasealekuz edo espaloiz hornitua alde banatan, bidegorriz eta lorategi zerrendez; etorbide

horretan plazak zabalduko dira, eta horietan kokatuko hiri ekipamenduak eta eraikin garrantzitsuak.

- 3.3. Ibaiaren potentzialtasun handia hiri espazioen elementu itxuratzaile eta kalifikatzailea izango da; beraz, erreferentzia izango da eraikuntzaren antolamenduan eta udalerrien arteko erlazioetan.
- 3.4. Ibaiertzak antolamendu berrian txertatuko dira, eta zuhaitz eta lorategiz hornitutako paseo bihurtuko dira halaber.
- 3.5. Esparruaren antolamenduan arreta berezia jarriko da, Oriaren tarte honetan badira eta ibaiertzeko bi espezie, kaltebera gisa katalogatutako uhalde-enara eta txirritxo txikia alegia, eta zonakatze eta mugatze orokor eta espezifikoak dagokien araudiak ezartzen dituen jarraibideetara egokituko dira, betiere aipatu espezie horiek daudela kontuan hartuta.

46. artikulua. TOLOSA-IBARRAREN HEGOALDEKO INGURUAREN ANTOLAMENDU INTEGRALA ARAUTZEKO IRIZPIDEAK.

1.- Antolamenduaren helburuak.

- a) Tolosa-Ibarra hiri eremua sendotzea eta suspertzea eta horren lerruna igotzea.
- b) Tolosa eta Ibarra arteko hiri konexioak berrantolatzea eta egungo konurbazioko guneen arteko egitura eta formazko integrazioa hobetzea.
- c) Lurzoru berriak lortzea, eraldatzeko, hiri esparruak birsortzeko eta ekipamenduak atzera hornitzeko ekintza konbinatuak ahalbidetzeko.
- d) Tolosaldeko ekonomia garatzen eta dibertsifikatzen laguntzea, hirugarren sektorearekin eta zerbitzuekin lotutako jarduera ekonomikoetarako lurzoru eskaintza sortuz.

2.- Asentamenduen erabilerei eta ezaugarriei buruzko orientazioak.

LZPko proposamenaren arabera, esparrua batez ere hirugarren sektoreko, zerbitzu arloko eta antzeko beste jarduera ekonomiko batzuetarako izango da, baina hiri eremu periferikoak ere hartzen ditu, horien egituratzea eta kalifikazio funtzional eta espaziala ere jasoz; udal mailaz gaindiko espazio libre eta horniduretarako beste eremu batzuk ere baditu.

Aipatutako orientazio eta helburuen barnean, erabilerak esleitzeko unean malgutasunez jokatuko da; lehentasunezkoak, baina, honako hauek izango dira:

- a) Ibarra hirigunearen eta saihebidetaren arteko eremua:
Lurzoru honen erabilera hirugarren sektorekoa eta ekipamendukoa izango da nagusiki, balio erantsi handiko jarduera ekonomikoak eta ikerkuntzari lotuak ere toleratuz (enpresa parkea, ikerkuntza zentroak eta horiei lotutako unibertsitate sukurtsalak, etab.); lurzoru horretan bizitegiak, neurri apal eta besteen mendeko maila batez, lagundu egin dezake erabilerak eta ehunak eta hiri lotura eta jarraitasunak dibertsifikatzen.
- b) Saihebidetik hegoalderako eremua:
Jarduera ekonomikoetarako lurzoruak, produkzioko eta hirugarren sektoreko erabilerak toleratzen dituenak.

3.- Esku-hartze irizpideak, eta definizio espazial, trazadura, urbanizazio eta eraikuntzarako baldintzak.

Antolamenduak helburu asko dituen arren, esku-hartzeak ezin dira modu isolatuan planteatu. Antolamendu esparruan parkeko perimetroko eremuak eta LZPko eremuan aurreikusitako zuzkidurak jasotzea komeni da, Apattaerrekaren integrazioa baztertu gabe.

Hiri elementu berriak eta zaharrak baloratu eta erlazionatuko dira, horien baterako irakurketa bat egin ahal izan dadin.

4.- Erakunde publikoen inplikazioa.

Esparru hau garatzeko, beharrezko eta lehentasunezkoa da esku-hartzeetarako ekimen, bultzada, antolaketa edo, hala badagokio, sustapenean administrazio publikoak partaidetza garrantzitsua izatea.

47. artikulua. ESKU-HARTZE ESTRATEGIKORAKO ESPARRUAK ANTOLATZEKO PROPOSAMENEN IZAERA.

LZPak Villabona-Anoetako ibarreko eta Tolosa-Ibarra hegoaldeko esparruetarako proposatzen dituen mugak orientagarriak dira, harik eta plangintzaren bateragarritasun planak onartzen diren arte. Bitartean saihestu egingo dira hirigintzako antolaketak eta bestelako esku-hartzeak, aipatu esparruen garapena eragozten edo zailtzen badute.

VII. KAPITULUA

LURRALDE-PLAN PARTZIALA APLIKATZEKO ARAUAK **GARAPEN-PLANGINTZAREN HIRIGINTZAKO ERREGIMEN OROKORRA**

48. artikulua. ALORREKO ETA HIRIGINTZAKO EKINTZAK LURRALDE-ANTOLAMENDUARI LOTZEA.

1.- Alorreko eskumenak dituzten autonomia eta foru organoek eta administrazioek LZP honetan aurreikusitakora egokituko dituzte bere plan eta programak.

2.- Udaletako plan orokorrak egokitu egingo zaizkie LZP honetako zehaztapenei, berau indarrean sartzen den unetik aurrera, eta batez ere antolamendu helburu orokorrei eta bestelako helburu eta irizpideei egokituko zaizkie, lurralde-ereduari, lurralde-egiturari buruzko proposamenei eta esku-hartze estrategikoei bezalaxe.

3.- Era berean, udal plangintzak jaso egingo ditu LZP honetan bizitegirako lurzoru eskaintzaren dimentsionamenduari dagokionez ezartzen diren zehaztapenak.

49. artikulua. ARAU-ERAGINKORTASUNAREN IZAERA.

1.- Garapeneko plangintzak bere egin behar ditu LZP honetako helburu orokorrak eta bestelako helburuak, printzipioak, irizpideak, jarraibideak eta antolamendurako bestelako zehaztapenak, lurralde-eredua definitzen dutenak, araudi honetan ezartzen den irismen eta lotespen mailarekin.

2.- Lurralde-ereduko zehaztapenak, 9. eta 10. artikuluetan jasotzen diren lurralde-egituraren osagaiei eta esku-hartze estrategikoei buruzkoak, derrigorrean aplikatzekoak dira garapeneko plangintzarentzat, betiere 50. artikulua ezartzen dituen baldintzekin bat.

LZP honetako dokumentazio idatzi eta grafikoan jasotzen diren bestelako xedapenak antolamenduaren derrigorrezko eta lehentasunezko erreferentziak dira.

3.- LZP honek antolamendu esparruen kokapen, muga eta azalerari buruz jasotzen dituen zehaztapenak orientagarriak eta gutxi gorabeherakoak dira, udal plangintza, are bateragarritasun planak, indarrean sartzen diren arte; izan ere, horietako zehaztapenek ere bat etorri behar dute LZParekin.

50. artikulua. LURRALDE-EREDUAREN OINARRIZKO ZEHAZTAPENAK HIRIGINTZAKO PLANGINTZAN APLIKATZEKO BALDINTZAK.

1.- Araudi honetako 48. eta 49. artikuluek jasotzen duten egokitu beharraz gain, LZParen garapenak hainbat baldintza bete beharko ditu, honako hauek:

- a) Hirigintza antolamendurako planak formalizatzen direnean, berariaz aipatuko dira LZP honetako edukiak, modu espezifiko, sistematizatu eta hierarkizatu batez, antolamendurako zehaztapen nagusiak ezartzera begira.
- b) Era berean, LZP honetako zehaztapenak egokitzeari, doitzeari edo interpretatzeari lotutako azalpenak, hala egokitzuz gero baimentzen diren desbideratzeekin batera, modu argi, arrazoitu eta zehatzez jasoko dira alorreko antolamenduaren, udal antolamenduaren eta antolamendu bereziaren derrigorrezko justifikazio memorian.

2.- Lurralde-ereduko elementuak plangintzara eramateko unean Lurralde Plan Partzialari atxiki dakioken formulazio esparru izaera eta planaren beraren eskala direla-eta, lehentasunezko erreferentziatzat hartuko dira jasotzen dituen helburuak eta oinarrizko eduki funtzionalak; dena den, lurralde-egiturari buruzko zehaztapenak betetzea derrigorrezkoa izango da.

Antolamendu kategoria eta esparruen mugen doitzeak, LZP honetan gutxi gorabehera baitaude ezarrita, aldaketak onar ditzake udal plangintza iristen denean. Dena den, aldaketa horiek behar bezala justifikatuta egon beharko dute, eta lurralde-ereduaren funtsezko helburuak eta edukiak aldatu ez.

3.- Esku-hartze estrategikoak garapeneko plangintzan sartzeko, baldintza hauek bete beharko dira:

- a) LZP honek esku-hartze estrategikoetarako ezartzen dituen antolamenduaren helburu eta irizpideak oinarri izango dira udal plangintzako proposamenetarako.
- b) Esku-hartze estrategikoak antolatzeko soluzioak garatzeko, jarraitu egingo dira arau hauetako zehaztapenak. Esku-hartze estrategikoen indar loteslea arauon edukitik ateratzen da, eta, bereziki, irizpide hauetatik:

- b.1 Babestu, hobetu edota leheneratu beharreko eremuek, erabiltzen ez diren meategi, harrobi eta hondakindegien salbuespenaz, ez dute murrizketarik izango azalera ez aldaketa adierazgarririk mugetan, alorreko edo udal plangintzaren ondorioz handitzerik dakartenen kasuan izan ezik.

Udal plangintzak zehatz jasoko du erabiltzen ez diren meategi, harrobi eta hondakindegien zerrenda, horien erregulazioarekin batera, eta LZP honekin bat leheneratzeko helburuz.

Lurralde Plan Partzial honetan ez doazkion Nekazaritzako eta Basozaintzako Lurralde Plan Sektorialean ezarritakoa koordinatzeko asmotan, nekazaritzako lurzoruari dagokionez udal plangintzak lurzoru urbanizaezinen zonifikazioan «Nekazaritza, Abeltzaintza eta Landazabaleko Balio Estrategiko handia» kategorian sartu beharko ditu, bai Nekazaritzako eta Basozaintzako LPS-ean mugatutakoak, bai LZPea definitutakoak; alegia, Eremu Funtzionalaren mailan garrantzi handien daukaten «Nekazaritza edo/eta ingurumen aldetik interesa daukaten eremuak».

- b.2 Mantendu egin behar dira esku-hartze estrategikoetan sartzten diren errepide eta trenbide sareetarako LZP honek egiten dituen kokapen, trazadura eta ezaugarrietarako proposamen orokorrak; horien gainean edo beste bide sareetan eskumena duten alorreko eta lurraldeko administrazioek sartzten dituzten aldaketak gauzatzean ezingo da alterazio esanguratsurik sortu lurralde-ereduan ezarritako funtsezko helburu eta funtzioetan.

LZP honetako planoetan dagoen diseinua, batez ere sarbide eta loturei dagokiena, izaera adierazgarrikoa da; dena den, alorreko garapenak eta proiektu zehatzek ahalegina egingo dute diseinu horretara egokitzeko edota alternatibak justifikatzeko.

Udal plangintzak errespetatu egingo ditu bide trazaduretarako eta sisteman sartutako elementuetarako, geltoki eta garraioarentzako zerbitzu eremuetarako, beharrezko erreserbak, trazaduren bateragarritasuna barne; eta eragotzi egingo ditu horiek garatzea zailtzen edo eragozten duten bestelako esku-hartzeak.

- b.3 Bide Azpiegituren Sistemako ekipamenduak eta instalazioak, hala nola geltokiak eta truke zentroak, eta Zerbitzu Azpiegituren Sistemako elementuak ereduko beharrezko elementuak dira. Elementu horien kokapen eta ezaugarriak dagokienez eskumena duten alorreko eta lurraldeko administrazioek sartzten dituzten aldaketak ez dira ahalmen funtzionalaren kaltean izango; eta aldaketak gauzatzeko unean zaindu egingo da LZP honetako lurralde-ereduaren beste zehaztapenetan alteraziorik ez eragitea.

- b.4 Mantendu egin behar dira LZP honetatik proposatutako esku-hartze estrategikoetarako asentamendu berrietarako erabilera eta kokapen proposamen orokorrak, horien dimentsionatze edo ahalmen gutxi gorabeherakoarekin batera, 51. artikuluan xedatutakoa ere bete beharko den arren.

Udal plangintzak hiri lurzoru gehitzen badu, eta kokapenari eta ezaugarriak dagokienez eskumena duten administrazioek aldaketak sartzten badituzte, LZP honetako lurralde-ereduan aldaketa mamizkorik ez eragiteko moduan jokatuko da.

- b.5 Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen indarrez babes erregimenen bateko etxebizitzarako lurzoru erreserbak egin behar dituzten udalerriez gain, Anoeta, Alegia eta Irurako udalerrietako udal plangintzak egokitu egingo ditu LZP honetan aurreikusitako bizitegi asentamenduetarako aurreikuspenak; ildo horretatik, antolamendu eta programazioan beharrezko zehaztapen eta denborazko jarraibideak ezarriko ditu, etxebizitza mota hori sustatu ahal izateko Lurzoru Ondare Publikoa sortzen joatearren pixkanaka.

- b.6 Udal plangintza LZP honetan aurreikusten diren zehaztapenetara egokitzean, errespetatu egingo dira Villabona-Irura-Anoeta-Tolosa ardatzaren eta Tolosa-Ibarraren hegoaldeko inguruaren eta honetan jarduera ekonomikoetarako dauden eremu estrategikoen

antolamendu orokorraren helburuak eta egitura nagusia; dena den, esparru horren barnean, modu librean garatu ahal izango ditu antolamendu xehakaturak, egitura eta zehaztutako arauketaren gainontzeko alderdiak.

51. artikulua. GARAPEN BERRIAK ANTOLATZEKO BALDINTZAK.

1.- Garapen berrietarako proposatutako eremu ez estrategikoen definizioa, LZParen dokumentazioan jasoa, eta eremu horien dimentsio eta ahalmenen zehaztapena, udal plangintzarako iradokizunak dira.

2.- Udal plangintzak beste zona orokor batzuk mugatu ahal izango ditu asentamendu berrietarako aipatuez gain, baina, edonola ere, zona haiek lehendik dauden guneean oinarritu eta zuzen-zuzenean gunehorietan lotutako hirigintzako hazkunde aurreikuspenetara mugatuko dira.

3.- Artikulu honekin bat udal plangintza orokorrak proposatzen dituen lurzoru berriek ez dute bizitegi kuantifikazioaren igoerarik ekarriko berekin.

4.- Dokumentazio grafikoan *Garapenik gabeko korridoreak* edo *Hiri-etenak* izenekin definitutako zerrendek hiri asentamendu berrien bazterte zabal bat dakarte berekin, lurralde-ereduaren arabera. Beraz, ez dira grafiatutako zerrenda estura edo honen aldameneko hurrekoetara mugatzen, ulertzen baita etenak zerrendaren paraleloan doazen lurzoruei ere eragiten diela, hain zuzen ere asentamenduen eta hirigintzako garapenen jarraitasunaren etete eraginkorraren helburua betetzearen.

Garapenik gabeko korridoreek udal plangintzak dagoeneko kalifikatutako esparruak ukitzen dituzten kasuetan, udal plangintzaren beraren indarraldian zehar garatzen ez badira LZP honetan aurreikusten den hiri-etenaren baldintza nagusituko da.

Lurralde erreserba gisa definitutako esparruak hirigintzako garapenetik at mantenduko dira Planaren indarraldian zehar. Esparru honen mugak lotesleak izango dira udal eta alorreko plangintzarentzat.

Esparru horietan bakar-bakarrik eraikuntzako eta mantentze azpiegiturarako ekintzak zertu ahal izango dira eta, hala egokituz gero, LZP honen aurretik onartutako hirigintzako plangintzan aurreikusi baina gauzatu gabeko garapenak, nahiz orain horiek lurralde-eredu berriaren argitan analizatzea gomendatzen den.

52. artikulua. LURZORU KUTSATUAK.

Poluituta egon daitezkeen lurzoruak daudenean, lurzoruak ondo ikertzea komeni da, aurreikusitako erabileraren arabera, nolako kalitatea duen ebaluatzeko.

Hiri eraldaketako jarduketetan, pertsonen eta ingurumen sistemen gaineko arriskuen prebentzioa ziurtatzeko helburuarekin, udal plangintzak «EAEn lurzoruak poluitu dezaketen jarduerak dituzten lekuen inbentarioan» barne hartutako lurzoruen arazoari aurre egiteko bere proposamena ondo zehaztu beharko du eta lurzoruen leheneratzea sustatzeko proposamenak egin.

53. artikulua. LZParen GARAPENEN PLANGINTZA.

1.- Tolosaldeko Eremu Funtzionaleko Lurralde Plan Partzial honetako proposamenak garatzeko, kontuan hartuko dira egiturazko udal plangintza -plan orokorrak, bateragarritasun planak- edo plan bereziak.

2.- Villabona-Irura-Anoeta-Tolosa korridorean eta Tolosa-Ibarraren hegoaldeko inguruan esku-hartze estrategikoak burutzeko LZP honetan aurkeztu den proposamena garatzeko, kasuan kasuko bateragarritasun planak landu behar dira. Bertan, estrategia egokiak zehaztuko dira denboran, eta horien gauzatzea erakutsiko da.

3.- Udal plangintzak garatzeko eta alorreko politikak aplikatzeko, plan bereziak formulatu eta onartu ahal izango dira, xede hauek jasoz horietan:

- a) Oinarrizko azpiegiturak, bide eta trenbidekoak, garatzea, horiei lotutako elementuekin batera, lurralde eremuarekin bat.

- b) Ur hornidurarekin, saneamenduarekin, energiaren hornidurarekin eta antzeko beste batzuekin lotura duten oinarrizko azpiegiturak garatzea.
- c) Udal mailaz gaindiko ekipamenduak garatzea, lurralderako sarreraguneetan eta abarretan, ereduarekin eta LZP honetako zehaztapenekin bat.
- d) Paisaia, komunikazio bideak, lurzorua eta ingurune naturala eta landa ingurunea babestea, horiek kontserbatzeko eta hobetzeko, LZPak ingurune fisikorako ezarritako zehaztapenen arabera.

54. artikulua. PLANGINTZAK KOORDINATZEA.

1.- Tolosaldeko Ereku Funtzionalaren LZPko aurreikuspenak garatzeko ezinbestekoa izango da plangintza koordinatuak egitea, eta, horretarako, bateragarritasun planak landuko dira ondoren adierazitako udalerrietan:

- a) Tolosa eta Ibarra, bide sarea, hegoalde ingurua eta, oro har, udalerrri bien arteko mugako zonak definitzeko eta antolatzeko.
- b) Villabona-Zizurkil-Irura-Anoeta eta Tolosan, batez ere Villabona-Tolosa korridorearen antolamendua garatzeko.
- c) Villabona eta Zizurkil, udalerrri bien arteko lotura berrantolatzeko eta Aduna-Elbarrena-Villabona-Anoeta-Tolosa ardatzaren egituraren txertatzeko, geltoki ingurua eraldatzeko, eta Fraisorotik gora dagoen Legarretako hiri inguruko parkea antolatzeko.
- d) Asteasu eta Zizurkil, Aiztiondo haranean aurreikusten diren kokalekuak eta bide azpiegiturak antolatzeko.
- e) LZPak proposatzen dituen jolas eta atsedeen eremuetan jabetzakoak dauzkaten udalerririk hitzarmenaren bidea jorratuko dute eremu horietako antolamendua garatzeko.

2.- Aipatutako udal plan horiek, antolamendu orokorra konpatibilizatu edo bateratu behar dutenek, berariazko zehaztapenak hartuko dituzte barne, esparru zehatzak garatzeko plangintza zehatz prestatzeko adinako xehetasun mailarekin, orientazio hauei jarraikiz:

- a) Villabona-Tolosa korridorea.

Koordinazio horrek aurretiko baterako agiri bat idaztea eskatzen du, ahal dela aurrerapenaren mailakoa, eta helburuak honako hauek dira: lurzoru erreserbak definitzea, azpiegitura nagusiak egokitzea eta antolamendu espaziala eta proiektuak garatzea, kalitateko hiri egitura ezartzeko irizpideetan oinarrituta.

- b) Tolosa-Ibarra hegoalde ingurua.

Koordinazio horretara begira, aurretiko baterako agiri bat idaztea komeni da, ahal dela aurrerapenaren mailakoa, eta ondokoak definitzea duela helburu: lurzoruen birkalifikazio generikoa, tipologia, bide loturak, oinarrizko azpiegiturak, ibaiertzen tratamendua eta, oro har, espazioaren antolamendua, kalitate irizpideei jarraikiz, burutza-hiriaren mailari dagokion bezala.

- c) Villabona-Zizurkil.

Koordinazio horretara begira, aurretiko baterako agiri bat idaztea komeni da, ahal dela aurrerapenaren mailakoa, eta ondokoak definitzea duela helburu: lurzoruen birkalifikazio generikoa, bide loturak eta oinarrizko azpiegiturak, esparruaren birkalifikazioa eta, oro har, espazioaren antolamendua, kalitate irizpideei jarraikiz; agiri horretan jasoko da, halaber, Papelera del Oria enpresak gaur egun Zizurkil dituen instalazioei dagokien esparrua, kasu honetan enpresaren garapen prozesura egokitutako epe luzerako jarduketara gisa.

3.- Murumendiko eta Atxulondo-Abalotzeko Natura Intereseko Erekuak antolatzeko oinarrizko lerroak definitzearen, Tolosaldeko Ereku Funtzionalen LZPa garatzeko unean hitzarmenaren bidea bilatuko da aldameneko eremu funtzionalen LZPek jasotzen dituzten zehaztapenekiko (Goierri eta Urola Kostako eremu funtzionalak dira lehen kasuan, eta Donostialdekoa bigarrenean).

4.- Ereku funtzionalen antolamenduak ez du kaltetuko kultur ondare higiezinaren babesa eta, horrenbestez, ondare horrek ez du gutxitu behar lurralde-eredua garatzearen ondorioz. Hori dela eta, LZP honek EAEko Kultur Ondare Higiezinaren LAPak barne hartutako erregulazioa bere egingo du,

Euskal Kultur Ondareari buruzko 7/1990 Legea betetzeaz gain, eta kasu guztietan Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduari buruzko 4/1990 Legearen 17. artikuluan xedatutakoa beteko da, LAAek kultur ondareari buruz oro har jasotzen dituzten preskripzioekin batera.

5.- 2/2006 Legeak, ekainaren 30ekoak eta lurzoruari eta hirigintzari buruzkoak, bere 92. artikuluan xedatutakoa betetz, Gipuzkoako Foru Aldundiak landuko ditu Villabona-Tolosa korridorean eta Tolosa-Ibarra hegoaldeko inguruan kokatutako udalerrien plangintzen bateragarritasun planak.

55. artikulua. GARAPEN BERRIAK ANTOLATZEKO ETA DISEINATZEKO BERARIAZKO JARRAIBIDEAK.

1.- Asentamendu berriak antolatzeko jarraitu egingo dira garapen iraunkorraren eta lurzoruaren erabileraren optimizazioaren printzipioak.

Antolamendu fisiko eta espaziala egun dagoen hiri egiturarekiko eta hiri zentraltasuneko ardatzekiko modu integratuan egingo da, hiri ingurune baliok erantsiz urbanizazioaren eta eraikinen diseinu eta kalitate egokien bidea jorratuta.

Arau orokorra zera izango da, ibaiertzak babestea, pasealeku zuhaizdun zabalaren tratamendua emanaz horiek hiri eremuan txertatzen edo hiri eremuaren aldamenekoak diren kasuan.

2.- Bizitegi asentamenduen antolamenduak irizpide batzuk jarraituko ditu, honako hauek:

- a) Lehentasuna emango zaie iraunkortasun irizpidea oinarrian hartuta ingurumen hobekuntzak dakartzaten jardun lerroei: birgaitze, berritze eta eraldatze jarduketei eta eremu andeatuak leheneratzeko eta birsortzekoei.
- b) Garapen berriak lehenik dauden asentamenduekiko jarraitasun espazial eta funtzionalaz garatuko dira, kasu bakoitzean komeni diren egituratze eta bereizte aukeren kaltean izan gabe betiere.
- c) Eskuarki, lurzoruaren kontsumoa baxuagoa izatea (dentsitate ertainak/altuak), azpiegitura berriak errentagarri egitea eta dentsifikazio handieneko udalerrietan garraio kolektiboa posible egitea erraztuko duten hiri ereduak sustatuko dira.
- d) Ahal den neurrian saihestu egingo da 100 urteko errepika-denborako uholde arriskua duten zonen hirigintzako okupazioa.
- e) Lurzoruaren sailkapenaren edo kalifikazioaren edozein aldaketari ekiteko unean, kontuan hartu beharko dira aplikatu daitezkeen soinu-kalitatearen helburuak, horiek betetzen direla egiaztatuz eta eremu mugakideekiko bateragarritasuna ziurtatuz.

3.- Barne erreformako jarduketetatik sortzen diren eta bizitegi erabilerak, hirugarren sektorekoak eta hornidurakoak har ditzaketen izaera mistoko hiri asentamenduen antolamenduan, ahalegina egingo da espazio libretarako eta interes publiko eta sozialeko zerbitzuetako ekipamenduen estandarrak eta indarrean dagoen legediak lurzoru urbanizagarrian exijitzen dituenak berdinak izateko, non eta esparruaren neurri txikiagatik edo beste zertzeladaren batengatik ezinezkoa ez den aipatu modulu horietara iristea.

4.- Jarduera Ekonomikoetarako Lurzorua Sortzeko eta Saltoki Handiak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Planean ezarritakoaz gain, jarduera mota horietarako asentamendu estrategiko berrietan beste hainbat alderdi hartu behar da kontuan, honako hauek:

- a) Galarazi egin behar da industri jarduera kutsagarriak eta ingurua zikintzen duenik ezartzea, eremuko jarduera nagusien osagarri ez diren biltegi eta garajeak eta, bere neurri handia dela eta, eragin kaltegarria dutenak bezalaxe.
- b) Neurri handiko jarduera komertzialak, hala nola hiper edo supermerkatuak eta antzekoak, murriztu egin behar dira, oro har, betiere LZP honetako 42. artikuluko 5. puntuan adierazitakoa harturik aintzat.

5.- Industri asentamendu berrietan:

- a) Lurzorua erabiltzeko iraunkortasun eta arrazionaltasun irizpideak jarraituko dira, intentsitate ertain edo altuak sustatuko dira, eta hainbat solairuko eraikuntza-okupazioa, 39. artikuluan jasotzen diren zertzeladak gertatuz gero.

- b) Kutsagarriak izan daitezkeen jarduerak, oro har, murriztu egingo dira, produkzioari zuzenean lotuta ez dauden biltegiak bezalaxe, hain zuzen eremuetako produkzio ahalmena gutxiegi erabil ez dadin.

6.- Hiriarteko egituratze ardatzetan zehar ahalegina egingo da alubioizko poltsa txikiak eta inguruko ibaiertzak txertatzeko, asentamenduetarako baztertze zerrenda gisa.

7.- Baliabideen kontsumoari eta hondakinen kudeaketari dagokienez:

- a) Eraikinen eraginkortasun energetikoak pizgarriak izango ditu, bai eta energia berriztagarriak aprobetxatzeko sistemak erabilerak ere.
- b) Uraren kontsumo eraginkorra sustatuko da eta, horretarako, eraikin berrietan aurrezpen sistemak jarriko dira eta kaleak eta lorategiak ureztatze sistemetan berrerabiliko da.
- c) Garapen berriko eremuen urbanizazioetan, espazio publikoetan kontsumo baxuko argiztapenaren erabilera indartuko da, bai eta zerua argizatzea eragozten duten eta gaueko argi-poluzioa murrizten duten sistemak ere.
- d) Hiri eta industriako hondakinen birziklapena eta berrerabilera sustatuko da, betiere horiek uzteko eta tratatzeko altzari eta instalazio egokiak ziurtatuz.

8.- Era berean, lehengo udal plangintzek edo aipatuen edo LZParen garapenekoek, azken honetako proposamenek eragiten dietenean, jaso egin beharko dituzte IEBE azterketako **6.3.1. LHZaren ingurumen-kostua murrizteko neurriak** epigrafean kontuan hartzen diren neurri zuzentzaileak eta konpentsaziokoak. Aipatutako neurri guztiak barne hartu beharko dituzte garapen plangintzek. Edozein kasutan, azterketa zehatzago baten ondorioz, proposatu diren neurriak aldatzea gerta daiteke, eta aldaketak egingo dira, betiere aldaketa justifikatzen eta aholkatzen duen eskala zehatzago batean egindako azterketak eskatzen badu.

56. artikulua. ZORTASUN AERONAUTIKOAK.

Tolosaldeko Eremu Funtzionalaren zati bat Donostiako Aireportuaren aire-nabigazioari buruzko zortasun-eremuetan sartuta dago.

Eremu Funtzionalari doazkion Donostiako Aireportuaren aire-nabigazioari buruzko zortasun-eremuak mugatzen dituzten azalaren sestra lerroek –planoan doaz- ezartzen dituzte eraikinek, eraikinen elementuek edo eraikinen gainean jarritakoek gainditu ezin dituzten altuerak, itsasoaren mailari dagokionez (antena, tximistorratzak, tximiniak, kartelak, dekorazio-elementu apaingarriak, etab.), luraren mugimenduek edo elementu finkoek (zutoinak, antena, haize-sorgailuak, palak barne, etab.), errepideetako galiboa eta trenbidea (energia elektrikoa garraiatzeko lineak, telekomunikazioko azpiegiturak eta duten funtzionamendua dela-eta plataforma goratuetan kokatu beharrekoak diren bestelako egiturak).

II. ERANSKINA, MAIATZAREN 19KO 64/2020 DEKRETUARENA

DEKLARAZIOA, INGURUMEN-INPAKTUAREN EBALUAZIO BATERATUAREN PROZEDURA ARAUTZEN DUEN UZTAILAREN 22KO 183/2003 DEKRETUAK 14. ARTIKULUAN XEDATUTAKOAREN ONDORIOETARAKO.

Tolosako Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partzial honen xedea Tolosako (Tolosaldea) jardute-eremua antolatzea da. Horretarako, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduari buruzko maiatzaren 31ko 4/1990 Legearen 12. artikulua 1. puntuak eta eremu horretan aplikagarriak diren Lurralde Antolamenduaren Gidalerroen edukiek ezarritako zehaztapenak garatuko dira, betiere aipatutako legean aurreikusitakoarekin bat etorritik.

Europar Batasunak, ingurumenean eragin nabarmenak izan ditzaketen planen eta programen gainean prebentziozko ingurumen-ebaluazioak egiteak duen garrantziaz ohartuta, eta natura-baliabideak eta ingurumena babesteko, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2001/42/EE Zuzentaraua eman zuen, planek eta programek ingurumenean izan ditzaketen eraginak ebaluatzeari buruzkoa. Xede horrekin berarekin txertatu zen gure zuzenbidean, apirilaren 28ko 9/2006 Legean zehazki.

Euskal Autonomia Erkidegoan, Ingurumenaren babesari buruzko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorrak aurre hartu zien xedapen horiei, eta ingurumen-ebaluazioko prozedura bat ezarri zuen, uztailaren 22ko 183/2003 Dekretuaren bitartez garatu zena. Dekretu horrek arautzen du aipatu legean ezarritako ingurumen-ebaluazioko prozedura.

Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumena babesteko otsailaren 27ko 3/1998ko Lege Orokorren 41. artikulua eta Ingurumen Inpaktuaren Baterako Ebaluazio-prozedura arautzeko uztailaren 22ko 183/2003 Dekretuaren arabera, Tolosako Eremu Funtzionalako Lurralde Plan Partziala (LPP) ingurumen-inpaktuaren ebaluazio-prozeduraren mende jarri da, plan partzial horren beraren formulazioan ingurumen-alderdiak txertatzeko eta hala egin dela egiaztatzeko.

Prozesu hori dela eta, Tolosaldeko LPPren ingurumen-inpaktuaren aurretiazko txostena egin da; kontsulta publikoak egin zaizkie lurralde-elementuen babes- eta kudeaketa-arloetan eskumenak dituzten administrazio-mailei, hala nola eremu funtzionalako toki-elkarteei eta herritarrei, eta horien ekarpenak bildu; eta behin betiko ingurumen-inpaktuaren txostena formulatu da.

Uztailaren 22ko 183/2003 Dekretuaren 14. artikuluan xedatutakoaren arabera (dekretu horretan arautzen da ingurumen-inpaktuaren ebaluazio-prozedura bateratua), Tolosaldeko LPPren behin betiko onarpena argitaratzeko, aipatu adierazpena egin behar da, hauek adierazita: zein eratarik txertatu diren ingurumen-alderdiak LPPn; eta zein eratarik hartu diren kontuan IIBE azterlana, ingurumen-inpaktuaren behin betiko txostena, eragindakoen edo interesdunen ingurumen-arloko oharra eta alegazioak. Halaber, planaren ondoreak gainbegiratzeko neurriak azaldu dira, kontrako eraginak azkar identifikatu eta konponbide egokiak emate aldera.

1. Ingurumen-alderdiak txertatzea lurralde-ereduan.

Antolamenduaren oinarritzko printzipio, irizpide eta helburuak

Tolosaldeko eremu funtzionalako Lurralde Plan Partzialaren xedea da udal plangintzak eta politika sektorialak koordinatu eta integratuko dituen erreferentziako esparru bat ezartzea. Horretarako, LAGen xedek garatu, garapen-plangintzek izan beharreko irizpide eta helburu orokorrak ezarri, eta lurralde-garapenerako estrategia bat definitu behar da, ekonomia-, ingurumen- eta lurralde-alderdiak antolatzea ahalbidetuko duena, prozesua orekatua eta jasagarria izan dadin.

Horretarako, Lurralde-antolamenduaren Europako Gutunean adierazitakoaren arabera, eremu funtzionalako LPPk funtsezko deritze garapen jasagarriari eta lurraldearen erabilera arrazionalari, horien

araberakoak izango baitira helburu operatiboak, aplikatuko diren irizpideak eta antolamendu-zehaztapenak.

Horiek horrela, ikuspegi operatibo batean oinarrituta, Tolosaldeko LPPk antolamendu-irizpide orokor hauek ezartzen ditu:

- a) Eskualdeko baliabide naturalak eta bertako paisaia- eta ingurumen-kalitatea babestea, hobetzea eta baliozkotzea, eskualdearen etorkizuneko garapen jasangarrirako oinarritzko aktiboak direla ulertuta.
- b) Giza kokaguneen sistema koherentea, orekatua eta EAEko hirien sisteman integratua lortzea. Sistema hori herriarteko osagarritasun funtzionalean eta hiriguneen eta landaguneen arteko harreman mota berri batean oinarrituko da, garapenari eta arlo horretako herritarren arteko kohesio ekonomiko eta sozialari laguntze aldera.
- c) Egungo garraio-sistema hobetzea eta komunikazio-sistema bat eratzea, eremu funtzionala kanpoko garapen-ardatzetan integratzea bermatzeko eta bere egituraketa indartzeko, ereduaren oinarritzko elementuen arteko harreman funtzionalak hobetuko dituzten konexioen bitartez, baita zerbitzuen kalitatea hobetzea ere, herritarrek komunikaziorako eta informaziorako duten irispideari mesede egin eta beren bizi-kalitatea hobetzeko ere.

Tolosaldeko LPPk proposatzen duen lurralde-ereduak hiru euskarri ditu, hots, lurraldearen antolaketa funtzionalak eta espazialak zurrak dituen oinarritzko hiru osagaiak, zeinak dira: Ingurune fisikoa; garraio- eta komunikazio-sistemetak azpiegiturak eta zerbitzu-azpiegiturak, eta giza kokaguneen sistema, zuzkidura-sistema barne.

Eremu eta elementu jakin batzuen gaineko jarduketa-proposamenak zehazten dira ereduaren, zehazki, lurralde-/eskualde-maila areago egituratzen dutenak; alegia, ekintza estrategikoak.

Adierazi diren irizpide orokor horiek zehaztera etorri dira antolamendu-irizpide eta -xede batzuk, LPPk proposatutako esku hartzeko eremu bakoitzeko.

Ingurune fisikoa:

- Ziurtatzea eremu funtzionaleko naturagune garrantzitsuenen babes eraginkorra eta horien arteko lotura.
- Babesa ematea egun dauden baso autoktono naturalei, haien kontserbazioa lortu eta, hala badagokie, kalitate ekologikoa hobetzeko, azalera handitzearen mesedetan.
- Laguntza ematea Fauna- eta flora-espezie basatien kontserbazioari, genetika-aniztasuna eta habitatei eustea bermatuta, arreta berezia emanda espezie mehatxatuei.
- Bermatzea landare-estaldura mantendu edo hobetuko dela material-desplazamenduaren arriskua duten eremuetan, landare-estaldurari kalte egiten dioten jarduketak bertan kokatzea saihestuz.
- Drainatze naturaleko sarea hobetzea edo bere horretan mantentzea, baita uren kalitatea eta erriberako ekosistemen kalitatea ere, ekosistema horietan eragina duten faktoreei arreta emanez (aldaketak, isurketak, etab.).
- Lur azpiko ur-baliabideen kalitatea mantendu edo hobetzea eta baliabide horien gehiegizko ustiapena saihestea, hala hiri-hondakinak nola nekazaritza eta abeltzaintzakoak kontrolatuz.
- Bultzada ematea lurzoru degradatuen lehengoratzeari, baldin eta haien harrera-ahalmenarekin bateragarri ez diren jarduerak izan badituzte, hala nola utzitako harrobiak, hondakindegia, meatze-inguruak eta higadura-arriskua duten zonak.
- Babesa ematea multzo paisajistiko baliotsuei eta kultura-ondareari.
- Bermatzea nekazaritzako jarduera eta balioei eutsiko zaiela, eta kalitate handieneko lurzoruak babestea.
- Mesede egitea orain arte erabili ez diren edo nahikoa aprobeztatu ez diren baliabide naturalen aktibazioari, landa-ingurunea garatzeko eta baliabide naturalak zentzuz erabiltzeko estrategia orokorraren barruan.

- Mesede egitea aisialdia eta turismoa modu antolatuan baliatzeari, ekipamendu ludiko eta kulturalak baliatuta, natura- eta kultura-ondarean oinarrituta lurraldearen erabilera sustatuko dutenak.

Garraio- eta komunikazio-sistema:

- Eremu funtzionala kanpoko ardatzetan integratzea, loturak indartuz hiriburuen euskal sistemarekin, inguruko eremu funtzionaletako udalerrri nagusiekin eta indartzen ari diren ekoizpeneekin.
- Sustapena ematea eskualdeko udalerrri nagusien, hiriguneen, landaguneen eta, oro har, sistemako elementu guztien arteko egituraketa eta elkarreraginari.
- Gaur egungo garraio- eta komunikazio-sistema hobetzea, ondorengo irizpideak kontuan hartuta:
 - Plangintza eta antolamendu administrazioek koordinatua, garraio-politika erkide baten ikuspegitik.
 - Intermodalitatea oinarri duen garraio-politika bat garatzea.
 - Lehentasuna ematea garraio publikoari, hauen bitartez:
 - Garraio publikoaren instalazioak eta ekipamenduak hobetzea.
 - Trena sustatzea salgaien garraiorako.
 - Sustapena ematea garraibide ez-motorizatuei edo ingurumena gutxiago kaltetzen dutenei.
 - Ibilgailu pribatuaren erabilera mugatzea.

Hauek ere izango dira esku hartzeko irizpideak:

- Egituraketa hobea lortzea errepide-sistemako elementuen artean, paseko eta aparkaleku-asmoko zirkulazioak pixkanaka bereiziz, eta Kanpoko Sarbide Sare Nagusiaren, hiri-sarearen eta toki-irisgarritasuneko lehen mailako sarearen arteko erlazioa hobetzea.
- Errepide-sareen funtzio-aniztasuna sustatzea, batez ere Tokiko Sarbide Sare Nagusian. Horrela, hiri-sistemak erlazionatzeko eta egituratzeko duen funtzioa indartuko da, baita hiri-garapenak eragiteko ahalmen espaziala ere, trafiko-bide huts izatearen sektore-kontzepzioa gainditzeko, batez ere hiri-zeharbideetan.
- Mesede egitea oinezkoentzako eta txirrindularientzako herriarteko sare irisgarri bat eratzeari eta garatzeari, edukiera handiko garraio-sistema publikoekin (Adif/Renfe, herriarteko autobus-lineak, etab.) konexio eraginkorrak ahalbidetuta.
- Sarearen funtzionaltasun integrala osatzea, sistemaren zerbitzu ezinbestekoen bitartez, tartean, bus-geltokiak, aldaguneak, garraio-ekipamenduak eta sistemako beste elementu batzuk.
- Kasuan kasuko azterketak eginda, azpiegiturak zentzuz ezartzea, lurraldeko zerbitzuak integratzeko eta optimizatzeko estrategien bitartez, eta ubideak, sareak eta trazadurak kontzentratuz, kalteak ahalik eta gehien murriztuz eta ingurune fisikora egokitutako diseinu kualifikatuak eginez.

Giza kokaguneen sistema:

- Lehendik zeuden bi hiri-sistemen eredu integrala indartzea. Bi sistema horien antolaketaren oinarri dira, batetik, Tolosa-Ibarra multzoa, eta, bestetik, Villabona-Elbarrena multzoa, eta maila txikiagoko herriguneak eta landaguneak dituzte osagarri.
- Aipatu hiriguneen integrazio funtzionala, elkarren arteko osagarritasunak eta eraginak lagunduz.
- Hiri nagusiak indartzea eta dagokien maila areagotzea, hiriguneak ondo integratuz eta lortu nahi den hiri-kategoriaren arabeko elementuen eta funtzioen zuzkidura eginez.
- Hiri-kalitatea hobetzea, beharrezkotzat jotzen diren eragiketen bidez, hala nola: narriatuta edo zaharkituta dauden esparruak aldatzeko edo lehengoratzeko eragiketak; hiri multzoak eta herrigune historikoak babesteko eta birgaitzeko eragiketak, eta berrekipamendu-eragiketak; bai

eta etxebizitzak eta jarduera ekonomikoetarako lurak eskaintzea ere, jardute eremuko biztanleriaren eta produkzio-sistemaren beharretara egokituta.

- Lurralde-desorekak zuzentzea, hauen bitartez:
 - Bizitegitarako eta izaera estrategikoko ekonomia-jardueretarako garapen berrien ekintza selektiboak, harrera-ahalmen handieneko udalerrietan, eremu asentatuen birkualifikaziorako, berrekipamendurako eta hobekuntzarako jarduerekin, bertako tentsioak arintzeko eta herriguneeen arteko integrazioa eta osagarritasuna lortzeko.
 - Landa-garapenerako politikak hartu behar dituenak: ekonomia-oinarria dibertsifikatzea, bizitegi-eskaintza alternatiboa, kultura- eta ingurumen-zerbitzuen berrekipamendua eta integrazioa, telekomunikazioen garapena eta garraio publikoaren hobekuntza.

Proposamenak

Hauek dira LPPn bildutako proposamen esanguratsuenak:

Ingurune fisikoa.

- Lurzoru urbanizaezinaren eremua zehaztea eta sailkapen orokor bat egitea.
- Babestu, hobetu edo lehengoratzeko eremu berriztat definitutako esparruak mugatzea, gaur egungo naturagune babestuak eta Natura 2000 Sarea osatzeko, eta bertako jarduerak dagokien kategorizazioaren arabera arautzea.
- Ondarea kontserbatzeko, lehengoratzeko eta integratzeko planak, programak eta garapen-ekintzak osatzea LPPa garatzeko, barne hartuta sistema singularren, basa bizitzaren, biodibertsitatearen, funtsezko ziklo ekologikoen eta kultura-ondarearen babesarekin eta lehengoratzearekin edo birgaitzearekin lotura duten planaren esparruaren barneko jarduketa guztiak.

Garraio eta komunikazio sistemako eta zerbitzu-sistemako azpiegiturak.

- Garraio- eta komunikazio-sistemaren eskema orokor bat zehaztea, proposamen multzo bat adierazita hauen gainean:
 - Ibilbide ez-motorizatuen sorta bat sortzea/indartzea, eremu barneko eta eremuon eta garraio-sistema publikoen arteko loturen antolamenduan lehentasunetako bat denez.
 - Errepide-sare orokorra eta horren elementuen arteko egituraketa hobetzea.
 - Aldirietako trenbide-sarea (Adif/Renfe) eta sareko geltokiak zein intermodalitate-elementuak.
 - Egungo garraio-sistema hobetzea eta hobeto erabiltzea.
- Ibilbide-eskema finkatzea eta zerbitzuen oinarritzko azpiegituren elementu nagusiak.

Giza kokaguneak

- Giza kokaguneeen eredu integral bat eratzea eta eredu hori antolatzeko proposamenak egitea, hauen bitartez:
 - Okupazio urbanistikoa jasan dezaketen lurzoruen mugaketa, okupazio espazialaren karakterizazio orokorra eta herriarteko korridoreen izaera, hiri-garapenarekin lotuta.
 - Etxebizitza-parkea eta antolamenduak eskaini beharreko ekonomia-jarduketentzako lurzorua antolatzeko eta egokitzeko jarraibide orokorrak adieraztea.
 - Eragiketa nagusiak identifikatzea:
 - Babesa eta birgaitzea.
 - Birsortzea eta eraldatzea.
 - Garapen berriak.
 - Interes erkideko ekipamenduen kokapena zehaztea, izan hirikoak, izan landagunekoak, izan natura-ingurunekoak.

- Eremu estrategiko gisan zehaztutako esparruetako jarduketa identifikatu eta proposatzea.
- Antolamenduak koordinatzeko eta bateratzeko esparruak proposatzea.

2. Ingurumen-inpaktuaren ebaluazio-azterlan bateratua (IIBE).

Euskal Autonomia Erkidegoan, Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak eta Ingurumena Babesteko Lege Orokorra dira eremuen eta erabileren antolamendu orokorra jasangarria izateko oinarriak, betiere xede honekin: garapen ekonomikoa eta soziala prozesu ekologikoen kontserbazioarekin, babesarekin eta narriatuta daudenak lehengoratzearekin eta kontsumoko nahiz ekoizpeneko giza jarduerak eragindako aldagaiak birbaliozkotzearekin batzea eta bateragarri egitea. Aldiz, Garapen Jasangarrirako Euskal Ingurumen Estrategia da EAEko ingurumen-politikako estrategiaren oinarria.

- Planak hasiera-hasieratik hartu ditu kontuan ingurumen-alderdiak; esaterako, LPP idazteko, oso kontuan hartu dira Garapen Jasangarriko Ingurumen Estrategian eta ondoz ondoko esparru-programetan jasotako erkidego-mailako xedeak, helburuak eta konpromisoak, hala nola garapen jasangarriko eredu berriari buruzko estatuko nahiz Europako zuzentarauak.

Tolosako Eremu Funtzionalaren LPPk kontuan hartu ditu horiek guztiak, hala analisi-fasean, nola diagnostiko-fasean, eta planean txertatu ditu, bai helburu gisa, bai helburuok lortzeko irizpide, proposamen edo ekintza-lerro gisa.

Lurralde-eskalara etorrira, Natura Kontserbatzeko Legetik eratortzen diren espezie eta eremu babestuen katalogoan eta Natura 2000 Sareko beste figura batzuetan ageri diren guneek babes-araudi jakin bat dute indarrean, eta horretan arautzen dira lurraldearen erabilerak eta jarduketak. EAEk horiek betetzeko konpromiso irmoa du, eta ez ditu inola ere urratuko. LPPa ingurumen-arloa egokitzeko, aurreko guztiak hartu dira kontuan, baita aztergai den eremuan eragina duten eskualde-mailako eta tokiko sektore-esparruko planetako eta agirietako jarraibide teknikoak.

Arrisku geomorfologikoen azterlana kontuan hartu da eta urpekortasun-azterlanak egunean jarri dira, kausa naturalen ondoriozko hondamendi-arriskua prebenitzeak garrantzi handia duelako. Alderdi horiek aintzat hartu beharko dira LPPren proposamenetatik eratortzen diren garapen-planetan eta proiektuetan.

Zehaztapan horiek eremu funtzionalaren LPPn txertatzeak ez du itxuraldatu LPPren planteamendua. Printzipio estrategikoak, legezko prozeduren gaineko lege-arauak eta lurraldean aplikatzeko jarraibide teknikoak aztertu eta aintzat hartu dira LPPa osatzeko prozesu guztian (analisian, balorazioan, diagnostikoan, idazketan eta erabaki-proposamenetan), eskala-mailaren arabera.

Aipatu LPPren helburuen eta jarduketa-estrategien oinarrian dago LAGen dokumentua. Dokumentu hori, halaber, EAEko lurralde-antolamenduko prozesuak Europako lurralde-estrategiara egokitzearen fruitu da (ingurumen-irizpideak txertatu dira prozesuotan). Gainera, IIBE azterlanak egiaztatzen duenaren arabera, helburu horiek eta Ingurugiroa Babesteko Lege Orokorren eta ondoz ondo esparru-programen xedeak eta helburuak berdin-berdinak dira, eta helburuok beteko badira, garapen jasangarriaren printzipioak bete beharko dira.

- Tolosako Eremu Funtzionalaren LPPren proposamenen oinarrian dago lurraldearen gaineko analisi, balorazio eta diagnostiko orokorra, eta horrek kontuan hartu ditu maila handiagoko lege-xedapenak, izan ingurumen-arlokoak, sozioekonomikoak edo lurralde-arlokoak (batez ere lurralde-antolamenduko esparruen gaineko datuak). Horiek koordinatu eta integratu ditu irizpide teknikoei jarraikiz, eta horrek bide eman du arazoak identifikatzeko, beharrak zenbatetsi eta aurreikusteko eta lurralde-ereduaren gakoak eta erreferentziak ezartzeko, baita antolamendu-irizpide eta -helburu orokorrak, eta eremu funtzionalean aplikagarri diren lurralde-politikak areago zehazteko ere.

Konponbide orokorrak eta antolamendu-zehaztapanak (lurralde-ereduan laburbildu direnak) ez dira aipatu analisi, balorazio eta diagnostiko horren emaitza bakarrik, baizik baita irizpideek eta helburuek zehazten duten ikuspegi eta norabideen emaitza ere. Eta lurraldeko esparruen funtzioak egituratzen eta

zehazten dituzte, baita ezarritako helburuak lortzeko behar diren ekintzak ere, batez ere, egiturazkoak izateagatik, ekintza estrategiko direnak.

Ereduan jasotako konponbideak alternatiba orokor baten parte dira. Alternatiba horretan batzen dira eremu funtzionaleko LAGen lurralde-ereduko estrategia eta beste alderdi funtsezko batzuk, eta horiek dira esku hartzeko politiken ardatz. Tolosako Lurralde Plan Partzialaren helburua aipatu lurralde-eredua identifikatzea eta garatzea denez, ez dago ordezeko lurralde-eredu askorik aukeran. Gainera, erabili den metodologia erabilia, eragile publiko eta sozialekin hamarkada batez baino gehiagoz harremanetan egon ondoren, beste konponbide-aukera batzuk kontuan hartu eta alderatu ondoren, kostata, baina lortu da indartu beharreko lurralde-ereduaren gaineko adostasun aski zabal bat.

Tolosako Eremu Funtzionaleko LPPk egungo giza kokaguneen eredu integrala finkatzea proposatzen du, oinarritzat hartuta, alde batetik, Tolosa-Ibarra multzoa, eta bestetik, Villabona-Elbarrena multzoa, tamaina ertaineko hiriguneek eta landaguneek osatua, aipatu hiru giza kokagune-mailen arteko integrazioa hobetuta eta elkarreragina eta osagarritasuna bultzatuta.

Eredu hori garatzeko, LPPk jarduteko estrategia jakin batzuk proposatzen ditu bi ardatzetan banatuta: lurralde-ardatzari dagokionez, eskualde-egituraketa hobetzeko prozesuak, berriz orekatzea (bizi-kalitate baliokidea lortzea), sistemako elementuen arteko osagarritasuna eta hautemandako beharren arabera lurzoru-eskaintza bermatzea. Ingurumen-ardatzari dagokionez, lurzoruen erabilera babestea, kontserbatzea, hobetzea eta arrazionalizatzea, aurreko horien eta lurraldearen harrera-gaitasunaren arteko oreka bultzatuta, baliotsuenak eta kalteberenak babestuta, baliabide-kontsumo gehiegizkoa mugatuta, baliabideen erabilera efizienterako estrategiak, politikak eta ereduak proposatuta eta landaguneetan nahiz hiriguneetan ingurumen- eta bizi-kalitatea hobetuta.

Hiri-garapeneko eragiketa estrategikoen xedea da Oria ardatzaren jarraitutasun funtzional eta estrukturalari konponbide bat ematea udalerrri nagusien artean, bai eta horien eta bestelako giza kokaguneen arteko artikulazioa lortzea ere. Izan ere, alderdi horietan datza eremu funtzionalaren egiturazko arazoa. Aurre egin behar zaio, beraz, eremu funtzionalaren iparraldean Donostialdearen erakarmenak eragindako tentsioak saihestu, Tolosaren hiriburutza indartu eta giza kokaguneen sistemako elementuen arteko kohesioa handitzeko.

Proposamenak bat datoz planteatu diren helburuekin eta irizpideekin, eta analisi, balorazio eta diagnostikoan hautemandako arazoei konponbidea ematen diete.

- IIBE azterlanak neurri sorta bat zehaztu du LPPren ingurumen-kostua murrizteko. Hala, LPPk jarduketak egitea proposatzen duen lurzoruen ingurumen-balioei eta baldintzei buruzko neurriak berriaz nabarmendu ditu, baita udal-plangintzan aplikatzeko irizpide sorta bat ere, garapen berrien ingurumen-programazio eta -ebaluazioari buruz (IIBE azterlanaren 6.3.1 eta 6.3.2 apartatuak). Plangintzan txertatu beharko dira idazketa-fasean, eta, edonola ere, udal-plangintza egitean kontuan hartuko dira, etorkizuneko antolamenduan aitzat har daitezten.
- Tolosaldeko LPPn xedatutako ingurumen-arloko edo jasangarritasun-arloko helburuak eta irizpideak betetzen direla bermatzeko, eta ezarri diren prebentziozko jarraibide eta neurri zuzentzaile guztien efikazia eta betetze-maila kontrolatzeko, IIBE azterlanak gainbegiratze-programa bat hartzen du barnean. Mota horretako agiriek izan ohi dituzten mugak muga, programa horrek jarraipena egingo zaien sistemak, alderdiak eta aldagaiak identifikatzen ditu, eta jarraipena oinarrituko den neurriak eta adierazleak ezarri. Gainera, jarraipenaz arduratzeko, lurraldeko sektore-plangintza edo udal-plangintza orokorra idazteko faseak iraun artean eskudunak diren foru-aldundiko edo Eusko Jaurlaritzako teknikariak hobesten ditu, aldagai horiek etorkizuneko antolamenduan behar bezala txertatzeko helburuarekin. Plangintza horretan inpaktuen balorazio berri bat sartuko da, eta neurri zuzentzaileak garatu, zehaztu edo egokituko dira xehetasun-maila handiagoko eskalatara jaitsi ahala; jarraipen-parametro eta -adierazle gehiago finkatuta.

Nolanahi ere, aipatu sailek memoria bat egingo dute bi urtean behin, LPP zer mailatan bete duten eta lurraldeko sektore-plangintzan eta hirigintzako udal-plangintzan zein eragin izan duten balioesteko. Halaber, ingurumen-aldagaien bilakaera azalduko du, baita proposatutako neurriena ere, eta, desorekarik egonez gero, horiek zuzentzeko neurriak zehaztuko ditu.

- Oro har, ingurumen-inpaktuaren ebaluazio bateratuaren prozesua eta hori barne dagoen Lurralde Plan Partzialeko gainerako agiriak aldi berean idatzi dira. Horrela, izapideetan zehar, LPPk helburuak bete, argitu eta birzehaztu ditu, ingurumen-analisia zabaldu eta sakondu du (lurraldearen diagnostiko eta balorazioa hobetuta), ekintza-irizpide eta -ildo berriak zehaztu ditu, zehaztapen batzuk aldatu eta berriak gehitu ditu, aukera batzuk baztertu ditu eta proposamen zenbait zehaztu eta birdefinitu ditu kalteak ekidin edo murrizteko, planean jada kontuan hartutako ingurumen-alderdiak eta -neurriak hobetu eta areagotzeko. Hala, horiek betetzen direla eta efikazak direla kontrolatu eta bermatzeko neurri berriak hartu ditu barnean.

Bestalde, Eremu Funtzionaleko LPPn txertatu dira ingurumen-txostenetan adierazitako zehaztapenak, batez ere, ingurumen-organoarenak: Ingurumen-ebaluazioaren aurretiazko txostena eta ingurumen-inpaktuaren behin betiko txostena, ondorengo aparatutan xedatutakoarekin bat.

3. Izapideak eta parte-hartzea, eta ingurumen-inpaktuaren behin betiko txostena.

Izapideak eta parte-hartzea.

- 1995. urtea: Tolosa Eremu Funtzionaleko Lurralde Plan Partzialaren lehen aurrerapena idaztea.
- 1997. urtea: LPPren lehen aurrerapen dokumentua entzunaldiaren eta jendaurreko informazioaren izapideen mende jartzea. Iradokizunak eta alternatibak eskaintzen ziren 19 idazki eta 4 txosten aurkeztu eta aztertu ziren.
- 2005. urtea: 2003. urtean, LPPren aurrerapenaren bertsio berri bat idazteari ekin zitzaion 1997an jendaurreko informazioan jarritakoa ordeztzeko, eta Ingurumen-inpaktuaren ebaluazio-azterlan bateratua egin zen. Halaber, agiria ezagutarazteko bilerak egin ziren, eremu funtzionaleko udalekin nahiz bestelako kolektiboekin eta elkarteekin. Agiri berria entzunaldian eta jendaurrean aldi berean jarri zen lau hilabetez, 2005eko abendutik 2006ko otsailera zehazki. 17 alegazio-idazki aurkeztu ziren, eta 5 txosten, baita IIBE azterlanari buruzko hiru idazki ere.
- 2006. urtea: Eusko Jaurlaritzaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren lurralde-antolamenduko zuzendaritzek ingurumen-inpaktuari buruzko aurretiazko txostena eskatu zuten. Ingurumen sailburuordearen 2006ko ekainaren 13ko Ebazpenaren bidez eman zen aipatu txostena. Gainera, aipatu Aurrerapenaren aldeko txostena eman zuen EAELABk maiatzaren 25eko bilkuran.
- 2007. urtea: Jarraipen eta Zuzendaritza Batzordeak eskatuta, Tolosaldeko LPPa idazteko irizpideen, helburuen eta konponbide orokorren zehaztapen-prozesua osatzeari buruzko txostena idatzi zen; funtsean, aipatu alegazio-idazkiei eta txostenei emandako erantzunak hartzen zituen barnean.
- 2010. urtea: 2010eko ekainaren 15ean, Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluaren Erabakiz eta Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuaren Aginduz, Aurrerapen agirian jasotako irizpideak, helburuak eta konponbide orokorrak onartu ziren. Hala, horiei jarraikiz egin beharrekoak dira eremu funtzionaleko lurralde-plan partziala idazteko lanak.
- 2012. urtea: Erabakiaren agiria eguneratu zen eskura zeuden datu sozioekonomiko eta urbanistiko berriak kontuan hartuta; lurralde-eredua birpentsatu beharrik ez zegoela ondorioztatu zen. IIBE azterlana eguneratu eta berridatzi zen, Ingurumen Inpaktuaren Aurretiazko Txostenean jasotako oharrak kontuan hartuta.
- 2013. urtea: Agiri eguneratu berria behin-behinean onartu zen 2013ko urriaren 15ean, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Gobernu Kontseiluaren Erabakiz, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordearen 2013ko maiatzaren 22ko txostenean jasotako baldintzen pean. Ondoren, jendaurreko informazioan jarri zen 10 hilabetez, eta foru-araudian,

erkidegokoan eta estatukoan xedatutako txostenak eskatu ziren, eragindako administrazioentzako eta herritar interesdunentzako kontsulta-izapidearen barnean. Aipatu izapidea amaituta, 19 alegazio eta 8 txosten jaso ziren. Horien edukia eta ondorioak, idatzaldearen txostenean jasota, administrazio-espeditentean sartuta daude.

- 2017. urtea: Behin-behinean onartu aurretik, agirian jasotako datu sozioekonomikoak eta urbanistikoak eguneratu dira eta legedian eta araudian izandako berritasunak txertatu dira, lurralde-ereduaren edukian aldaketa esanguratsurik eragin gabe. Behin-behinean onartu da Tolosako Eremu Funtzionaleko Lurralde Plan Partziala, Gipuzkoako Foru Aldundiko Gobernu Kontseiluaren 2017ko uztailaren 18ko Erabakiz.
- 2018. urtea: 2018ko urriaren 19an, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saileko Ingurumen Sailburuordetzak Ebazpena eman zuen, Tolosako Eremu Funtzionaleko (Tolosaldea) Lurralde Plan Partzialaren Behin Betiko Ingurumen Txostena formulatzeko. 2018ko azaroaren 14an, behin-behinean onartuta zegoen LPP ezagutzera eman zuen Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordeak, behin betiko onartu aurretik.

Ingurumen-inpaktuari buruzko behin betiko txostena.

Ingurumen-inpaktuari buruzko behin betiko txostenean bildutakoak kontuan hartu eta betetzearren, behin-behinean onartu zen agiriak zehaztaperen hauek biltzen ditu barnean:

1. Landaguneari dagokionez, agirian, Batasunaren garrantzizko lekuei egindako aipameneren ordez, LPPa izapidetu bitartean Kontserbazio Bereziko Eremu (KBE) izendatu diren lekuenak jasoko dira; KBE guztietan kasuan kasuko araudian xedatutako kontserbazio-neurriak aplikatuko dira.
2. Ur-ibilguekin mugakideak diren jarduketan kasuan, edo zati batean urpekorak diren eremuetan (inpaktuak baloratzeko, prozesuko faseak alderatu behar dira), IIBE azterlanaren arabera, eredia zehaztu eta garatzeko, plan edo proiektu guztiak bat etorri behar dira lurralde-antolamenduari (eta bereziki mota horretako eremuei) dagozkion eta eragiten dioten alderdietako edozeinetan aplikatzeko den legedi eta araudi partikularrarekin.

LPPk eta garapen-plangintzak aurreikusitako jarduketak, jabari publiko hidraulikoari eragiten badiote, ur-ibilguen baldintza naturalak bere horretan uzteko moduan egin behar dira; EAEko Ibaien eta Erreken LAPn ezarritako distantziak zaindu behar dira, ibilguen hondoa bere horretan mantendu behar da eta erriberako landaredia bere horretan utzi eta hobetu behar da.

Eguneratutako uholde-arriskuen mapen arabera uholde-arriskua duten eremuetan egingo diren garapen berriek eremuaren ebaluazio bat aurkeztu behar dute, zeinetan esku-hartzearen efektuak aurreikusi eta indarrean dagoen araudia beteko dela bermatuko den.

3. LPPk babestu beharreko eremuak, eta hobetu edo lehengoratu beharrekoak zedarrizten ditu, tartean, Naturagune Babestuak eta Natura 2000 Sareko eremuak (berezko araudia dute), eta garrantzi handia duten eremuak, kontuan hartuta horien natura-, ekologia-, hidrologia- eta paisaia-balioa, degradazio-egoera edo bestelako baldintzatzaile gainjarriren bat (berariaz babestu beharreko eremua izatea).

Nahitaez sartu behar dira garapen-plangintzan, ezaugarri horiek dituzten beste eremu batzuk zedarriztu edo proposatutako zedarrizteak udal-ordenantzen bidez aldatu (handitu) ahal izateari kalterik egin gabe. Nolanahi ere, LAGek babes bereziko izendatzen dituzten elementu baliotsu guztiak azaldu behar dira Udal Plangintza Orokorrean, zein bere jarduketa-esparruan eta analisi-eskalan, udal-araudiaren barnean kategoria hori esleia dakien.

- Eremu funtzionaleko intereseko espezieei dagokienez, gehienak intereseko naturagune katalogatuetan kokatuta daude. Horietatik kanpo, IIBE azterlanak bi espezie arraro aipatzen

ditu, *Carpinus betulus* eta *Coeloglossum viride*, Artaerreka eta Berastegi inguruan. Oso populazio urriak dira biak, eta populazio-guneak elkarrengandik isolatuta daude.

Horien guztien ingurumen-analisiak eskala egokian egindako azterlan bat eskatzen da. Azterlan hori dagozkion kudeaketa-planek, plan sektorialek eta/edo lurralde plan partzial honetako garapen-planek (Ondarea Kontserbatzeko Planak, besteak beste, Espezie Mehatxatuen eta Jardute Eremuko Basabizitzaren Plana) eta udal-plangintzek egin beharko dute. Edozein kasutan, udalerrri horietako plangintza orokorraren IIBE bat ere egin beharko da, eta inguruabar horiek kontuan hartuta eta subsidiariorotasun-printzipioari jarraikiz, ebaluazio hori izango da lurzoru urbanizaezinaren sailkapena erabakiko duena eta eremu horietan egingo diren erabilerak eta ekintzak erregulatuko dituena.

4. Interes zientifiko-kulturaleko eremuei dagokienez, interes geologikoko lekuen eta puntuen gaineko aipamenekin osatzen dira. Horiek «EAEko Geodibertsitate Estrategia 2020» agirian inbentariatuta daude, eta memorian zein antolamendu-arauen 15. artikuluan jasota.

5. LPPn jasotako Villabona-Anoeta ibaiertzeko hiri-garapenerako proposamenari dagokionez, IIBE azterlanaren arabera, eremu horren garapen-plangintzak (bateragarritasun-planak, udal-plangintza eta proiektuak), IIBE azterlana egin beharko zaio horri ere, kontuan hartu beharko du kaltebera gisa katalogatuta dauden espezie erriparioak daudela eremuan bertan – esaterako, uhalde-enara (*Riparia riparia*) eta txiritxo txikia (*Charadrius dubius*)–, eta, ondorioz, zonakatze eta zedarritze orokorra eta espezifikoa egokitu beharko dituzte aipatu espezieak egoteagatik dagokien araudiko zehaztapenetara. Inguruabar hori jasota dago antolamendu-arauen 45.c eta 55.8 artikuluetan.

Korridore ekologikoei dagokienez, IIBE azterlanaren arabera, Ikaztegietan eremu kritiko bat dago (0.1.2 planoa, Antolamendu-kategoriak eta ingurune fisikoa antolatzeko bestelako erreferentziak). Eremu horren landa-izaerari eutsi behar zaio, prebentzioz, korridore ekologikoen sarea lurralde-ereduan ezin hobeto txertatuta gera dadin.

6. Landaguneetako eta naturaguneetako ekipamenduei eta azpiegiturei dagokienez, LPPren arabera, landaguneetarako lurralde-proposameneko oinarrizko elementuak dira aisialdi-guneak eta ingurumen-ibilbideen sarea. Izaera hori bera izan behar dute, beraz, udal-plangintzan. Horrelakoen ezarpena eta inpaktua txikiagotzeko jarraibideak, araudi espezifikorik ez duten eremuetan, antolamendu-arauen 50. eta 58. artikuluen arabera izango dira.

Naturagune babestuen barneko aisia-jarduketei dagokienez, aisia-jarduketa oro bateragarria izan beharko da eremuon babesarekin eta kontserbazioarekin.

III. ERANSKINA, MAIATZAREN 19KO 64/2020 DEKRETUARENA

LPP

https://www.euskadi.eus/lpp_tolosaldea_ad/web01-a2lurral/eu/

KARTOGRAFÍA

<https://www.geo.euskadi.eus/lpp-tolosaldea-map/s69-geobopv/eu/>